

GARIZUMA – PASKOA

C Zikloa

2022

- *Begirada socilogikoa*
- *Begirada Biblikoa*
- *Kurutzatuaren Bidea: Zure Bidea, Nire Bidea.*
- .
- *Erantzun Salmoak.*



BEGIRADA SOCIOLOGIKOA

Ekainaren 8ra arte bide luzea dogu erromes joateko. Garizuma-aldia, Aste Santua eta Pazko-aldia. Penitentzia, heriotza, berbizkundea eta bizi barriaren ospakizuna bizi izango doguz aldi horreetan. Hausterre egunez bideari ekin eta aurrera egingo dogu.

Hara zer proposatzen deusuedan: Zergatik ez aratustean hasi?

Egia da jai hau Garizuma-aldiaren aurka jarri dana, baina baita Kristoren atzetik jarraitzen dogunok bizi garan kulturaren atal dana be. Eta Frantzisko Aita Santuaren deiari jaramon egiten badeutsagu: “Ezinbestekoa da kulturak ebanjelizatzea, Ebanjelioa inkulturatzeko” (*Evangelii Gaudium*, 69), zergaitik ez aratustea?

Kontuz! Ez dot eskatzen haretaz jabetzea, alderantziz Ebanjelioaren gaitasun barritzaile eta eraldatzeaileagaz bertan eragin, eta Ebanjelioa kultur balio eta moldeak geure eginez haragitu, aratustea beren-beregi dagokiozan balioetan, Ebanjelioagaz bateragarri diran neurrian, hazarazoteko.

Holan saiatuko gintzatekez aratustea beste era bateko jai egiten, hau da, ez “izan zeu zorioneko inork zelan esan barik!” aldarrikatuz, bakarrik gustuko dodana hartu eta atsegin ez jatana alde batera itiz.¹ Erraza da-eta Melankolia kaleko eskailera baten jarrita doinuren bat txistukatzen amaitu eta poztasunaren auzora daroan tranbia galtzea.²

Ez daitela ideal barik bizi diranen jostaketarako jai izan bakarrik³, ospatzen dakien konprometituen pozerako jai baino.⁴

Cadizeko aratustean ikusi daiteke ospatzen dakien konprometituen pozaren adibidea. Aratuste horreetan, lotsa barik, baina gatz eta piperragaz, kritika onak sortzen dira. “Las verdades del banquero” txantxak Cadizeko 2013ko aratusteetako finalaurrekoetan abestu ebazan letra biren zatia jarriko dot hemen. (Kontuan izan abeslariak bankari jantziaz agertu ziran; traje dotorea eta puruak errez; ekonomia krisialdian eta bankuak erreskatatu ondorengo testuinguruan).

- “Si en el fondo yo soy un buenazo. Yo puedo ahora mismo repartir millones de... besos y abrazos. Y puedo decir con orgullo, que yo no tengo ná mío. Yo lo que tengo es tuyo, y tuyo y tuyo.”

¹ Gonzalez-Carvajal, L. *Ideas y creencias del hombre actual*. Sal Terrae arg.. Santander (1991). [163-164 or.]

² Idem a 1. [183. or.]

³ Idem a 1. [162. or.]

⁴ Idem a 1. [184. or.]

- “Tengo colas en el banco de políticos que vienen y me dicen; guárdame esto por ahí [...] Ello se encuentran en un Ministerio con un dinero; seis por dos doce y me llevo diez...; y acuden al “malabarista” [...] El que viene así, por primera vez; yo no estoy seguro; Trae ya para acá, no seas más cageta. Y ese que me dice que por favor no aparezca el nombre, le digo; vale, pero arria la manteca. Y cuando uno dice, me voy a chivar, y el otro (político) le dice que como te chives también me chivo, y yo les digo, arriando o me chivo yo.

(Esteka honetan ikusi daitekez letra honeek dagokien testuinguruan: <https://www.youtube.com/watch?v=qIPUaieStJo>)

Bankari eta politikoei arreta eskaintzeaz gainera, eta horretan bakarrik geratu barik, kritika horreek gure alkarte eta erreferentzia taldeetarako aprobetxatu daikeguz. Hau da, gobernatzen edo gobernuan esku-hartzen dabenek bakarrik musu eta besarkadak banatzen badabez, eta daukiena alkarteaz aprobetxatuta lortu badabe... kontuak itxura txarra dau. Eta, zuzen egin ez dabenek edo oker egiten ari diran zerbaitengaitik “malabaristarengana” jo behar badabe (edo “malabarista” bihurtu)... kontuak itxura eskasa dau.

Baina, ez dogu ahaztu behar buruzagiak, eta euren laguntzaileak, ez zirala zerutik jausi, edo ez zirala mintz bat zeharkatuz beste errealidade batetik gurera igaro. Hemengo familia, etxe, eskola, eleiza, enpresa eta unibertsitateetatik datoz. Horregaitik, Cadizeko txantxa-egileek salatu ebenez jokutzen badabe, aztertu egin beharko geunke, hauteskundeetan aldatzeko aukera izateaz gainera, zer egiten dihardugun holakorik barriro gertatu ez daiten.

Beharbada lagungarri izan daiteke gure alkarte bizimodua berrikustea, hutsegiteez damutzea, maitasunaren bitartez egia, askatasuna eta zuzentasuna lantzea, grina txarrak iztea. Horregaz batera, Aste Santua Jesusengan gure grina txar eta hutsegiteen biktima diranak jarritz bizitzea. Negar egitea, Pedrol kez, errugabea ukatzeagaitik. Eta, jakina, gure berbizkunde txikia ospatu, heriotzan murgilduta gengoan-eta.

Honek on egingo deusku bai geuri eta bai alkartearenei be. Aurrera eta ekin deiogun!

BEGIRADA BIBLIKOA.

GARIZUMA-PAZKO ALDIA – 2022 – C urtea

SARRERA

Hemen dogu, barriro be, liturgia egutegiko funtsezko aldia: Garizuma eta Pazko aldia. Gure bizitzetako gertaera bereziak era berezian ospatzen doguz, gogoan izateko, sekula ez ahazteko. Gauza bera gertatzen da kristau gertaerakaz. Fededunok, liturgia zikloetan banatuta ospatzen doguz salbamen-gertaerak, ez doguzala ahazten ziurtatzeaz batera, gaurkotu egiten doguzala, gogoan doguzala erakusteko. Aldi horreen artean, Jesusen nekaldi, heriotza eta biztuera gogora ekarten deuskuzan Pazko Misterioa da garrantzitsuena.

Pazko-aldian ospatzen doguna, hil edo biziko unea da Jesusen bizitzan. Eta beste behin be gogo biziz ospatzeko, berrogei egunez osatutako aldian, Garizuma-aldian, geure burua prestatu egingo dogu. Domeka eta jaiegun honeetako liturgia irakurgaien inguruko azalpen honeek gure fedearen muina zentzun handiagoz bizitzeko prestatu gura gaitue.

Garizuma- eta Pazko-aldiko domeka eta jaiegunetako irakurgaien inguruko azalpenak (C urtea – 2022)

Dagokion eguneko irakurgaien atzean dagozan ideia nagusiak eta sentimenak nabarmenduko doguz lehenengo oinarritzko **jarrerak** aitatzuz, euren mezua nabarmentzeko eta guregan aldarte jakin bat bizteko.

Aurton, Garizuma- eta Pazko-aldi hau ondo ospatzeari begira, aldi honetako domeka eta jaiegunetako Bibliako idazkien (2022, C urtea) **azalpenak** eskainiko doguz. Egun bakotxean lau azalpen agertuko dira: lehenengo irakurgaiaren, salmoaren, bigarren irakurgaiaren eta ebanjelioaren ingurukoak.

Azkenik, azalpenen ostean erregu edo eskariak agertuko dira, **otoitz** erara, bakarka edo Eukaristietan, jaunartzearen ondoren, errezatzeko.

Laburbilduz, hona hemen lagungarri eskema:

- Ondorengo idazkien edukiak geure egiten lagunduko deuskuen **jarrera** edo aldarteak.
- Garizuma- eta Pazko aldiko domeka eta jaiegun bakotzeko irakurgaien Bibliako idazkiei buruzko **azalpenak** edo gogoetak.
- Bakarka edo Eukaristietan, jaunartzearen ostean, egin daitekezan **otoitzak**.

GARIZUMA-ALDIA

HAUSTERRE EGUNA

Bihotz-barritu zaiteze

2022 – martxoa - 2

JARRERAK

Bihotz-barritzea

Limosna

Aukera

Otoitza

baraua

LEHENENGO IRAKURGAIA *Jl 2, 12-18*

Urratu egizuez bihotzak, ez soinekoak

Hauxe dino Jaunak: «Bihurtu zaiteze Nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz. Urratu egizuez bihotzak, ez soinekoak; bihurtu zaiteze Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua da-eta, hasarregatxa eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dana. Harenbaten atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaitue ostera, labore- eta isuri-oparia eskeini deiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari. Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; batu herria batzar santura, batu zaharrak, ekarri umeak, baita bularrekoak be. Urten begi senarrak ezkongelatik, emazteak ezkon-ohetik. Negar egin begie atari eta altara bitartean abadeek, Jaunaren zerbitzariak. Esan begie: "Parkatu, Jauna, parkatu zeure herriari; ez itzi lotsatan zeure ondarea, ez dagiela menperatu atzerritarrek, ez dagiela esan beste herriek: Non dabe, bada, euren Jainkoa?"». Bere lurraldeagazko maiteminez bete zan Jauna eta parkatu eutson bere herriari.

Garizuma-aldia heltzean, kristauok geldialdia egiten dogu bidean gure bizimoduaren inguruan gogoeta egiteko. Alde batetik, esker ona adierazoten deutsagu Jainkoari bere laguntzagaz, eta gure lankidetzagaz, izan doguzan lorpen positiboengaitik; bestetik, gure pekatua autortzen dogu, Jainko berari guregan datzan negatibo guztia parkatu deigula eta bihotz-barritzeko indarrak emon deiguzala eskatzeagaz batera. Beraz, geldialdia egin eta gure gizatasunaren taupadak neurtu egiten doguz. Horretarako, Jainkoa ondoan dogu, beti parkatzeko eta laguntzeko prest, gure Jainkoa bihozbera eta errukitsua da-eta, hasarregatxa eta maitasun handikoa. Gure aldetik, ahalegindu egiten gara Jaunarengana bihurtzeko barauz eta negarrez; Joel profetak jarrera honetara deitzen gaitu: *urratu egizuez bihotzak, ez soinekoak; bihurtu zaiteze Jaunagana, zeuen Jainkoagana*. Ibilbide horretan, protagonista bi dagoz: Jainkoa eta geu. Jainkoa leiala da, gu beti ez. Horregaitik Joelek eskaera egiten deutso Jaunari: *Parkatu, Jauna, parkatu zeure herriari*. Eta xantaia

moduko batean, zera gehitzen dau: beste herriek ez daiela barre egin «non dabe, bada, euren Jainkoa?» esanez eta Jainkoak bere herriari parkatu egin eutsan.

SALMOA “Miserere” 50, 3-4. 5-6ab. 12-13, 14. 17

Erruki, Jauna, pekatu egin dogu-eta

Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz, kendu nire hobena zeure neurribako errukiz. garbitu nagizu zeharo neure errutik, garbitu neure pekatutik. Autortzen dot, bai, neure hobena, begi aurrean dot eten barik neure pekatua. Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dot pekatu, zure begietan oker dana egin dot. Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan, barritu arnasa sendoa nire barruan. Ez nagizu bota zeure aurretik, ez kendu niri zeure arnasa santua. Poztu nagizu barriro zeure salbazinoaz, sendotu nagizu zeure arnasa oparoaz. Edegi, Jauna, nire ezpanak, eta nire ahoak iragarriko dau zure gorespena.

Historian zehar, Israelek ontasunez, bihozberatasunez eta errukitasunez jokatu dauan Jainkoaren esperientzia sinisteduna, iraunkorra bizi izan dau. Jainkoaren ezaugarri horreek nabarmentzen ditu salmogileak (tradizinoaren arabera, David), Jainkoari bere errutik, bere pekatutik garbitzeko eskatuz. Otoizlariaren aldetik benetako damua dagoala esan gura dau horrek. Hau da, jabetu egiten da, nahigabez dago, hobetu egin gura dau. Ibilbide honen hasieran beste ezer baino lehen egin behar doguna, errua eta pekatua autortzea da. Gero ikusiko dogu noren aurkako iraina izan dan, kasu honetan, Jainkoaren aurka. Salmogileak iraintzen dau Jainkoa. Eta Jainkoak eskatutako parkamena eskaintzen deutso; otoizlariak laguntza eskaten dau bihotz-barritzeko, bere barrua arnasa barriz sendotzeko. Bere eskaria atzera ez botateko eta bere arnasa santua ez kentzeko eskatzen deutso. Are gehiago: bere salbazinoaz eta arnasa oparoaz barriro pozteko dinotso. Eta, azkenik, salmogilearen antzera desleial izan diranen aurrean eredugarri izatea agintzen deutso. Pekatari horreek Jainkoarengana bihurtuko dira eta bihotz-barritzerako ibilbidean haren mesedea jaso dabenek goratu egingo dabe.

BIGARREN IRAKURGAIA 2 Kor 5, 20-6, 2

Adiskidetu zaiteze Jainkoagaz: oraintxe da erruki-sasoia

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko baleutsue lez da. Kristoren izenean eskatzen deutsuegu: adiskidetu zaiteze Jainkoagaz. Pekatuagaz zerikusirik izan ez eban ha, Jainkoak gugaitik pekatuagaz bat egin eban, guk haren bitartez Jainkoaren salbazinoa lortu gengian. Jainkoaren lankide garan ezkerro, eskatzen deutsuegu, ez dagizuela alperrik hartu haren errukia. Izan be, Jainkoak dino: «Erruki-sasoian entzun deutsut, eta salbazino-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da erruki-sasoia, oraintxe salbazino-eguna.

Nazareteko Jesusengan dogun fedearen edukinaz iragarten doguna ez da norbere baratzekeo baratxuria. Ez dogu geure burua hots egiten, Kristoren mandatari gara: “Jarraitu niri” (Mt 9, 9) eta baita, “Zoaze... eta egin herri guztiak nire ikasle... bateatuz... Nik

agindu deusuedan guztia betetzen irakatsiz” (ik. Mt 28, 19-20). Gainera, Jainkoak beti aintzakotzat hartzen gaitu bere lankide izan gaitezan bere salbazinoa hedatzeko egitasmoa aurrera eroaten. Geu hartzen gaitu besteengana jo daigun eta, holan, apostolu (mandatari) izan gaitezan ebanjelizatzeko. Misino hau gauzatzeko, Kristok dei egiten deusku, lehenengo eta behin, Jainkoagaz hartu-emon ona izan daigun, Jainkoagazko adiskidetasuna barritu daigun. Horretarako dogu Krisgo, gure bitartekaria. Kristo errugabe izanda, Aita Jainkoak pekatari egin eban gure alde. Bateotik hasita, Jesus pekatarien ilaran ipini zan, bihotz-barritzeko bateoan. Jainkotiar izateari itzi barik, gizon egin zan, gurekin gauza guztietan bardin pekatuan izan ezik. Kristok Jainko Aitaren eta bere seme-alabon arteko zubi-lanak egiten ditu. Holan gauzatzen da salbazinoa, giza betetasun pozgarria.

EBANJELIOA Mt 6, 1-6. 16-18

Ezkutuan be ikusten dauan zeure Aitak emongo deus ordainsaria

Adi haretan, Jesusek esan eutsen ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jentaurrean, ikusi zagiezan! Osterantzean, ez dozue zeruetan dagoan Aitaren saririk izango. Limosna emotean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diran lez, jenteak txalotu dagizan. Egia esan, horreek jaso dabe euren saria. Zuk limosna emotean, oster, ez begi jakin zure ezkerak zer egiten dauan eskumak; holan, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan be ikusten dauan zeure Aitak emongo deus saria. Barau egitean, ez agertu bekokilun, itxurazaleak lez; ze aurpegia itsusitu egiten dabe, barau egiten dabela jenteari agertzeko. Egia esan, horreek jaso dabe euren saria. Zuk, barriz, barau egitean, igurtzi zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jenteak ez, baina ezkutuan dagoan zure Aitak ikusi dagian zure baraua; eta ezkutuan be ikusten dauan zeure Aitak emongo deus ordainsaria».

Giza eremuan, orokorrean, eta, zehatzago eremu erlijiosoan, itxurakeriarako joera izaten da Jainkoagazko, besteakazko eta norbere buruagazko hartu-emonei dagokienez. Limosnaren kasuan (besteakazko hartu-emon), betetze hutsa egon daiteke (bete eta guzurra esan). Behartsuei lagundu egiten jake (bete), baina benetako asmoa ez da laguntzea, itxurak egitea baino, ikusi gaiezan, zalaparta handia eginez, objektiboki karidadezkoa dan jarduera baltzitzuz (guzurrean ibili). Jokaera horregaz, itxurazaleek euren nahia lortu egiten dabe: besteek ikustea eta ohoratzea, leku santuan zein profanoan. Antzeko zerbait gertatzen da otoitzean Jainkoagaz hartu-emon dogunean. Eremu bikoitz bera: erlijioa (sinagoga) eta sekularra (plazak). Jarrera desafiatzailea da Jainkoaren eta besteen aurrean: zutik. Holan lortu dabe irrikatzen ebena. Benetan, euren asmoa ez da Jainkoagaz hartu-emon izatea. Baraua dala-eta, norbere buruagazko jarrerei dagokienez, eskema bera, sakonean eta azalean. Bekokilun agertzen naz, nire itxurazko soiltasunagaitik goratu nai.

OTOITZA

Espiritu Santua, lagundu eidazu egiten dodana bihotzez, eta ez betebeharrez, egiten. Jainko Aita Seme eta Espiritua, aintzakotzat hartu zaiguzala eta besteen zerbitzari izan gaitetzala.

Jauna, Aita gurea, inori ez dakiola falta duintasunez bizitzeko behar-beharrezko dana.

Jainko Aita gurea, ez daigula itxurak eginez otoitz egin, zugaz bat egiteko baino. Jesus Jauna, on eginez bizi izan zinana, ez daidala jardun bakarrik besteak ikusi nai.

GARIZUMA-ALDIKO LEHENENGO DOMEKEA

Deadar egin geuntson Jaunari, eta Jaunak gure deadarra entzun eban

2022 – martxoa - 6

JARRERAK

Historia
Opariak
Tentazinoa
Askatzailea
Konpromisoa

LEHENENGO IRAKURGAIA Dt 26, 4-10

Aukeratutako herriaren fede autormena

MOISESEK honan berba egin eutson herriari: «Abadeak zure eskutik lehen-frutuen otzarea hartu eta Jaunaren zure Jainkoaren altara aurrean jarriko dau. Orduan, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean esango dozu: "Nire aita noraezean ebilen aramearra zan; Egiptora jaitsi eta etorkin lez bizi izan zan han, lagun bakar batzuekin. Egipton herri handi egin zan jentez eta indarrez. Egiptoarrek tratu txarra emon euskuen, zapaldu eta morrontza gogorra ezarri. Deadar egin geuntson Jaunari, gure asaben Jainkoari; Jaunak gure deadarra entzun eban eta gure atsekabe, neke eta estualdia ikusi eban. Eta Egiptotik atara ginduzan Jaunak ahalmen handiz eta esku indartsuz, arerioengan bildur-ikara sortuz, ezaugarri eta egintza harrigarriak eginez. Toki honetara ekarri ginduzan eta lurralde hau emon euskun, esnea eta eztia darion lurraldea. Orain, hona hemen non dakartsudazan, Jauna, Zeuk emon deustazun lureko emoitzen lehen-frutuak". Hori esanik, Jaunaren zeure Jainkoaren aurrean itziko dozu eskeintza, eta Jauna zeure Jainkoa ahuspez gurtuko dozu».

Israelen sustraiak, bere izaeraren zentzuna, gertaera historiko sendo eta esanguratsuetan dagoz. Gizaldiz gizaldi bizi izan dabezan esperientziei esker, Jainkoa euren bizitzetan antzeman dabe. Esate baterako, K.a.ko hamahirugarren gizaldian israeldarrak esklabo lez, Egipto menderatzailean erbesteratuta bizi ziranean, eginahalak eginda be, ez eben egiptoarren kateak haustea lortzen. Han tratu txarrak, zapalketa, morrontza jasaten

ebezan. Horregaitik, Yahveri, arbasoen Jainkoari deiadar egitea erabaki eben eta Harek askatu egin ebazan. Horrek arrastoa itziko dau beranduago Jainkoaren herri deituko zan horretan. Gizalegez lortzea ezinezkoa zana, Yahveri erregutuz lortu eben. Bizipen ha erabakigarria izan zan euren esperientzia erlijiosorako, fededun esperientziarako. Eta gertaera hori ospatu, autortu, eskertu beharra egoanez, Pazko-aldia ezarri zan. Holan, Ituna barrituz, Israel herriarentzat hain funtsezkoa zana gogoratzea ziurtatzen zan. Egiptotik askatu izana, Askapenaren Teologiaren funtsezko oinarri, erreferentzia-puntu izan da neurri handi batean.

SALMOA 90, 1-2. 10-11. 12-13. 14-15

Zagoz nigaz, Jauna, larrialdian

Goi-goikoaren aterpean bizi zaran horrek, gaua Ahaltzuaren kerizpean emoten dozun horrek, esaiozu Jaunari: «Zu nire babesleku eta gaztelu, ene Jainko, Zeugan dot konfiantza». Ez jatzu zoritxarrik jazoko, ez da zure txabolara izurririk hurreratuko, bere aingeruei agindu deutse-eta, zu bide guztietan zaintzeko. Besoetan eroango zaitue, harriekin estropezu egin ez dagizun. Suge eta sugedorrien gainean ibiliko zara, oinazpian hartuko dozuz lehoia eta herensugea. «Onik atarako dot, niri lotua dagoalako, toki seguruan jarriko, nire izena autortzen daualako. Dei egingo deust, eta Nik erantzungo; beragaz izango nau larrialdian, libratuko dot eta ospez jantziko».

Jainkoarengan sinisteak norbera baino ahaltzuagoak, sendoagoak babestuta eta lagunduta sentitzea dakar. Horregaitik deitzen da Goi-goikoa, Ahalguztiduna. Eta ahalmen- eta nagusitasun-kutsua dauan beste hainbat berba be erabilten da: babesleku, gaztelu. Horregaitik, salmogileak konfiantza osoa jarten dau, batez be, esklabo sasoiko unerik latzenetan, herriaren aldeko ongile eraginkor agertu dan Jainko horrengan. Otoizlariaren itxaropena da, aurrerantzean, Jainkoak Itunaren oihal-etxolaren aurrean zoritxarra agertzea galarazoko dauala. Jainkoa eta zoritxarra aurrez aurre jarrita, salmogilearentzat ez dago zalantzarik irabazlearen inguruan. Jainkoak berak askatzen dau fededuna izurritetik eta fededuna uste osoa dau Jainkoarengan. Hain zuzen be, jainkozko agindua emon jake aingeruei eta honeek, ondorioz, fededunari min egitea galarazo eta fededuna gatx guztitik gorde behar dabe. Aingeruak dira Jainkoaren esku-hartzearen bitartekari lurrean. Fededunak zaindu egingo dabez “besoetan” eroanez eta ondo zainduz. Eta guzti hori, agindutakoaren egia bermatzen daben datu zehatzakaz egiaztatzen da. Azkenean, Jainkoa hurreratu egiten jako, entzun, lagundu eta gatx guztitik babestu egiten dau.

BIGARREN IRAKURGAIA Erm 10, 8-13

Judegu izan ala ez, ez dago bereizketarik

Senideok: Hau dino Liburu Santuak: «Hurrean dozu hitza, zeure ahoan eta zeure bihotzean». Hitz hori, hain zuzen, guk iragartzen dogun sinismenaren mezua da. Izan be, zeure ahoz autortzen badozu Jesus Jauna dala, eta zeure bihotzean sinisten badozu Jainkoak hilen artetik biztu ebala, salbatuko zara. Izan be, bihotzez sinisten dauana zuzentzat hartzen dau-eta Jainkoak, eta ahoz autortzen dauana salbatu egiten da.

Liburu Santuak dino: «Harengan sinisten dauana ez da lotsagarri geldituko». Judegu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera da-eta guztien Jauna, dei egiten deutoen guztientzat eskuzabala. Izan be, «Jaunaren izenari dei egiten deusana salbatuko da».

Paulo, erromatarrei idatzitako gutunean, Idazteunaz baliatzen da zuzenesten, salbatzen dauana fedea dala, eta ez legea, egiaztatzeko. Zoriontasun betea, erabateko gizatasuna, geure buruaren erabateko osotasuna jadetsiko badogu, ez da gure merituengaitik izango, Jainkoarengan sinisten dogulako baino. Hauxe da fedea: Jainkoaren deia konfiantza osoz nork bere egin eta bere egitasmo salbatzailean –Jainkoaren Erreinua- askatasunez lagundu. Hau jakinda, legeak, gure egintzek eta gure merituak balio lankidetzaz-balio erlatiboa dabe. Horregaitik, fede-kontuetan, arrazek, erlijinoek, herritartasunek, generoak... ez dira aintzat hartzen. Horregaitik tematzen da Paulo Jainkoarentzat, *judegu izan ala ez, ez dago bereizketarik* esatean. Nahikoa da Jesukristo hil eta berbiztuarenganako fedea ahoz eta bihotzez, eta ez konplimendu hutsez, autortzea. Nazareteko Jesusengan sinistea, Honen atzetik konfiantzaz jarraitzea, horixe da ezinbestekoa salbatzeko. Ikuspuntu honetatik, danok jaso daikegu Jainkoaren deia Jesukristorengan, edozein izanda be gure arraza, erlejino edo herritartasuna. Nahikoa da Jaunaren izenari dei egitea eta Jaunaren atzetik zintzo jarraitzea.

EBANJELIOA Lk 4, 1-13

Espirituak eroanda, basamortuan zehar ibili zan deabruak tentatzen ebala

Aldi haretan, Jesus Espiritu Santuaz beterik bihurtu zan Jordandik. Espirituak eroanda, basamortuan zehar ibili zan berrogei egunez, deabruak tentatzen ebala. Ez eban ezer jan egun hareetan, eta azkenean gosetu egin zan. Orduan, deabruak esan eutson: «Jainkoaren Seme bazara, esaiozu harri honi ogi bihurtu dadila». Jesusek erantzun eutson: «Liburu Santuan idatzirik dago: “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi”». Gero, deabruak, toki goi batera eroanda, munduko erreinu guztiak erakutsi eutsozan une baten eta esan eutson: «Horreen guztion agintea eta ospea emongo deusut: neuri emon deuste eta gura dodanari emoten deusat. Beraz, gurtzen banozu, zeurea izango da dana». Jesusek erantzun eutson: «Idatzita dago: “Jauna zeure Jainkoa gurtuko dozu, eta bera bakarrik zerbiduko”». Orduan, deabruak Jerusalemera eroan eban eta, tenpluaren goreneko ertzean ipinirik, esan eutson: «Jainkoaren Seme bazara, bota egizu zeure burua hemendik behera, ze, idatzita dago: “Bere aingeruei aginduko deutse zu jagoteko”, eta “eskuetan eroango zaitue, harriakaz estropezu egin ez dagizun”». Erantzun eutson Jesusek: «Aginduta dago: “Ez tentatu Jauna zeure Jainkoa”». Eta tentaldi guztiak amaiturik, alde egin eban deabruak Jesusengandik hurrengo aukerara arte.

Jesus Jainko eta gizon da adi berean. Gizon lez, gure bardina da gauza guztietan, pekatuan izan ezik. Tentazinoa da gizon eta emakume orori behin eta barriz aurrean agertzen jakona. Eta gu tentatzen gaituen lez, Jesus be tentatu eben. Halanda be, haren eta gure artean alde nabarmena dago: Jesus ez zan tentazinoan jausi eta gu jausten gara, bai. Tentazinoei buruzko kontaketa azaltzen deusku Lukasek Jesus ez zala tentazinoan jausi. Hiru zehaztasun agertzen dira giza jokaera orotan ikusi daitekezan oinarritzko jarrerakaz.

Bizitza publikoaren hasieran, bateoa hartuta, Jesus Jordanetik bueltatzen da Espiritu Santuz beteta. Hortxe hasten da deabruaren arazoa. Lehenengo tentazino honetan, *kontsumismoaren* jainkoa sartzen da jokoan, hau da, gauza asko eukiteak giza zoriontasun betea dakarskula nahi izatea. Gizon eta emakumeak gehiago nahi dau. “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi”. Ondoren, bigarren tentazinoan, *agintearen*, *ospearen aintzaren* jainkoa proposatzen deutso. Benetako Jainkoaren lekuan esklabo bihurtzen gaituen sasi-jainkotxoak jartean datza. Hirugarren tentazinoan, gauza *miresgarrien*, *ikusgarrien* jainkoa agertzen da eta Jesusek uko egiten deutse hirurei.

OTOITZA

Jesus Jauna, aintzakotzat hartu zaiguzala inguratzen gaituan hainbeste tentazinoren erdian.

Jainkoa, gure sortzailea, gauzak eta pertsonak jainkotu barik baloratu daiguzala.

Espiritu Santua, lagundu eta sendotu gaizuz, batez be ahulezian.

Jesusi tentazinoak gainditzeko lagundu zeuntsan Espiritu Santua, lagundu geuri be.

Jainko Aita gurea, ez eiguzu tentazinoan jausten itzi eta atara gagizuz gatxetik.

GARIZUMA-ALDIKO BIGARREN DOMEKEA

Jesus Jauna, itxuraldatu gaizuz

2022 – martxoa - 13

JARRERAK

Fedea

Lurra

Herrialdeak

Ondorengoak

Esperientzia erlijiosoa

LEHENENGO IRAKURGAIA *Has 15, 5-12. 17-18*

«Horrenbeste izango dira zure ondorengoak».

EGUN hareetan, Jaunak kanpora urtenarazo eta esan eutson Abrami: «Begiratu zerura eta zenbatu egizuz izarrak, ahal badozu». Eta, gainera, esan eutson: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Abramek sinistu egin eban Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu eban. Eta esan eutson: «Neu naz Jauna, kaldearren Ur uritik atara zinduzana, lurralde hau zuri jaubetzan emoteko». Abramek esan eutson: «Jainko Jauna, nondik ezagutuko dot lurraldearen jaube izango nazala?» Jaunak erantzun eutson: «Ekarri egidazuz hiru urteko txahal bat, hiru urteko ahuntz bat, hiru urteko ahari bat, usapal bat eta usakume bat». Ekarri ebazan Abramek honeek guztiak eta erdibitu egin ebazan, eta zatiak bata bestearen aurrez aurre ipini; hegaztiak ez

ebazan erdibitu. Hegazti harrapariak sarraskira etorzan, eta Abramek uxatu egiten ebazan. Eguzkia sartzean, lozorroan murgildu zan Abram, eta ikara handia sartu jakon. Eguzkia sartu eta ilun-baltz egin zanean, laba bat ketan eta zuzi bat sutan agertu ziran eta abere-zatien artetik igaro. Egun haretan Jaunak agintzari hau egin eutson Abrami: «Zure ondorengoei emongo deutset lurralde hau, Egiptoko ibaitik hasi eta Eufrates ibai handiraino».

Jainkoak aurrea hartzen dau Abramegaz dauan alkarrizketan. Esperientzia erlijioso honen bidez, herriaren alde dauan ardura erakutsi gura deutso Jainkoak Abrami sekulako agintzariakaz: Jainkoak ezin konta ahalako ondorengotza lortuko ebala Abramentzat bikote antzuarengandik eta ondorengotza itzel horrentzako lur zabal eta emonkorra emongo eutsala dohaintzan. Konpromiso horrek ezinezko eta gezurrezkoetik gehiago eukan arren, Abram Jaunaz fidatu egin zan eta iragarpen ha bete egingo zala sinistu eban, Jainkoarengandik etorren-eta. Iragarpen bi horreetan –konta ezin ahalako ondorengotza eta lur zabala-, Jainkoaren alderdi trazeendentea nabarmentzen da. Eta Jainkoak Kaldeako Urretik ataratea eta agindutako lurrerantz abiatzea aitatzen deutse agintzariak beteten hasiak dirala erakusteko. Alkarrizketa ha hainbat abere erritu-oparitan eskainiz berresten da. Hitzarmena, ituna be berretsi eta berronetsi zan. Eta guzti hori fantasiatzko testuinguruan: ametsa, izua, ke-lainoa, iluntasuna... Seriotasun handiko testuinguru honek gertaeraren garrantzia nabarmentzen dau. Jainkoak ondorengotza handia eta lur zabala agintzen deutzaz Abrami itunean.

SALMOA 26, 1bcde. 7-8. 9abcd. 13-14

Jauna dot argi eta salbamen

Jauna dot argi eta salbazino, nork ni bildurtu? Jauna biziaren babes, nork ni ikaratu? Entzun, Jauna, nire dei-hotsa, erruki zakidaz eta erantzun. Bihotzak esaten deust: «Bilatu egizu haren aurpegia». Zure aurpegi bila nabil, Jauna, ez ezkutatu niri zeure aurpegia. Ez baztertu zeure zerbitzari hau hasarre, Zeu zaitut-eta laguntza. Ziur dakit Jaunaren ontasuna gozatuko dodala bizidunen lurtean. Itxaron Jaunagan! Eutsi gogor, izan bihotz! Itxaron Jaunagan!

Salmogileak Jainkoaz dauan esperientzia ezin da positibo eta baikorragoa izan: beretzat, Jainkoa, argi, salbazino eta biziaren babes da. Esperientzia horren eraginez, ez inork ez ezerk ez dauala ikaratuko sentitzen dau. Horregaitik, arren eskatzen deutso dei-hotsa entzuteko, bere egoeraz errukitzeko eta horren arabera jokatzeko, hau da, bere deiei erantzunez. Otoizlariak sena, bihozkada dau: “Bihotzak esaten deust”. Jainkoa eskueran jarten da eta dei egiten deutso sinistedunari esperientzia positiboen eragile izan jakon Jainkoa bilatu daian. Salmogileak era grafikoan Jaunaren *aurpegi* lez deskribatu dan Jauna bilatzeko erabakia hartu dau. Inondik inora be ez dau Jainkoagazko adiskidetasuna galdua edo Jainkoa hasarratu gura. Horrexegaitik errepikatzen ditu gauzak: entzun naizu, deika nabil, erruki zaitez, erantzun eidazu, ez eidazu zure aurpegia ezkutatu, ez naizu baztertu hasarre. Sakoneko arrazoia, egoista samarra, hauxe da: zu nire laguntza, nire salbazinoa zarala. Horregaitik Jainkoak bertan behera itziko dauanaren bildur da. Jaunaren zorionaz gozatu gura dau biziaren herrian. Hemen, beste ahots bat agertzen da

(Jainkoa? Beste otoizlari bat?), adore emonez: *Eutsi gogor, izan bihotz! Itxaron Jaunagan!*

BIGARREN IRAKURGAIA Flp 3, 17-4, 1
Gu, zeruko uritar gara

Senideok: Izan zaiteze nire antzeko, eta begiratu nigan dozuen ereduaren arabera bizi diranei. Izan be, asko dira Kristoren kurutzearen arerio lez bizi diranak. Askotan esan deusuet eta barriro dinotsuet orain malko artean. Holakoen azkena hondamendia da; sabela dabe jainko, euren lotsarietan harrotzen dira eta lurreko gauzetan bakarrik pentsetan dabe. Gu, oster, zeruko uritar gara eta handik itxaroten dogu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko dauan ahalmenari esker. Holan, bada, ene senide gogoko eta maiteok, nire poza eta nire korroa, iraun egizue holan Jaunari leial maiteok.

Paulok Filiposeko kristau alkarteko hainbat kideren bizimodu neurrigabea moztu egin gura dau; Kristoren kurutzearen etsai dira eta, beste hainbat alkarte-kide fededunakaz batera, bere burua eskaintzen dau jokamolde eredugarri lez. Testuinguruaren arabera esan daiteke, kurutzearen adiskide izatea on eginez bizi izan zan eta mundura zerbitzatua izatera ez ezik zerbitzatzera etorri zan Nazareteko Jesusen bizimoduaren arabera bizitzean datzala. Kristau estiloagaz zerikusirik ez dauan bizimodua daroan talde haretako kideek daben jokaeraren eraginez, ezinezkoa da Kristoren atzetik jarraitzea eta horrek negarra eragiten deutso Paulori. Zein da, ba, jarrera hori? Ez dabe bizitzan asmatzen, etenbarik huts egiten dabe bidean, euren azkena hondamendia da, jan-edanak eta parrandak baino ez daukiez eta buruan. Hori da euren ideala, euren jainkoa. Orgia eta gehiegikeriak antolatzeaz harrotzen dira. Lurreko gauzetan bakarrik pentsatzen dabe. Bizimodu honen aurrean, Paulok kristau bidea aurkezten dau: *Gu, oster, zeruko uritar gara eta handik itxaroten dogu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Harek antzaldatuko dau gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko.* Begiratu daigun zerura, oinak lurrean eukiz. Pozik egon.

EBANJELIOA Lk 9, 28b-36
«Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue»

Aldi haretan, hartu ebazan Jesusek beragaz Pedro, Santiago eta Joan, eta mendira igon eban otoitz egitera. Otoitzean ziharduala, aldatu egin jakon aurpegiko itxura, eta jantzia zuri distiratsu bihurtu. Horretan, gizon bi agertu ziran, Moises eta Elias, aintzaz distiratsu Jesusegaz berbetan; Jerusalemen gertatzekoa zan Jesusen heriotzaren gainean berbaz. Pedro eta lagunak logurak jota egozan; baina itzartu egin ziran eta Jesusen aintza eta harekin egozan gizon biak ikusi ebezan. Honeek urrunduz joiazala, Pedrok esan eutson Jesusi: «Maisu, bai ederto gagozala hemen! Egin dagiguzan hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez ekian zer inoan be. Hau esaten ziharduala, hodei batek estaldu zituan, eta hodeian sartzean bildurtu

egin ziran. Ahots batek urten eban hodeitik, esanez: «Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue». Ahotsa isiltzean, Jesus bakarrik agiri zan. Ikasleek isilik gorde eben, eta egun hareetan ez eutsoen inori esan ikusitakorik ezer.

Antzaldaketaren pasarte honek sei protagonista dituan esperientzia erlijioso sakona kontatzen deusku. Jesus, hiru apostolu (Pedro, Joan eta Santiago), Moises eta Elias dira protagonista horreek eta bakotxak bere egiteko eta zentzuna dau. Jesus, protagonista nagusia, ezaugarri immanente eta transzendentekaz agertzen da. Alderdi immanenteak: hiru lagun min aukeratu, eurekin mendira igo eta otoitz egiten dabe. Mendi-gaina eta otoitza “lurraren” eta “zeruaren” arteko zubi dira. Eta Jesus antzaldatu egiten da, bere transzendentzia erakusten dau: aurpegiaren distira, jantzi zuria, argitasuna, aintza, ahotsa hodeitik. Hain zuzen be, Itun Zaharrean, hodeia, herriaren aldeko Jainkoaren agerpen onuragarriaren zeinu da. Hodeiak, egunez, kerizpea emoten eban basamortuko egun kiskalgarrietan eta, gauez, ibilbide ilunean bidea erakusten eban argi zan. Jainkoa bere herriaz arduratzen dala esateko era plastikoa da, hau da, “zerua” “lurrera” jaisten dala herriari lagun egiteko eta bere onerako laguntza emoteko. Jarraitasuna dago lege eta profetakaz (Moises eta Elias), baina Jesusek gainditu egiten ditu: «Hauxe da nire Semea, nire Aukeratua. Entzuiozue».

OTOITZA

Jainko Aita gurea, balioetsi daigula Jainkoaren seme eta alaba eta gizon eta emakume guztien anai eta arreba izatea.

Jainkozko Espiritua, Jainkoa, pertsonak eta gauzak ordena gorde daigula.

Ene Jainkoa, izan zaitez nire bizitzaren bihotz eta eragile.

Jesus Jauna, antzaldatu gaizuz; zerura begiratu daigula oinak gure lur honetan doguzala.

Jauna, Jainko gurea, aurkitu daigula Zugaz eta besteakaz bat egitera garoazan bidea.

SAN JOSE, MARIA BIRJINAREN SENARRA

Zintzoa zan Josek ez eban Maria bere emaztea etxean hartzeko bildurrik izan

2022 – martxoa – 19 - zapatua

JARRERAK

Prestasuna

Zalantzak argitu

Leialtasuna

Apaltasuna

Entzutea

LEHENENGO IRAKURGAIA 2 Sm 7, 4-5a. 12-14a. 16

Aita izango nau harek Ni, eta seme izango dot Nik ha

Egun hareetan, Jaunaren berbea etorri jakon Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dino Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko dozunean, ondorengo emongo deusut, zure erraietatik ataratakoa, eta sendotuko dot haren erregetza. Harek eraikiko deutso etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko deusat tronua. Aita izango nau harek Ni, eta seme izango dot Nik ha. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dabe nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo dau beti”».

Kontaktaren hasieran nabarmentzen danez, ekimena, Jainko Jaunarena da eta aurre hartzen dau asmo jakin bategaz. Natan profetari zuzentzen jako, bere egitasmoa iragarteko bitartekotzat hartuz. Izan be, Jainkoak aintzakotzat hartzen gaitu bere egitasmoak aurrera eroateko. Hain zuzen be, profetak Jainkoaren izenean hitz egiten deutse askotariko jasotzaileei: erregeei, abadeei, epaileei, norbanakoei, herriari. Kasu honetan, Davidengana –“nire morroi”- joateko esaten deutso Jainkoak Natani. Hortik aurrera, Jainkoaren mezuaren ingurukoak baino ez dira agertzen. Eta hauxe ohartarazoten jako Davidi: bera ez ezik Salomon bere semea izango dala Jaunak sustatuko dituan onura eta gauza harrigarrien lekuko. Protagonismorik ez. Protagonismoaren adiera honetan, David eta San Joserena egitekoak antzekoak dira. Jaunaren egitasmoa da kontuan hartu beharrekoa. Davidek iragarpena jasoko dau bakarrik: bere etxeak eta errege-aulkiak ondorengo ugari izango dabe, Jainkoaren laguntza, etorkizun sendoa. Jainkoak familia-harremanak agintzen ditu Daviden familiarentzat: “Aita izango nau harek Ni, eta seme izango dot Nik ha”. Zure etxeak, errege-aulkiak eta erregetzak sendo iraungo dabe.

SALMOA 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29

Jaunaren maitasun-egintzak kantatuko ditut beti

Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko ditut beti, zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi. Bai, autortzen dot: «Betiko eraikita dago zeruan zure maitasuna, sendo ezarrita zure leialtasuna». Ituna egin dot neure aukeratuagaz, David neure morroiari zin eginez: «Sendo ezarriko dot betiko zure errege-jatorria, gizaldiz gizaldi eraikiko zure errege-aulkia». Harek dei egingo deust: «Zu nire aita, nire Jainkoa, nire harri salbatzailea». Beti gordeko deusat neure maitasuna, sendo eutsiko haregaz dodan itunari.

Salmogileak orokorrean otoizlariaz eta bereziki herriaz errukitzen dan Jainkoaren esperientzia oso positiboa dauka. Hain zuzen be, Jainkoa bihozbera da pekatariagaz, beti emoten deutso barriro hasteko aukera, bihotz-barritzeko aukera eskaintzen deutso. Holan, abestuz, eskertzen jako Jainkoari bere borondatea, bere jarrera. “Ituna egin dot neure aukeratuagaz, David neure morroiari zin eginez”. Jainkoak agindutakoa bete egiten dau orain eta beti. Are gehiago, Jainkoaren jardunbide horrek gizaldiz gizaldi iraungo dauala iragarten dau otoizlariak. Jainko honegaz, ziurtatuta dago etorkizun onuragarria Jainkoa errukitsua eta leiala dalako beti –horreek dira bere ezaugarriak-. “Zure errukia betikoa da-eta”. “Betiko eraikita dago zeruan zure maitasuna”. “Zure leialtasuna iragarriko dot gizaldiz gizaldi”. Jainkoaren eta Daviden arteko hartu-emonak lagunartekoak, beroak,

maitekorrak dira: “Harek dei egingo deust: «Zu nire aita, nire Jainkoa, nire harri salbatzailea»”. Daviden esperientzia erlijiosoa da. Eta honan erantzuten dau Jainkoak: “Beti gordeko deusat neure maitasuna, sendo eutsiko haregaz dodan itunari”. Davidek erantzuten deutso Jainkoaren maitasunari.

BIGARREN IRAKURGAIA *Erm 4, 13. 16-18. 22*

Abrahamek sinistu egin eban, ezelako itxaropiderik ez egoanean itxaropenari eutsiz

Senideok: Euren oinordekotza mundua izango ebela agindu eutsen Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, oster, ez egokion legea betetzeari, sinismenak dauan salbazino-indarrari baino. Beraz, agintzaria, dohai hutsa izanik, fedeari dagokio; holan, Abrahamen ondorengo guztientzat balio dau, legearen arabera ondorengo diranentzat ez ezik, baita Abrahamen sinismenaren arabera diranentzat be. Bera aita dogu guztiok, Liburu Santuak dinoan lez: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dogu, beraz, Jainkoaren aurrean, harek sinistu egin eban-eta hildakoak biziarazoten eta izaterik ez dabenei izatera dei egiten deuten Jainkoagan. Abrahamek sinistu egin eban, ezelako itxaropiderik ez egoanean itxaropenari eutsiz; holan, herri askoren aita egin zan, Jainkoak esan eutsonaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Horrexegaitik, hain zuzen, zintzotzat hartu eban Jainkoak.

Salbazinoari begira, legeak fedearen parean dauan pisua da Tarsoko Pauloren eztabaidagai nagusia. Ezinbestekoa da ehun eta laurogei gradu bira emotea, goitik behera aldatzea zoriontasun betea lortzeko. Hain zuzen be, jakitun ala ez, danok jo gura dogu zoriontasun betera, erabateko gizatasunera. Edo gauza bera dana, osotasunez bizi gura dogu, bizitzan asmatu, gure bizitzari zentzuna emon. Halanda be, inork be ez dau oso-osorik lortzen danon helburu dan hori. Eta horren aurrean, milaka erantzun emoten dogu. Makina bat konponbideren artean, batzuen esanetan inork ez dau sekula ‘desideratum’ hori lortuko; ezinezkoa da; ezin dogu gehiago emon, eginahalak egin arren. Errealista izan behar dogu; ahal danagaz konformatu. Beste hainbaten ustez, danok batera, norabide berean eta zuzenean boga egiten badogu, lortu egingo dogu irrikatzen dogun hori. Ideal hori, Jainkoaren laguntzagaz gauzatuko dala sinisten dabe fededunek. Azken honeen artean, Jainkoaren laguntza Jainkoaren legea beteteagatik dagokiguzan merituengaitik helduko dala uste dabena dagoz. Dana dala beste hainbatek, besteak beste, Paulok, Jainkoarenganako fedeak, gure egintza onek lagunduta, salbatuko gaituala, gure ezintasun eta ezgaitasunetik atarako gaituala dino.

EBANJELIOA *Mt 1, 16. 18-21. 24a*

Jesusek salbatuko dau bere herria pekatuetatik

JAKOBEK Jose sortu eban, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zan Jesus, Kristo deritxona. Jesu Kristoren sortzea holan gertatu zan: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko berbea emonda egoan eta, alkarregaz bizi izan baino lehenago, seindun gertatu zan Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa zanez

eta ez eban ez bere emaztea salatu gura, ha isilean iztea erabagi eban. Baina asmo hori gogoan erabilela, Jaunaren aingerua agertu jakon amesetan eta esan eutson: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez bildur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik dator-eta. Semea izango dau, eta zuk “Jesus” ipiniko deusazu izena, ze harek salbatuko dau bere herria pekatuetatik». Josek, lotatik itzartu zanean, Jaunaren aingeruak agindu eutson lez egin eban.

San Josek miloeka lagun apal, zintzo, isil irudikatzen dau, hau da, agerpen xumea daben lagunak dira, nabarmentzen ez diranak, presentzia ezkutu edo iluna dabenak. Oharkabe bizi dira, “ospe” edo “entzuterik” ez dabe, baina euren eginkizuna ezinbestekoa da. Zintzoak dira gauza arruntak ezin hobe eginez. Dagokien lekuan dagoz, baina isilik. Holantxe agertzen da San Jose, familia bizitzan. Ogia irabazten dauana da, harotz-lanak edo antzekoak egiten ditu. Izerdia botaz irabazten dau eguneroko ogia. Eta betetea nekeza egingo jakon mandatua jasoko dau. Zalantzaz beteta dago eta erantzuna gura dau. Eta, ametsetan, Jainkoarengandik helduko jako erantzuna. Jainkoak egoera azaldu eta jaioko dan umea Espiritu Santuarengandik datorrela jakiteaz batera, San Josek esana egin (“Josek, lotatik itzartu zanean, Jaunaren aingeruak agindu eutson lez egin eban”) eta Jainkoaren egitasmoan lagundu egingo dau. Jesus Israel herriko kide izan daiten legezko estaldura emoteko bere burua eskaini eta Jesus izena ezartzen deutso. Eta, hori holan izanda, Maria etxean hartzen dau eta Belenera joaten da errolatzera, aska prestatzen dau jaiotzarako... Uste osoa jarten dau Jainkoarengan.

OTOITZA

Jauna, San Joseren bitartez, senar-emazteak ondo konpondu daitezala eskatzen deusut.

Jainko Jauna, eguneroko gauza arruntak ezin hobe egin daidazala.

Ene Jainkoa, dagokidan lekuan egon naitela, ez gorako ez beherago.

Jauna, ez naz ez ospetsua ez ezagunegia, baina nire egiteko xumeaz arduratu naitela.

Jainko gurea, izan gaitetzala benetako familia eta etxe.

GARIZUMA-ALDIKO HIRUGARREN DOMEKEA

Jaunak dei egin eutson: «Moises, Moises!». Honek eranzun: «Hemen nozu»

2022 – martxoa - 20

JARRERA

Entzutea

Hitza

Usaimena

Ikumena

Ikusmena

LEHENENGO IRAKURGAIA Ur 3, 1-8a. 13-15
«Ikusi dot neure herriaren atsekabea Egipton»

Egun hareetan, Moisesek bere aitaginarreba Jetroren, Madiango abadearen, ardiak zaintzen ebazan. Behin, basamortuan zehar eroan ebazan eta Horebera, Jainkoaren mendira, heldu zan. Han Jaunaren aingerua agertu jakon, sasi artean bizturiko sugarrean. Moisesek ikusi eban sasia, sutan egonik be, ez zala erretzen. Moisesek esan eban: «Hurreratu nadin gauza harrigarri hori ikustera: zelan izan leiteke sasia ez erretzea?». Begiratzera etorrela ikustean, Jaunak dei egin eutson sasiartetik: «Moises, Moises!». Honek erantzun: «Hemen nozu». Eta Jaunak: «Ez hurreratu; kendu oinetakoak, zagozan tokia lur santua da-eta». Eta gaineratu eban: «Zure asaben Jainkoa naz Ni, Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoberen Jainkoa». Moisesek aurpegia estaldu eban, Jainkoari begiratzeko bildurrez. Jaunak esan eutson: «Ikusi dot neure herriaren atsekabea Egipton eta entzun dot hareen oihua euren zapaltzaileen zigorpean; bai, jaubetu naz hareen oinazeekin. Eta hareek egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naz, eta lurralde haretatik lurralde on eta zabal batera, esnea eta ezitia darion lurraldera, igonarazotera». Moisesek esan eutson Jainkoari: «Hara, joango naz israeldarrengana eta "Zuen asaben Jainkoak bialdu nau zuengana" esango deutset; baina hareek "Zelan dau izena?" itauntzen badeuste, zer erantzun behar deutset?». Jainkoak esan eutson: «Nazana naz Ni. Hau esango deutsezu israeldarrei: "Nazana naz" deritxonak bialdu nau zuengana». Gainera Jainkoak esan eutson Moisesi: «Esan israeldarrei: "Jaunak, zuen asaben Jainkoak, Abrahamen Jainkoak, Isaaken Jainkoak eta Jakoberen Jainkoak, bialdu nau zuengana. Horixe izango da nire izena betiko; honan deituko deustazue belaunez belaun"».

Jainkoa gure bizitza zehatzera, gure eguneroko bizitzara hurreratu eta, hamaika inguruabarren bidez, egiteko bat agintzen deusku. Oraingoan, izadiko irudiaren bidez egin dau: sutan egoan baina erreten ez zan sasia. Jainkoak beti harritzen gaitu, askea, deigarria, ustekabekoa da. Argi eta garbi ikusten da agerraldi honetan Jainko transzendentearen eta kontingente, behartsu izateagaitik moldakaitz garan gizakion arteko asimetria edo alde. Leku santua da. Giro horretan, Jainkoa bere nortasun-agiriaren, bere DNAREN araberrako jokaera erakutsiz agertzen jaku. Bere herriaz, bere seme eta alabez arduratzen dan Jainko errukitsu eta leiala. Guzti hori sei aditzetan laburbiltzen da: «Ikusi dot (1) neure herriaren atsekabea Egipton eta entzun dot (2) hareen oihua euren zapaltzaileen zigorpean; bai, jaubetu naz (3) hareen oinazeekin. Eta hareek egiptoarren eskuetatik libratzera (4) etorri naz (5), eta lurralde haretatik lurralde on eta zabal batera, esnea eta ezitia darion lurraldera, igonarazotera (6)». Hauxe da gure guraso edo arbasoen Jainkoa. Beti bere herriaren ondoan egon dana beharrianetan laguntzeko. Norabide beretik doa, nahiz eta batzuetan errieta egin zuzentzeko.

SALMOA 102, 1b-2. 3-4. 6-7. 8. 11
Bihozbera eta errukiorra da Jauna

Bedeinkatu begi nire arimak Jauna, nire barru osoak haren izen santua. Bedeinkatu begi nire arimak Jauna, ez bedi ahaztu haren mesedeaz. Erru guztiak deusuz

parkatzen, gatz guztiak osatzen; zure bizia hilobitik askatzen dau, maitasunez eta errukiz koroatzen zaitu. Jaunak justizia egiten dau, zapaldu guztien eskubideak defendatzen ditu. Bere egitasmoak agertu eutsozan Moisesi, bere egintza handiak israeldarrei. Bihozbera eta errukiorra da Jauna, hasarregatxa eta errukiz betea. Zelan zerua lurraren gainean garai, halan haren maitasuna begirune deutsoenentzat handi.

Hiruki protagonismo berezia agertzen da kontaketa honetan: alde batetik, *salmogilea*, hitz egiten dauan bakarra; bere buruari zuzentzen jako eta berba biren bidez agertzen da: “*nire arima*”. Holan, lagunarteko alkarrizketa moduko bati, aldi berean, bakarriketa danari, ekiten jako. Otoizlaria bere buruari zuzentzen jako, ozen, bere buruagaz, bere buruaren sakonetik, barru-barrutik. Otoizgilea, gorputz eta arima, bere buruaren zuarengan husten dau bere barrua. Eta alkarrizketa berezi honetan, Israel bere herriaren aldeko makina bat onura autortzen jako *Jainkoari*. Orain, bedeinkapen erara zehazten dira mesede guzti horreek. *Salmogilea* guztiz nahastatzen da (*nire barru osoak*) esker on horretan. Eta, holan, bere buruari esaten deutso. Hemen argi agertzen dira hiru protagonistak: Ni, *salmogilea*. Zu, *nire arima*. Ha, *Jainkoa*, *Jauna*, bere egintza miragarriak autortzen jakozana. Bata bestearen atzetik aitatzen ditu Jainkoaren fintasun onuragarriak bere herriaren laguntzarako. Bere egintzen oroimena ziurtatu eta parkamena, sendatzea, askatzea, grazia, samurtasuna, zuzentasuna, irakaspena, errukia, bihozberatasuna, ontasuna eskatzen deutsaz.

BIGARREN IRAKURGAIA *1 Kor 10, 1-6. 10-12*

Zutunik dagoala uste dauana ibili bedi kontuz, jausi ez dadin

Senideok: Jakin behar dozue, gure asabak danak egon zirala hodeipean eta danek igaro ebela itsasoa; danek hartu eben bateoa hodeian eta itsasoan, Moisesegaz bat egiteko; danek jan eben espirituzko janari bera, eta danek edan espirituzko edari bera. Izan be, beragaz joian espirituzko hatxetik edaten eben; eta hatx ha Kristoren irudi zan. Halan be, hareetako asko eta asko ez jakon atsegin izan Jainkoari, eta hilda gelditu ziran basamortuan. Gauza honeek guretzat ikasbide izateko jazo ziran, gaiztakeriarik gura izan ez dagigun, hareek gura izan eben lez. Ez dagizuela marmarrean jardun, hareetako batzuk jardun eben lez, eta aingeru hondatzailearen esku hil ziran. Hau guztia gure ikasbiderako jazo jaken eta gure eskarmenturako idatzi zan, azken sasoi honeetan bizi garanok zentzunduarazoteko. Beraz, zutunik dagoala uste dauana ibili bedi kontuz, jausi ez dadin.

Asko ikasi daiteke historiatik onerako zein txarrerako. Bere historia gogoratzen ez dauana errepikatzen kondanatuta dago. Beste norbaitengan ikasbidea hartzea, orain baino lehen, beste batzuek bizi izandako esperientziak gogoan hartzea da neurriak hartuz eta bidezko ondorioak ataraz. Esaera zahar ezezagun batek dino: Azeria auzo oilategian dabilenean, kontuz! San Paulok Korintoarrei idazten deuten gutunean, euren israeldar arbasoengandik bizitzarako zentzuzko ondorioak atara daikiezala gogoratzen deutso kristau alkarte honi. Iraganeko hainbat datu lagungarri izan dakikegu positiboa hobetzeko eta, batez be, negatiboa zuzentzeko. Interesgarria da iraganaren oroimena egitea, tradizionetik ikastea. Israel herrian onerako zein txarrerako arrastoa itzi eben esperientzia

kolektiboak egon ziran. Besteak beste, Egiptotik askatu izana eta marmarrak basamortuko ibilaldian. Danetik ikasten da. Horregaitik dinogu: “nano” gara “erraldoien” bizkarrean. San Paulok honako sinboloak antzematen ditu: hodeia, itsasoa, hatxa,... eta Kristoren aitzinirudia... Kristo zan hatxa.

EBANJELIOA Lk 13, 1-9

Bihotz-barritzen ez bazarie, guztiok era berean galduko zarie

Aldi haretan, etorri jakozan batzuk Jesusi, galilear batzuri gertatutakoaren barri emotera: zelan Pilatok hil zituan, eskeintzen ziharduen oparien odolarekin hareena nahastuz. Jesusek erantzun eutsen: «Uste ete dozue galilear hareek gainerako galilearrak baino pekatariagoak zirala, holako heriotza izan ebelako? Ezetz dinotsuet, eta, bihotz-barritzen ez bazarie, danok galduko zarie era berean. Eta Siloeko torrea gainera jausita hil ziran hamazortzi hareek, uste dozue gainerako jerusalemdarrak baino errudunagoak zirala? Ezetz dinotsuet, eta, bihotz-barritzen ez bazarie, era berean galduko zarie guztiok. Eta parabola hau esan eutsen: «Gizon batek ikondoa eukan, bere mahastian landatuta. Joan zan iko bila eta ez eban aurkitu. Orduan, esan eutson mahastizainari: “Bada hiru urte ikondo honetara iko bila natorrela, eta ez dot aurkitzen. Ebagi egizu. Zertarako euki hor, lurra alperrik jaten?”. Mahastijagoleak, ostera, erantzun eutson: “Jauna, itziozu aurtengoz; bitartean, ingurua atxurtu eta ongarrria botako deusat, ea aurrerantzean fruturik emoten dauan; eta osterantzean, ebagi”».

Lukasen ebanjelioko pasarte honetan, gai interesgarri bi agertzen dira: ordainsaria eta konpromisoa. Lehenengoa. Esaldi hau axioma teologikoa zan: “Jainkoak onak saritzen ditu eta txarrak zigortzen”. Ordainsari honen inguruko kasu bi kontatzen jakuz. Odola, kontu sakratua zan, bizi-eroalea Israelentzat. Ba, Pilatok hilarazitako galilear batzuen giza odola eta tenpluan opari lez hildako animalien odola nahastatu ebazan. Hori izugarrizko biraoa zan. Bigarrena. Siloen torrea erori zan eta hamazortzi lagun hil ziran azpian harrapatuta. Hildakoen erruduntasunaz galdetu eutsen Jesusi. “Egingo eben zerbait zigor horreen merezidun izateko”. Heriotza horreen eta balizko pekatuen artean ez dagoala loturarik erantzuten deutse Jesusek, oinarrizkoa, bihotz-barritzea dala. Ikondoaren parabolaz baliatzen da beste gaia, konpromisoarena azaltzeko. Lursaila hartzen eban. Jabeak ordu asko emoten eban landatzen. Hainbat aukera emoten jako. Azkenean, azken aukera: fruturik emoten ez badau ebagi egingo dau. Danok jaso doguz gaitasunak, talentuak. Ze frutu emoten dogu? Hartu dogu konpromisoren bat?

OTOITZA

Nazareteko Jesus, tentazinoak gainditu zenduzana, lagundu eidazu gatxa onaz gainditzen.

Eskerrik asko Jauna, oparitu deuskuzuzan doeak, banatzen jakin daigula.

Jainko Aita gurea, gure gaitasunak zuregandik datoz; ondo erabili daiguzala.

Ene Jainkoa, hainbat bider huts egin deutsut, baina Zuregana bihurtu gura dot; lagundu eidazu.

Jauna, entzun daidazala oinazetan eta triste dagozanen arrangurak.

GARIZUMA-ALDIKO LAUGARREN DOMEKEA

Kristoren izenean eskatzen deutsuegu: adiskidetu zaiteze Jainkoagaz.

2022 – martxoa - 27

JARRERAK

Askapena

Barritasuna

Parkamena

Laguntasuna

Jaia

LEHENENGO IRAKURGAIA *Jos 5, 9a. 10-12*

Jainkoaren herriak, agindutako lurraldera sartutakoan, Pazkoa ospatu

Egun hareetan, Jaunak esan eutson Josueri: «Gaur kendu deutsuet gainetik Egiptoko lotsaria». Israeldarrek Gilgalen jarri eben kanpalekua eta hilaren hamalauan, arratsaldean, Pazko-jaia ospatu eben Jerikoko zelaian. Pazko-biharamonean lurraldeko frutuetatik jan eben: legamin bako ogiak eta gari-garau errea. Lurraldeko frutuetatik jaten hasi ziran egunetik aurrera, amaitu egin zan mana. Israeldarrek ez eben gehiago manarik izan, eta urte haretan Kanaango lurraldeko emoitzez janaritu ziran.

Israel herriaren historian funtsezkoa dan eta israeldarrek inondik inora ahaztu behar ez daben zerbait gogoratzen deutso Jainkoak Josueri: Egiptoren morrontzatik askatu izana. «Gaur kendu deutsuet gainetik Egiptoko lotsaria». Esperientzia honek arrasto sakona itzi eban Jainkoaren herrian. Esperientzia horren ondorioz, K.a.ko XIII. Gizaldi inguruko tribu hareek herri, Jainkoaren herri, Israel bihurtu ziran. Egiptotik askatuta, israeldarrek Kanaango bidea hartu eben basamortua, askatasun-ikaskuntzarako eremua, zeharkatuz. Lehenengo eta behin, geldialdia egin eben bidean, «Gilgalen jarri eben kanpalekua» eta Pazkoa ospatu, hau da morrontzatik zerbitzura, esklabotasunetik askatasunera igarotzea,

Jerikoko zelaian. Gertaera honi ofizialtasuna emon jakon, Jainkoak bere herriaren alde egin ebana beti gogoan izatekok. Egin beharra egoan. Israelen bereizgarri nagusia da. Jainkoak Israel etenbarik babesten dauanaren seinale, gauza bitxia gertatzen da, hau da, basamortuan zehar aurrera doazala, egunero jasoten dabe mana agindutako lurraldera iritsi arte. Han, Kanaango lurraldeko emoitzez janatitu ziran.

SALMOA 33, 2-3. 4-5. 6-7

Ahogozatu egizue eta ikusi zein ona dan Jauna

Bedeinkatuko dot aldi oro Jauna, nire ahoan beti haren gorespenna. Harro nago Jaunagaz, entzun begie apalek eta poztu beitez. Handietsi nigaz batera Jauna, goratu dagigun alkarregaz haren izena. Jaunagana jo neban, eta harek erantzun, bildur guztietatik ninduan libratu. Begiratzen deutsoenak distiratsu egongo dira, ez jake aurpegia lotsaz gorrituko. Dohakabeak dei egin eban, eta Jaunak entzun, eta estualdi guztietatik eban salbatu.

Salmo honetan, otoizlariaren alde dana emoten dauan Jainkoaren aldartea ikusten dogu eta horren aurrean, otoizlariak berak bere esperientzia erlijiosoaren barri emoten dau eta han dagozan guztiak esperientzia bera izatera deitzen ditu. Salmogileak, hasteko, Jainkoa etenbarik (aldi oro, beti) bedeinkatzea ezinbesteko dauala dino. Denpora-alderdia, bete-betea da, iraunkorra, jarraitua. Lehenengo protagonista, protagonista nagusia (Jainkoa) bigarren protagonista dan otoizlariak zehaztutako guztiak bedeinkatzen dau. Salmogile hau idazki osoaren kontalari da (bedeinkatuko dot, nire ahoan, nire arima). Bere gorespenna Jaunarentzat da, bere bedeinkapena Jainkoarentzat. Jainkoaz dauan esperientzia, positiboa da. Horregaitik, sekula huts egin ez deutsan Jainkoarengan atsegin hartzen dau: “Jaunagana jo neban, eta harek erantzun, bildur guztietatik ninduan libratu”. Azkenik, han dagozanak (talde anitza) aurkezten ditu zehaztasun handi barik eta otoizlariagaz bat egitera deitze n ditu: apalak, dohakabeak... dira. Salmogileak bat egiten dau talde honegaz eta, ondoan dauala, bere lekukotasuna emoten dau eta dei egiten deutse jainkoaren egintza miresgarriez gozatu eta Jaunaren handitasuna hots egin daien. Jainkoak entzun egiten ditu gure erreguak eta salbatu egiten gaitu.

BIGARREN IRAKURGAIA 2 Kor 5, 17-21

Zaharrarenak egin dau, barria sortu da

Senideok: Kristorena dana sorkari barri da; zaharrarenak egin dau, barria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez beragaz adiskidetu gaitualako, eta adiskidetzeko zerbitzua guri emon deusku. Izan be, Jainkoa zan Kristogan mundua beragaz adiskidetzen ziharduana, gizon-emakumeei pekatuen kontua eskatu barik, eta geuri emon deusku adiskidetzearen mezua. Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko baleutsue lez da. Kristoren izenean eskatzen deusuegu: adiskidetu zaitzeze Jainkoagaz. Pekatuagaz zerikusirik izan ez eban ha, Jainkoak gugaitik pekatuagaz bat egin eban, guk haren bitartez Jainkoaren salbazinoa lortu gengian.

Kristauarentzat, Kristogaz bat etortea, bizitzan erabateko bira emotea da. Bestelako bizimodua da. Dana Jainkoarengandik datorrela jakiteak unibertsoa esku onetan dala, historiak etorkizuna dauala esan gura dau. Mundua sortzean, dana ona zala ikusi eban Jainkoak. Halanda be, txarkeria be bada. Nondik sortzen da? Giza askatasunaz neurri barik baliatzetik. Dana dala, Itun Zaharrean bertan, Jainkoak ituna egin eban bere herriagaz. Esaldi honetan laburtu daiteke: “Ni zuen Jainkoa izango naz, zuek nire herri bazarie”. Era batera edo bestera, herri guztiek bizi dabe transzendentzia bakotxak berariazko ezaugarri erlijiosoakaz. Ba, egoera honen aurrean, sinistedun guztiek galdera hau egiten deutse euren buruari: Gizakiaren aldetik sortzen dan txarkeriaren, pekatuaren aurrean, ze jarrera dau Jainkoak herri pekatariari dagokionez? Jainkoak leial iraun dau beti itunean, Israelek leialtasun hori hainbat bider apurtu dauan bitartean. Jainkoaren jarrera, mendekua, zigorra eta bertan behera iztea ete da? Ala, bere errukiaz baliatuz, parkatzea erabakiko ete dau? Kristo kurutzean emoteak Jainko Aitagaz adiskidetu egiten gaitu, galdutako adiskidetasuna itzultzen deusku.

EBANJELIOA Lk 15, 1-3. 11-32

Honek ondo hartzen ditu pekatariak, eta jan be egiten dau eurakaz

Aldi haretan, zergalari eta pekatariak hurreratzen jakozan Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziran, esanez: «Honek ondo hartzen ditu pekatariak, eta jan be egiten dau eurakaz». Orduan, parabola hau esan eutsen Jesusek: «Gizon batek seme bi zituan. Gazteenak esan eutson aitari: “Aita, emoidazu dagokidan ondarea”. Eta aitak banatu egin eutsezan ondasunak. Handik egun gitxira, semerik gazteena, zituan guztiak baturik, urrutiko herrialde batera joan zan, eta han, nasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituan. Dan-dana galdu ebanean, gosete handia sortu zan herrialde haretan eta beharrizana sentitzen hasi zan. Orduan, herrialde haretako bategana joan eta haren morroi jarri zan, eta harek bere lurretara bialdu eban txarrizain. Txarriek jaten ebezan ezkurrez sabela betetzeko gogoa sortzen jakon ze, ez eutson inork jaten emoten. Orduan, bere senera bihurtuta, esan eban: “Hamaikatxu behargin bada nire aitarenean, ogi nahikorik daukala, eta ni hemen gosekilik. Jagi, aitagana joan eta esango deusat: Aita, pekatu egin dot Jainkoaren eta zure aurka. Ez dot gehiago seme izena merezidu. Hartu nagizu zeure beharginetariko bat lez”. Eta jagi eta aitagana abiatu zan. Oraindino urrun egoala, ikusi eban aitak eta erruki izan eban, eta, lasterka joanda besarkatu eta mosuka hasi jakon. Semeak esan eutson: “Aita, pekatu egin dot Jainkoaren eta zure aurka. Ez dot gehiago seme izenik merezidu...”. Aitak, ostera, esan eutsen morroiei: “Atara behingoan soinekorik ederrena eta jantzi egiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor loditua eta hil; egin dagigun jai-bazkaria ze, nire seme hau hilda egoan eta barriro bizi da, galduta egoan eta aurkitu egin dogu”. Eta jaia hasi eben. Semerik zaharrena soloan zan. Etxera hurreratzean, soinua eta dantzak entzun zituan, eta, morroi bati deituta, zer gertatzen zan itaundu eutson. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil dau, semea onik bereganatu daualakoa”. Seme zaharrena itzel hasarratu zan, eta ez eban sartu gura. Urten eban aitak eta erreguka hasi jakon. Baina harek erantzun eutson aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan

nagoala, zure agindurik behin be huts egin barik, eta ez deustazu sekula ahuma bat be emon lagun artean jateko, eta hori zure semeori, emagalduakaz zure ondasunak jan dituan hori, etorri danean, zekor gizendua hil deustazu". Aitak erantzun eutson: "Seme, zu beti zagoz neugaz, eta nirea dan guztia zeurea dozu. Baina egoki zan jai egitea eta poztutea ze, zure anaia hau hilda egoan eta barriro bizi da, galduta egoan eta aurkitu egin dogu"».

Seme xahutzaile edo etxekaltearen parabola lez ezagutzen dogun hau batzuek nahiago dabe Aita errukitsuaren parabola deitzea. Hiru protagonista nagusi agertzen dira parabola honetan: aita, seme nagusia eta seme gaztea. Parkamenaren gaia lantzen da. Aitak eta seme nagusiak jarrera desbardinak, hobeto esanda kontrakoak, erakusten dabez seme gaztearen leialtasunik ezaren edo pekatuaren aurrean. Seme gazteak familiaren etxea itzi eta abenturari ekiten deutso aitari balizko herentziaren aurrerapen lez eskatutako diruagaz. Parrandetan diru guztia xahutu eta bakarrik eta ezer barik geratzen da, txarriek jaten ebezan ezkurak be ezin ditu jan. Eta egoera negargarri horretan, bere errua autortu eta aitaren bihotz onbera gogoratzen dau. Ondorioa: aitarengana bueltatuko naz. Aitak hartu egiten dau. Haren zain egoan. Semearen itzulera ospatu beharra egoan. Eta jaia antolatzen deutso. Azkenean, seme nagusia heltzen da. Ez dau amore emoten, bihotz gogorrekoa da. Ez dau anaitzat autortzen. Besterik ez genduan falta! Gutako bakotxak, seguruenik, hiru protagonisten jokaera izango genduan noiz edo noiz. Zeinen antz gehiago dogu?

OTOITZA

Nazareteko Jesus, lagundu zure seme-alaba guztiei, Zeuk egin zenduan lez, gurasoen esana egiten.

Amaren erraiak dozuzan Jainko Aita, senar-emazteek benetan ulertu daiela alkar.

Hirutasun santua, familia guztietan senidetasuna bizi daiela.

Jainko Aita, Seme eta Espiritua, belaunaldi desbardinak bizikide izan daitezala.

Aita Jainkoa, edadeko pertsonen euren inguruko maitasuna eta zaintza izan daiezala.

GARIZUMA-ALDIKO BOSGARREN DOMEKEA

«Eurakaz handikiro jokatu dau Jaunak»

2022 – apirila - 3

JARRERAK

Zerbait barria

Gauza harrigarriak

Gorespena

Poza

Parkamena

LEHENENGO IRAKURGAIA *Is 43, 16-21*

Begira, dana barri egitera noa

Hauxe dino Jaunak: Jaunak bidea zabaldu eban itsasoan, bidezidorra ur oldartsuetan; gurdi eta zaldi, gudaroste ahaltsua atara eban gudura; hara, jausi dira arerioak, barriro ez jagitzeko, amatatu dira, amaitu, kandela-metxa lez. «Ez gogoratu lehenaldian jazotakoez, ez gogoratu antxinakoez. Begira, dana barri egitera noa: hasi da sortzen, ez deusazue igartzen? Bidea edegiko dot basamortuan, ibaiak landa lehorrean. Basapiztiek, txakal eta ostrukek goratuko nabe, ura emongo dot-eta basamortuan, ibaiak sortuazoko landa lehorrean, neure herriari, neure aukeratuari, edaten emoteko. Eta neuretzat eratu dodan herriak nire gorapena iragarriko dau».

2. Isaiasek (K.a.ko VI. gizaldia) Jaunaren handitasunak laburbiltzen ditu kontaketa honetan. Iragana gorogatzuz, oraina eskertuz eta etorkizun itxaropentsua aginduz egiten dau. Israelen alde egindako gauza miragarriak dirala-eta, Jainkoa esker onez gorestek jarrreran ipinten gaitu, orain be on eginez agertzen dala ziurtatzen deusku eta itxaropenari atea zabaltzen deutso etorkizunari begira. *Iraganari* dagokionez, profetak hainbat esperientzia gogoratzen dau, esate baterako: Egiptoren morrontzatik askatu izana, itsas gorria zeharkatzea, basamortuko ibilaldia, itunaren hitzarmena. Baina ez da iraganaren oroiminean geratzen. «Ez gogoratu lehenaldian jazotakoez, ez gogoratu antxinakoez». Hemendik ataraten ditu *orain* aldirako ikasgaiak: Jainkoak esku-hartzen dihardu orain be, zerbitzua, eskuzabaltasuna eta eraginkortasuna erakutsiz. “Begira, dana barri egitera noa: hasi da sortzen, ez deusazue igartzen?”. Kontaketak aurrerantz garoaz, kontsolamendua eta nasaitasuna ekarriko deuskuzan *etorkizunera*. Jainkoaren agintzaria: “Bidea edegiko dot basamortuan, ibaiak landa lehorrean”. Eta mundu osoak (herri, abere, ur) Jainkoa goratzuz eta zorioneko etorkizuna begiztatuz erantzungo dau. “Begiratu aurrera”. (2. Is: 40-55).

SALMOA *125, 1b-2ab. 2ed-3. 4-5. 6*

Gugaz handikiro jokatu dau Jaunak: hau da poza daukaguna!

Jaunak Sionen zoria aldatu ebanean, amesetan lez gengoan. Barrez bete jakun orduan ahoa, poz-oihuz mihina. Jentil-herrietan be esan eben: «Handikiro jokatu dau Jaunak hareen alde». Handikiro jokatu dau Jaunak gure alde, eta pozarren gagoz! Aldatu, Jauna, gure zoria, euri-jasek basamortua lez. Malkoz erein ebenek pozez batzen dabe. Negarrez joan ziran, hazi-zorroa eroanez; poz-oihuka datoz, gari-azaoak ekarriz.

Salmo honetan, Babiloniako erbestean (K.a.ko VI. gizaldia) atzerriratutako juduek berogeta hamar urtez jasandako egoera gatxa kontatzen jaku. Esperientzia gogor honek zorioneko amaiera izan eban zigorraren ostean. Hain zuzen be, Nabukodonosor Babiloniako erregeak Palestina txikitu eta gatibu eroan ebazan judurik baliotsuenak. Gertaera harek krisi sakona eragin eban euren herritik kanpo, tenplu barik, Jerusalem barik, errege barik, profeta barik egozalako. Marduk jainko babiloniarra Yahve Israelgo Jainkoa baino indartsuagoa ete zan? Egoera ha Yahvek zigor lez baimendutako

gertaeratzat hartuz gairitu eben estualdia. Kontua ez zan Yahve garaitu egin ebela edo ez zala ahaltsua, Jainkoak irakaspena emon gura izan eutsala herriari, hau da, historia bere borondatearen arabera kontrolatzen ebala. Egokionean, Jainkoa Nabukodonosorrez baliatzen zan, itunagazko leialtasuna hausten eban herriari eskarmentua emoteko. Herriak irakaspena bere egin ondoren, preminazko eskea egin eutsan Ziro persiar errege eta Ekialde Ertaineko nagusi barriari, euren herrira itzuli gura eben juduei horretarako aukera emon eien. Negarrez joan ziranak poz-oihuka datoz gari-azaoak ekarriz.

BIGARREN IRAKURGAIA Flp 3, 8-14

Dana zaborraren pareko jotzen dot, Kristo irabaztearren

Senideok: Nire ustez, ez dau ezerk ezer balio Kristo Jesus nire Jauna ezagutzearen neurribako ondasunaren aldean. Kristogaitik dana galdu neban eta dana zaborraren pareko jotzen dot, ha irabaztearren eta haregaz bat eginda bizitzearren. Ez naz neurez salbatzen, hau da, legea betetzeagaitik, Kristogan sinisteagaitik baino, Jainkoak sinismenaren bidez salbatzen naualako. Kristo ezagutu nahi dot, haren biztueraren indarra neugan sumatu eta haren nekeetan partaide izan gura dot, haren antzeko bihurtu heriotzan, holan hildakoen biztueran be parte izango dodan itxaropenez. Ez dot esan nahi hori lortu dodanik edota helmugara heldu naganik; baina lehian jarraitzen dot ea eskuratzen dodan, Kristo Jesusek ni neu eskuratu ninduan lez. Senideok, ez dot uste oraindino eskuratu dodanik; baina, atzean gelditu danaz ahazturik, aurrera jotzen dot eta helbururantz lehiatzen naz, saria lortzeko; horretara deitzen deust-eta Jainkoak goitik, Kristo Jesusen bitartez.

Gauzak zuzentasunez baloratzeko, gauza bakotxa dagokion lekuan eta leku bakotxa bere gauzagaz jarteko, balio erlatiboa eta balio absolutua bereizteko eskatzen deutse San Paulok gutun honetan Filiposeko kristauei. Zer da lehenengo niretzat, zer mobitzen dau nire bizitza, zein da nire bizitzaren eragilea? Ze sari, helmuga lortu gura dot? Ez dagoz lehenengo bi. Ezin jako kandela bat Jainkoari eta beste bat deabruari ipini. Ezin dozue Jainkoa eta dirua zerbitzatu (Lk 16, 13; Mt 6, 24). Danok presatzen dogu geure balio-eskala. Paulok argi eukan: Nire ustez, ez dau ezerk ezer balio (zaborraren pareko da) Kristo Jesus nire Jauna ezagutzearen neurribako ondasunaren aldean. Bakarrik Jainko Hirutasuna da absolutua. Gainerako guztiak (pertsonek, abereak, gauzak) balio erlatiboa dau, nahiz eta bere balio positiboa izan. Aintza Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari hots egitean adierazoten dogu Jainkoa absolutu dana. Ondoren dator gainerako guztia, sortutako guztia bere balio erlatiboagaz: pertsonak Jainkoaren seme eta alaba lez dagokien duintasunagaz eta gauzak (eta dana ona zala ikusi eban Jainkoak). Eta Kristok bitartekari, zubi lanak egiten ditu Jainkoaren eta kreazinoaren artean.

EBANJELIOA Jn 8, 1-11

Zuen artean pekatu barik dagoanak bota deiola lehenengo harria. Adulterioan harrapatutako emakumea

Aldi haretan, Jesus Oliamendira joan zan. Biharamon-egunsentian, ostera, tenplura agertu zan barriro, eta herri guztia etorri jakon; Jesus jesarri eta irakasten hasi jaken. Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri eutsoen eta, erdian ipiniz, esan eutsoen Jesusi: «Maisu, hau emakumeau adulterioan ziharduala harrapatu dabe. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu euskun legean. Zuk zer dinozu?» Azpikeriaz esaten eutsoen hori, zertan salatu izateko. Jesus, ostera, makurtu eta atzamarrez lurrean idazten hasi zan. Baina hareek itaundu eta itaundu ebilkozanez, zutundu eta esan eutsen: «Zuen artean pekaturik barik dagoanak bota deiola lehenengo harria». Eta, barriro makurturik, lurrean idazten jarraitu eban. Hareek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziran, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zan, emakumea aurrean ebala. Jesusek, zutunduta, esan eutson: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez zaitu inork kondenatu?» Harek erantzun: «Inork be ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Neuk be, ez zaitut kondenatzen. Zoaz eta ez egin barriro pekaturik».

Gai honek argia emoten eban: adulterioa egiten ebanari harrika hiltea jarten eutsen zigortzat (Lb 20, 10; Dt 22, 22). Idazlari eta farisearren adulterioan harrapatu eben emakumea. Nazareteko Jesusen aurrera eroan eben. Arazoa aurkeztu eta erabakia emoteko eskatu eutsen. Kontu harek ez eukan konponbide errazik. Zigorra arintzearen alde egin ezkerro, legea urratzen eban; harrika hiltearen alde agertzen bazan, bihozgabekeria aurpegiratu eta jenteak ez eukean gustuko izango. Estu hartu eben. Jesusek hirugarren bidea aukeratu eban. Atzamarrez lurrean idazten hasi zan, beharbada fariseuek eurek egiten ebezan legearen urraketak. Guztiek ihes egin eben. Jesus bakarrik geratu zan emakumeagaz eta zera esan eutsan: “Ezta Neuk be, ez zaitut kondenatzen”. Jainkoa, batzuetan, ezustekoz beteta agertzen da. “Egiten dauanak ordainduko dau”, esaten dogu. Baina Jainkoaren estiloak harritu egiten gaitu. Yahvek dino: “Nire pentsamentuak ez datoz bat zuen pentsamentuakaz” (ik. Is 55, 7-9). “Errukia eretxiaren gainetik dago beti” (St 2, 13). Jainkoaren logika da: “Ez dabe sendagilerik behar osasuna daukienek, gaixoez baino” (Lk 5, 31).

OTOITZA

Jainko gure Jauna, jente asko bizi da oinazez eta triste. Zure laguntzaz eurei lagundu deiegula.

Eskerrik asko, Jesus Jauna, zeure burua emoteagaitik, kurutzean josita hiltzeagaitik, berbizeagaitik.

Jainko Aita gurea, gure pekatua autortu eta uste osoa dogu zure errukian. Jauna, gauza handiak egin dozuz gure alde eta, horregaitik, bihotzez eskertzen deutsugu. Espiritu Santua, isuri gure gainera zure arnasa mundu hau hobetzen lagundu daigun.

ERRAMU-DOMEKA
Hosanna Daviden Semeari
2022 – apirila - 10

JARRERAK

Gorespena
Leialtasuna
Apaltasuna
Emotea
Adorea

(PROZESINOA) EBANJELIOA: JERUSALEMEN SARTZEA Lk 19, 28-40 Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

Aldi haretan, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu eban danen aurretik. Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herritxueta hurreratu zanean, ikasleetariko bi bialdu zituan, esanez: «Zoaze aurreko herritxu horretara; sartzean, astokume bat aurkituko dozue loturik, gainean inoiz inor jarri ez jakona; askatu eta ekarri. Eta inork zergaitik askatzen dozuen itaunduko baleutsue, erantzun: “Jaunak behar dau”». Joan ziran, bada, bialdutakoak, eta Jesusek esan bezala aurkitu eben. Astokumea askatzen ebiltzala, jabeek esan eutsien: «Zer zabiltze astokumea askatzen?» Eta hareek erantzun: «Jaunak behar dau». Jesusi ekarri eutsoen eta, euren jantziak astokumeari bizkarrean ipinirik, gainean jesarriazo eben. Aurrera egin ahala, jenteak euren jantziak zabaltzen eutsozan bidean. Oliamenditik beherantza hartzera joiala, ikasle-talde handia, pozez beterik, Jainkoa indartsu goratzen hasi zan, ikusi ebezan mirari guztiakaitik: «Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren erregea! Bakea zeruan eta aintza zeru-goienetan!». Jente arteko fariseu batzuk esan eutsoen Jesusi: «Maisu, egiezu errieta ikasleei!» Harek erantzun eutsen: «Hara zer dinotsuedan: honeek isilduko balira, harriek egingo leukie deadar».

Jesus aurrera doa, ez da gelditzen, ez dau atzera begiratzen, gainera etorkona somatzen baeban be. Jerusalemera igoten da. Bide neketsua da, aldapa da-eta eta horrek neke fisikoa eragiten deusto baina neke psikologikoa handiagoa da eta bideak egundoko arriskua dakartso, goian zain dagozalako bera hilteko. Halanda be, Jesus, Jainko Aitaren borondatea betetearren, gizadia salbatzearren, gizadiari zorion betea emotearren, danerako prest dago. Jesusek azkeneraino egin eban Aitaren esana, bere misinoa bere jarreraren arabera burutuz, apaltasunez. Horren adierazle, loturik egoan astokumearen pasarte. Begiratu batean, ez dau emoten zentzun handirik daukanik, hain zuzen be hemen eta hain luze. Dana dala, bigarren irakurraldi baten, aparteko nahia ikusten da Jesus Nazaretarrak Jerusalemerako sarrera asto baten gainean, hau da, abere apal baten gainean egin daian eta ez, urira zaldi gainean sartzen ziran enperadore garaileek lez. Jesus errege da: «Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!», baina jarrera mantso, otzan, esanekoa. Horregaitik, apalek, eta ez ahaltsuek, goratu egiten dabe. Jesus errege oso berezia da.

LEHENENGO IRAKURGAIA *Is 50, 4-7*

Jainko Jauna dot laguntzaile

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-jausiei adore-hitza emoteko. Goizero deust belarria erneazoten, ikasle onak lez entzun dagidan. Jainko Jaunak belarria edegi deust, eta nik ez deusat aurka egin, ez atzera jo. Lepoa eskeini neutsen jotzen ninduenei, matrailak, bizarretik tiraka ebilkidazanei. Ez neutsen aurpegia aldendu irainei eta txistuei. Jauna dot laguntzaile; horregaitik, ez naz kikildu; horregaitik gogortu dot aurpegia, harria lez, badakit-eta ez nazana lotsagarri geldituko.

Jainkoarena da ekimena gu zorioneko egiteko dauan egitasmoan. Gizadi osoa familia handi egin gura dau, bertan Jainkoa guztion aita eta ama izango dalarik. Eta horretarako, bere jarraitzaile, ikasle eta lekukook aintzakotzat hartzen gaitu, gure laguntzaz baliatu nahi dau. Ekimena berea da, baina gu guztion lankidetza gura dau. Horregaitik, gutako bakotzak Jainkoaren deia jasoten dau misino bategaz. Egitekoa, doakoa da eta ikasle izateko agintzen jaku. Doan hartu dozue, doan emon (Mt 10, 8). Hasiera baten, deiak aldi bi ditu: alde batetik, esperientzia, prestaketa (erneazo, entzun dagidan, belarria edegi deust). Bestetik, ekintza zerbitzu erara (bihotz-jausiei adore-hitza emon). Egiteko horren aurrean, esana egin ala uko egin daiteke. Kasu honetan, ez deutso uko egiten mandatuari (ez deusat aurka egin, ez atzera jo) eta, gainera, inguruabar gatzetan be eskaini egiten da (kolpeak, irainak txistuak), izan be, “Jauna dot laguntzaile; horregaitik, ez naz kikildu; horregaitik gogortu dot aurpegia, harria lez, badakit-eta ez nazana lotsagarri geldituko”. Kontaketa honek Jesusen heriotza gogoratzen deusku. Hain zuzen be, Jainko Aitak gizadia salbatzera bialtzen dau bere Semea, Mesias eta honek, Jainkoak agindutakoan leial irauteagaitik, kurutzean amaitu eban.

SALMOA 21, 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24

Ene Jainko, ene Jainko, zergaitik itzi nozu eskutik?

Ikusten nabenek burla egiten deuste, ezpanak okertuz, buruari eraginez: «Jaunagana jo dau, libratu dagiala! Salbatu dagiala, hainbeste maite badau». Txakur-taldeak nau inguratzen, gaizkile-multzoak erdian hartzen. Esku-oinak zulatu deustez, hazur guztiak zenbatu daikedaz. Nire jantziak banatzen dabez, nire soinekoa zotz egiten. Baina Zu, Jauna, ez egon urrun! Ene indar, zatoz laster niri laguntzera. Iragarriko deutset zure izena neure senideei, goratuko zaitut batzarraren erdian. Goratu egizue Jauna, begirune deusazuenok; ospatu egizue, Jakoben ondorengo guztiok, izan haren bildur, Israelen seme-alabok.

Lau protagonista pasartean: salmogilea, batzarraren erdian Jainkoari zuzendutako otoitzaren bidez bere kontrakoak be aurkezten dituana. Salmogilea, Jainkoa, kontrakoak eta alkarte sinisteduna dira. Otoizlariak bere kontrakoak aurkezten ditu jardunean. Aurkako honeek burla egiten deusie Jainkoari eta fededunei. Jainkoa eta fededunak barregarri itzi gura dabez euren burla eta keinuakaz. Zera dinoe: igarri daitela egia dala euren Jainkoaz autortzen dabena. Jainkoak hainbeste maite baditu bere fededunak eta

esaten daben lez hain ahaltsua bada, askatu eta salbatu daizala. Kontalari erregutzaileak zelan sentitzen dan azaltzen deusku: inguratuta, estututa, zulatua, hazur eta azal, garaile sentitzen diran eta bere aurrean harrotuta dagozan arerioen aurrean. Eta hori gitxi ez eta bere gauzak zotz egiten dabez. Egoera negargarri haretan, salmogilea makal dago eta urtenbide bakarra ikusten dau: Jainkoarengana, bere Jaunarengana jo, berari laguntzera joateko eskatuz. Askatu naizu, ez egon urrun, nire indar zara, lagundu eidazu, salbatu naizu. Azkenean, otoizlariak, Jainkoak bere laguntza eraginkorragaitik jadetsi dauan ospea jakinarazoten deutso batzarrari, goratzeko dei egiteaz batera.

BIGARREN IRAKURGAIA Flp 2, 6-11

Kristok apaldu egin eban bere burua, menpeko eginez heriotzaraino

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez eutson gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baino, egokion aintza itzi eta esklabo-izaera hartu eban, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki huts modura agertuz, apaldu egin eban bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, kurutzean hiltzeraino. Horregaitik, danen gainetik goratu eban Jainkoak eta izen guztietan bikainena emon eutson, Jesusen izenaren omenez danen belaunak makurtu daitezana, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihin guztiek autortu dagien Jesu Kristo dala Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Bibliako pasarte hau hasierako kristau alkarteen ereserkia da; Jesukristorenganako fedea autortzen eban, bere nortasuna jainkotarra zein gizatiarra zala argituz. Jesusek, Kristok, ez deutso Jainko izateari itzi. Jainkotiarra da Aita eta Espiritua lez, baina bere estiloa xumea da, apala, ez da ez arranditsua ez harroa. Hain zuzen be, bere jokaera zerbitzariarena da, gizakien antzekoa. Jainkoaren, bere Aitaren esana egitean, gizaki eginez, apaldu egin eban burua, menperatu egin zan gizaki huts modura agertuz jokaeran eta itxuran. Hau da, gizaki egin zan, gauza guztietan gure bardin eginez, pekatuan izan ezik. Horregaitik, gizaki lez autortu eban, izan be gizon egin zan-eta, azken muturreraino, kurutzean hilteraino iritsiz. Holan, Nazareteko Jesusengan, giza historian haragitutako Jainkoaren Semearen misinoa burutu egin eban. Jesusek bikaintasunez bete eban gizadia salbatzeko eginkizun historikoa. Horregaitik, Jainkoak, bere Aitak, danen artetik goratu eban eta izen guztietan bikainena emon eutson. Hau da. Jesusi agindutako historia barruko egitekoa gauzatuta, argi eta garbi agertzen da orain bere jainkotasuna. Giza izaera agertu eta bere aintzazko presentzia, jainkotar presentzia nabarmentzen da. Bere esanekotasuna saritu egiten da.

EBANJELIOA: NEKALDIA LUKASEN EBANJELIOTIK ik. Lk 22, 14-71. 23, 1-

56

Hau juduen Erregea da

... Jesusek deadar handiz esan eban: «Aita, zeure eskuetan izten dot neure espirtua!». Eta hori esanda, azken arnasa emon eban. Erromatar ehuntariak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu eban, esanez: «Benetan be zintzoa zan gizon hau!» ... (Pasarte luzea, hau laburpen txiki bat baino ez da).

Nekaldiaren kontaketa honetan, hainbat pertsonaia agertzen da. Horreetako bakotxarengan geure burua ikusi daikegu islatuta, neurri batean behintzat. Ispiluen antzekoak dira eta bertan ikusten dogu geure buruaren argazkia. Lehenengo eta behin, Jesusek bere burua kurutzean hilteraio emoten dau gizadi osoaren alde. Egundoko eredia da. Ondoren, ikasleek, bere lehenengo jarraitzaileek, gehien behar ebazan unean bertan behera izten dabe, bildurrez, Getsemanin bertan. Pedrok, oso prestu baina makal, ukatu egin eban eta, ostean, damutu egin zan. Judasek diruagaitik saldu egin eban. Agintari erlijiosoek biraolari izatea aurpegiratu eta salatu egiten dabe Jesus Nazaretarra. Jainkoaren izenean, legearen arabera, jokutzen dabe. Herri epaiketan, Pilatok ez dau deliturik aurkitzen Harengan. Errugabe dala uste dau, baina herriaren bildur da eta eskuak garbitzen ditu, egoerari jaramon egin barik. Herodes poztu egiten da Jesusen atxiloketaz; holan, burla egiten deutso, ikuskizun moduko bat eskaintzera behartuz. Lapurrek kontrako jarrerak dabez, bata Jesusen alde eta bestea, aurka. Soldaduek euren egitekoa beteten dabe. Kasu honetan, Jainkoaren Semea hilez. Bada beste hainbat be. Zein pertsonaiarengan ikusten dogu geure burua?

OTOITZA

Jesus Jauna, gure eguneroko bizitan zure jarrera apalak geure egin daiguzala.
Jainko Aita, zure borondateari leial eutsi deiogula, gure egiteko guztiak betez.

Jainko Jauna, parkatu gure leialtasunik ezak egitean eta ez-egitean.

Eskerrik asko, Jauna, guraso lez maite gaituzulako.

Jauna, seme-alabatzat hartu gaituzu. Anai-arreba lez maite daigula alkar.

PAZKO-EGUNA

Biztu da Jauna. Aleluia!

2022 – apirila - 17

JARRERAK

Osotasuna

Poza

Misinoa

Bakea

Fedea

LEHENENGO IRAKURGAIA *Eg 10, 34a. 37-43*
Nazareteko Jesus, Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz igurtzi eban

Egun hareetan, honan berba egin eban Pedrok: «Badakizue zer jazo zan, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek iragarri eban bateoaren ondoren: hau da, Nazareteko Jesusena; Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz igurtzi eban, eta harek on egiten eta deabruak hartutako guztiak osatzen igaro eban bizitza, Jainkoa beragaz eban-eta. Eta geu gara harek judeguen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik dingilizka hil eben; baina Jainkoak biztu egin eban hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena emon eutson; ez, oster, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baino: geuri, hain zuzen be, ha hilen artetik biztu ondoren haregaz jan eta edan dogunoi. Jesusek berak agindu euskun herriari predikatzeke eta autortzeke, bera dala Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini dauana. Profeta guztiek autormen hau egiten dabe haretaz: harengan sinistu dagien guztiek pekatuen parkamena hartuko dabela, haren izenean».

Jesusen berbizkundearen ostean, ikasleek ebanjelizatzen jarraitu eben. Pedro izango da apostoluen eta gainerako kristauen bozeroalea eta hasierako kristau alkarteko kide izan eta Jesusen eta bere mezuaren lekuko izan diranei hitz egiten deutse. Kontaketa honek pisu espezifiko eta historikoa emoten deutso erretzen ari dan “kredoaren” antzekoa dan lehenengo teologia kristauaren azalpen labur honi. Kristau oinarrien laburpena da; Jesusen bizitzaren funtsezko gauzen laburpena da. “Kerygma” be deitzen da, hau da, Jesusen bizitza, heriotza eta berbizkundearen jakinarazpena. Laburpen hau, Joanek hots egin eban bateoagaz hasten da. Eredu geografikoa, Galilea eta Judea da. Jesusen bizitza publikoaren hasiera honetan, Hirutasuna agertzen da: Nazareteko Jesus; Jainkoaren Semea, Jainko Aitak Espiritu Santuaren indarraz igurtzia. On egitean eta zapalduak sendatzean datza Jesusen misinoa. Pedrok eta bere entzuleek horren lekukotasuna emon leikie. Jerusalem, somatzen zan, kurutzean josi eben, baina Jainkoak, bere Aitak, berbiztu egin eban. Holan, argi geratzen da Jesusek Salbatzaile lez eban egitekoa bikaintasunez bete ebana.

SALMOA 117, 1-2. 16-17. 22-23. 24
Eskerrak Jaunari haren maitasuna betikoa da-eta

Eskerrak Jaunari, ona da-eta, haren maitasuna betikoa da-eta. Esan begie israeldarrek: haren maitasuna betikoa. «Jaunaren eskumak indarrez jokatu dau, Jaunaren eskuma guztiz garaia da». Ez naz hilko, ez, bizi baino, Jaunaren egintzak kontatzeko. Etxegileek baztertutako harria giltzarri bihurtu da. Jaunak egin dau hori, gure begien harrigarri.

Salmogileak dei egiten deutso batzarrari Jainkoari eskerrak emon deiozan. Jainkoagazko hartu-emonak nahitaez doakoa izan behar dau, ezin da salerosketa-kontua izan. Nahikoa da daukagun guztia jaso egin dogula autortzea. Otoizlariak esker onaren arrazoia azaldu dau: Jainkoaren ontasuna, maitasuna, betikoak («Eskerrak Jaunari, ona da-eta»), eta baita

bere nagusitasuna, ahalmena eta indarra be. («Jaunaren eskumak indarrez jokatu dau»). Jarrera edo aldarte bikotxa: alde batetik, otzantasuna eta, bestetik, sendotasuna. Bikote hau ezinbestekoa da. Horixe espero dabe ume txikiek euren gurasoengandik. Gertuko gura dabez, onbera, euren maitasuna jasoteko. Baina, aldi berean, sendo gura dabez, euren laguntza izateko. “Errukia”, “maitasuna”, aitatzen da hainbat bider, hartzaileei zuzenduta: zuek eta Israel etxea. Maitasunaren garrantzia nabarmentzen da eta Israel, zehatz-mehatz, Jainkoaren herri dala azpimarratzen. Orain, denpora gehiago bizi gura dauala dino erregutzaileak, txantaje antzeko baten bidez, «Jaunaren egintzak kontatzeko» atxakiagaz. Batzarraren erantzunaren zain geratzen gara.

BIGARREN IRAKURGAIA 1 Kor 5, 6b-8 **Legamia zaharra kendu ore barri izateko**

Senideok: Kristo gure Pazko Bildotsa opari eskeinia izan da. Ospatu dagigun, beraz, Pazko-jaia, ez legamina zaharragaz, pekatuzko eta gaiztakeriazko legaminagaz, legamina bako pazko-ogiekin baino, hau da, bihotz-garbitasunez eta egiaz.

Sagar ustelak inguruan dituan gainerakoak usteldu egiten dituala esan ohi da. Idazki honek agertzen dauan irudiaren antzeko esanahia dauan esaldia da. San Paulo legamiaren irudiaz baliatzen da gugaz hartu-emonean dagoan guztiak –pertsonak, bizigiroak, jokaerak, askotarikoak...- dauan eragina aitzeko. Hain zuzen be, egiten edo egin barik izten dogunak eragina dau gure bizitzetan onerako zein txarrerako. Legamiak, egoera onean ala txarrean badago, zaharra ala barria bada, ogi osasungarri ala desegokia egiten dau. Dei egiten jaku ustelkeria eta txarkeriazko legamia ezabatu daigun, Pazkoa ospatuz, Kristo hil eta berbiztuaren atzetik jarraituz, zintzotasun eta egiaren legamia bako pazko-ogiaren bidez. Pekatua legamia zaharrari lotzen jako, hau da, ore altxatu egiten dau, baina emaitza ogi eskasa da, bizimodu eskasa. Ostera, Kristok, legamia barriak be ore altxatu egiten dau baia, kasu honetan, ogi osasungarri eta atsegingarria eginez, hau da “igarotzea”, aldaketa, bihotz-barritzea dan Pazkoa. Kristo ore barriagaz heriotzatik bizira igaroten gara.

EBANJELIOA Jn 20, 1-9 **Jesusek hilen artetik biztu behar eban**

Astearen lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zan goizean goiz, oraindik ilun egoala, eta harria hilobitik kenduta ikusi eban. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite eban beste ikasleagana bihurtu zan lasterka, eta esan eutsen: «Eroan egin dabe Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri daben». Urten eben, orduan, Pedrok eta beste ikasleak, eta hilobirantz abiatu ziran. Biak batera joiazan lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago joian, eta lehenago heldu zan hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituan, baina ez zan sartu. Heldu zan haren atzetik Simon Pedro be eta hilobian sartu zan. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituan, baita Jesusen burua batzen egondako zapia be; hau, ostera, ez egoan oihal-zerrendekin batera jarrita, beste leku baten batuta baino. Orduan, sartu

zan beste ikaslea be, hilobira lehenengo heldu zana. Ikusi eta sinistu egin eban. Izan be, ordura arte ez eben ikasleek ulertu Liburu Santuak dinoana, Jesusek hilen artetik biztu behar ebala.

Jesusen gorpua hilobian ezarri eben. Gaua igaro ondoren, hara doa Maria Magdalena. Oraindik eguna argitu barik egoala eta berak bakarrik ezingo ebala sarrerako harritzarra kendu konturatu be egin barik. Maitasunak, bildurra eta balizko zailtasun guztiak gaitzen ditu. Eguna argitu eta harlauza kenduta egoala ikusi eban. Astearen lehenengo eguna zan, zapatuaren biharamuna, domeka deitzen dogu kristau egutegian; (latineko ➔ dies **Domini**; Jaunaren eguna). Jesus, Jauna, berbiztu zan eguna. Maria Magdalenak hilobia hutsik egoala ikusi eta arineketan joan zan Simon eta Pedro Jesusen lagun minei eta Joani (?), beste ikasleari, barria emotera. Deigarria da emakume bat izatea Jesusen hilotzaren desagerpena eta ustezko lapurretaren lehenengo aldiz iragarten dauana. Lasterketa gorabeheratsuaren ostean, ikasle biak egoeraren lekuko dira; ikusi eta sinistu egin eben, izan be “ordura arte ez eben ikasleek ulertu Liburu Santuak dinoana”.

OTOITZA

Jesus Jauna, negatibora hil gaitezala eta positiboa bizi daigula.
Jesus berbiztua, zure biziaren osotasunak danok kutsatu gaizala.
Berbiztuaren poza lagun, Kurutziltzatuaren kurutzea garaitu daigula.
Jaingo Aita gurea, on egin eta txarkeriaren aurka borrokatu daigula.
Espiritu Santua, lagundu eiguza bizitza osora berbiztu gaitezana.

PAZKO-ALDIKO 2. DOMEKEA

Osatu egiten ebazan guztiak

2022 – apirila - 24

JARRERAK

Bihotz-barritzeak
Sendaketak
Ez bildurtu
Zeinuak
Poza

LEHENENGO IRAKURGAIA *Eg 5, 12-16*

Gero eta ugariago ziran Jaunari alkartzen jakozan fededunak

Mirari eta egintza harrigarri asko jazotzen zan herrian apostoluen eskuz. Fededun guztiak Salomonen aterpean batzen ziran gogo batez; baina beste inor ez zan hareekin alkartzera ausartzen, herriak goratzen baebazan be. Gero eta ugariago ziran Jaunari

alkartzen jakozan fededunak, gizon eta emakume. Gaixoak kaleetara ataratzen ebazan jenteak eta ohe nahiz ohatiletan ezartzen ebezan, Pedro igarotzean, honen gerizeak behinik behin hareetakoren bat edo beste ikutu egian. Jerusalem inguruko herrietatik be jente-talde handiak etortzen ziran, gaixoak eta espiritu gaiztoen menpe egozanak ekarri, eta osatu egiten ebazan guztiak.

Hasierako kristau alkarteetan, Nazareteko Jesusen mezua, Ebanjelioa, barri ona hots egiten zan. Baina hitzak ekintzei lotuta joiazan. Alde batetik, ekintzek predikua egiaztatzen eben eta, bestetik, esandakoek egindakoak argitzen ebezan. Jasotzaileak: sinistedun guztiak, orokorrean. Salbuespen barik. Ebanjelioaren predikuak espiritu bera aranasten eben kristauak batzen ebazan. Baziran ebanjelioa entzun eta bat egiten eben jentilak be. Inbidia sana zen edo bizigarria. Egoera honen aurrean, batzuk ez eben sinistedunakaz bat egiteko ausardiarik; beste batzuk Jesukristorengana bihurtzen ziran. Dana dala, gero eta ugariago ziran kristau alkarteetan Jaunaren atzetik jarraitzeko sartzen ziranak. Gizartean, jenteak eretxi ona eban kristauez. Horregaitik, fededun ugari alkartzen jakon Jaunari. Kristau jokaera positibotzat hartzen zan eta, ondorioz, jente asko hurreratzen jaken apostoluei, Jesusek egiten eban lez, gaixoak sendatu egiezan. Holan, Espirituaren laguntzagaz eta kristau ereduagaz, Eleiza arin hasten joian.

SALMOA 117, 2-4. 22-24. 25-27a

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

Esan begie israeldarrek: haren maitasuna betikoa. Esan begie aarondar abadeek: haren maitasuna betikoa. Esan begie Jaunari begirune deutsoenek: haren maitasuna betikoa. Etxegileek baztertutako harria giltzarri bihurtu da. Jaunak egin dau hori, gure begien harrigarri. Hau da Jaunaren egintza-eguna, poztu gaitezana eta alaitu harengana. Emon, Jauna, salbazinoa, emon, Jauna, zoriona! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Jaunaren etxetik bedeinkatzen zaituegu. Jainko da Jauna, berak egiten deusku argi.

Salmo honen hasieran, hiru bider agertzen da *maitasuna* hitza. Beraz, argi geratzen da gai honek berebiziko garrantzia dauana otoitz honetan. Maitasun horren onuradun zein dan be zehazten dau: israeldarrak, aarondar abadeak eta, orokorrean, fededunak. Azken batean, Jainkoaren herri osoa. Maitasuna hitzak hiru alderdi nabarmentzen ditu batez be: lehenengoa, Israelgo fededunek pekatu egin ebela, desleial jokatu ebela Jainkoagazko itunagaz; bigarrena, damutu egin zirala eta, azkenik, Jainkoak parkatu egin eutsela. Ondoren, azalpenak emoten ditu. Jainkoa alde batera itzi eben, ez eben kontuan hartu, ez eutsen jaramonik egin. Gitxietsi egin eben Jainkoaren laguntza barik ezin okerrago joan jakon Jainkoaren herriari; orduan, gogoeta egin eta Yahve, “etxegileek baztertutako harria giltzarri bihurtu” dala autortu eben. Jainkoa ondoan izanda, hobeto egozala konturatu ziran, Harek lagundu egiten eutsen-eta, gauza miragarriak egiten ebazan-eta, “gure begien harrigarri”. Egiaztatu egin eben eta, orain, ospatu egiten dabe pozez gainezka. Horregaitik, Jainkoa goratzen dabe tenpluan, haren izena bedeinkatuz eta bere argia, gure zoriona eta gure salbamena eskatuz.

BIGARREN IRAKURGAIA *Ap 1, 9-11a. 12-13. 17-19*
Ez bildurrik izan! Neu naz lehenengoa eta azkena, bizi dana

Ni, Joan, zuen anaia eta Jesusen maitasunagaitik atsekabeen, erreinuan eta itxaropen iraunkorrean kideko nazan hau, Patmos deritxon ugartean nengoan erbesteratuta Jainkoaren hitzagaitik eta Jesusen testigantza egiteagaitik. Jaunaren egunean Espirituak hartu ninduan eta neure ostean ahots handia entzun neban, turuta-hotsa lakoa. Hau inoan: «Idatzi egizu liburu baten ikusiko dozuna, eta bialdu Asiako eleiz alkarteetara». Bihurtu nintzan berba egiten eustan ahots ha norena ete zan ikusteko eta, bihurtzean, urrezko zazpi argimutil ikusi nituan, eta hareen erdian gizaseme antzeko bat, soineko luzez jantzita eta bularraldea urrezko uhalez lotuta. Ha ikustean, hilda lez jausi nintzan haren oinetara. Harek eskumako eskua gainean jarri eustan, esanez: «Ez bildurrik izan! Neu naz lehenengoa eta azkena, bizi dana; hilda egon nintzan, baina orain bizirik nago gizaldien gizaldietan, eta neure esku ditut Heriotzaren eta Hilan Egoitzaren giltzak. Idatzi egizu, bada, ikusi dozuna; orain dana eta gero izango dana».

I. gizaldiaren amaieran idatzi zan Apokalipsi liburuan jasoten dan idazkia da. Kontalaria bera da protagonista. Berak hitz egiten dau, hasteko bere burua aurkeztuz. Joan dau izena eta Jesukristorengan sinisteagaitik eta Erreinuaren alde egiteagaitik zelanbaiteko jazarpena jasan dauan kristau alkarteren bateko kide lez agertzen da. Patmos ugartean erbesteratuta dago. Han, esperientzia mistikoa bizi izan eban eta ahots handia entzun eban, hau inoala: «Idatzi egizu liburu baten ikusiko dozuna, eta bialdu Asiako eleiz alkarteetara». Posta arrunta, ofiziala jasoten eben lekuak zirala emoten dau. Zer zan ikusten ebana? Jerusalemeko tenpluan ospatutako ohikuneak gogora ekarten ebezan argimutilak eta Gizaseme deitutako pertsonaia. Deitura hau Itun Zaharrean be agertzen da. Itun Barrian, bere buruaz hitz egiteko darabil Nazareteko Jesusek. Dotore jantzita dago, jantzi liluragarriakaz. Agertoki ikusgarri eta liluragarri harek Joan hilda lez jaustea dakar. Pertsonaia hurreratu egiten jako eta zera dinotso: «Ez bildurrik izan! Neu naz lehenengoa eta azkena, bizi dana». Berbiztua da.

EBANJELIOA *Jn 20, 19-31*
Hartu egizue Espiritu Santua

Astearen lehenengo egunean, ilunabarrean, etxe baten batuta egozan ikasleak, ateak itxita, judeguen bildurrez. Sartu zan Jesus eta, erdian jarrita, esan eutsen: «Bakea zuoi». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi eutsezan. Ikasleak pozez bete ziran, Jauna ikustean. Jesusek barriro esan eutsen: «Bakea zuoi. Aitak Ni bialdu nauan lez, bialtzen zaituet Neuk be zuok». Eta hareen gainera arnasa botata, esan eutsen: «Hartu egizue Espiritu Santua. Zuek pekatuak parkatzen deutsezuezanei, parkatu egingo deutsez Jainkoak be; zuek parkamena ukatzen deutsezuenei, ukatu egingo deutse». Tomas, Hamabietariko bat, Bikotxa eritxona, ez egoan hareekaz Jesus etorri zanean. Beste ikasleek esan eutsoen: «Jauna ikusi dogu». Tomasek erantzun eutsen: «Haren eskuetan untze-zuloak ikusten ez badodaz, nire atzamarra haren untze-zuloetan eta

nire eskua haren saihetsean sartzen ez badot, ez dot sinistuko». Handik zortzi egunera, etxean egozan barriro ikasleak, eta Tomas be eurakaz zan. Sartu zan Jesus, ateak itxita egozala eta, erdian jarririk, esan eutsen: «Bakea zuoi». Gero esan eutson Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinisgogor, sinistedun baino». Tomasek erantzun eutson: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!» Jesusek esan eutson: «Ikusi nozulako sinistu dozu? Zorionekoak ikusi barik sinisten dabenak». Beste mirarizko seinale asko be egin eban Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzita ez dagozanak; honeek idatzi dira sinistu dagizuen Mesias eta Jainkoaren Semea dala Jesus eta, sinistuz, haren izenean bizia izan dagizuen.

Hona hemen Berbiztuaren agerraldi baten deskribapena. Asteko eguna nabarmentzen da: domeka; Jaunaren eguna, Jesus berbiztu zan eguna. Ikasleak, juduen bildur, etxe batean batu ziran ateak itxita. Hantxe agertu zan Jesus, berezko ezaugarriakaz eta aintzazko ezaugarriakaz: alderdi biakaz. Sartu egiten da, ateak itxita dagozala, eta eskuetako eta saihetseko zauriak erakusten deutsez. Kurutziltzatua biztu egin dala ikusarazoten dau, Berbiztua da. Eta bakezko mezua helarazoten deutse errepikatuta. Ikasleak asko pozten dira. Bildurretik poztasunera igaroten dira, Biziduna euren artean dalako. Orain, zeharka-meharka iristen jaken misinora bialtzen ditu: Jainko Aitak bere Seme Jesus bialtzen dau eta honek bere ikasleak bialtzen ditu. Misino bera da, egiteko bardina: ebanjelizatzea, Jainkoaren Erreinuaren barri ona. Horretarako, ikasleek Espirituaren indarra jasoten dabe. Orain, Eleiza sortu barriak pekatuen parkamena emon leike. Tomas ez egoan eta ez eutsen «Jauna ikusi dogu» esan eutsen ikasleei sinistu. Berbiztuaren beste agerraldi bati esker oihukatu eban Tomasek esperientzia bizi ondoren: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!».

OTOITZA

Jesus, Zuregan uste osoa izan daidala, «ez bildurrik izan! Neu naz lehenengoa eta azkena, bizi dana» esaten deustazu-eta.

Jauna, zeruko Jainkoa, Zuri begiratu deizugula, baina onek gizakien lur honetan doguzala.

Nazareteko Jesus, izan zaitez nire eredu eta jokaera zuzena izan daidala. Sinisten dot, Jauna, baina handitu nire fedea. Lagundu sortzen jatazan zalantzak gainditzen.

Bedeinkatzen zaitugu, Jainko gure Jauna, zure maitasuna betikoa da-eta.

PAZKO-ALDIKO 3. DOMEKEA

Geu gara gauza honeen testigu

2022 – maiatza - 1

JARRERAK

Esanekotasuna
Funtsezkoa
Ausardia
Entzutea
Bizia

LEHENENGO IRAKURGAIA *Eg 5, 27b-32. 40b-41* **Jainkoaren esana egin behar da lehenengo, ez gizakiena**

Egun hareetan, abade nagusiak esan eutsen apostoluei: «Ez geuntsuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, barriz, Jerusalem osoa bete dozue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi deuskuzue». Pedrok eta beste apostoluek erantzun eben: «Jainkoaren esana egin behar da lehenengo, ez gizakiena. Gure asaben Jainkoak biztu egin dau zuek egur batetik dingilizka hil zenduen Jesus. Jainkoak goratu egin dau bere eskumaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-barritzea eta pekatuen parkamena emoteko. Geu gara gauza honeen testigu, geu eta esaneko jakozanei Jainkoak emoten deuten Espiritu Santua». Jesusen izenean hitz egitea zorrotz galarazo eutsien. Ondoren, askatu egin ebezan. Apostoluek pozez urten eben Batzarretik, Jesusen izenagaitik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu ebazalako.

Aginte erlijiosoak kontuak eskatzen deutsoz Jesusi galdeketaren bidez. Ez geuntsuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuen irakaspenak Jerusalem osoan hedatzen dihardu eta Nazaretarraren heriotzaren errua aurpegiratzen deuskuzue. Erantzuna eztaba daezina da, galderari zuzenean erantzuten ez badeutso be. Jesus sustraira doa: «Jainkoaren esana egin behar da lehenengo, ez gizakiena». Eta isildu barik, apostoluek Kerigmaren funtsezkoena irakasten jarraitzen dabe: Jesusen heriotza eta biztuera. Holan, argi eta garbi dakigu zein izan zan hasierako kristauen prediku nagusia. Jainkoa, Yahve, «gure asaben Jainkoa», abiapuntutzat hartuz, Jesus berbiztu egin ebala hots egiten dabe Haretaz, eta buru eta salbatzaile egin ebala, hau da, salbazinoari (bihotz-barritzea eta pekatuen parkamena) begira, Israel herriari agindutako Mesias autortu ebala Jesusengan. Ausardia handiz, apostoluek Sanedrinari aurpegiratzen deutse Jesusen heriotza eta botere erlijiosoak salatzen dabez, kurutziltzaketaren arduradun eginez. Apostoluak, orain, ezin dira isildu. Espirituaren lekuko dira eta honek bultzatzen ditu, ezinbesteko dabe misinoa onartzea eta gauzatzea.

SALMOA 29, 2 eta 4. 5 eta 6. 11 eta 12a eta 13b **Jauna, izan zakidaz laguntzaile**

Gorutzen zaitut, Jauna, onik atara nozulako, arerioei nire lepotik pozten itzi ez deutsezulako. Jauna, Heriotz-lezatik atara nozu, zulora jaisteko nengoala bizibarritu.

Kanta Jaunari, haren fededunok, goratu egizue, haren santutasuna gogoratu. Une baterako da haren hasarrea, bizi guztirako haren onginahia. Arratsean negarra da gurean, poz-oihua goizean. Entzun, Jauna, eta erruki nitaz, izan zakidaz laguntzaile, Jauna. Negarra dantza bihurtu deustazu, Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emongo deustadaz beti.

Hiru zati bereizi daitezke salmo honetan. Salmogileak Jainkoagaz iraganean, orainean eta geroan dituan hartu-emonak kontuan hartzen ditu. Lehenengo zatiaren hasieran, Jainkoari gorespena eta esker ona adierazoten deusez iraganean arerioakaz bizi izandako kontrako egoeraren batetik askatu daualako. Hain zuzen be, kontrako egoera horretan, erregutzaileak Jainkoarengana jo eban eta honek osasuna emonez, bizitzako estutasunen batetik askatuz eta hiltzeko zorian zala suspertuz erantzun eutsan. Orain aldian, otoizlariak dei egiten deuse batzarreko fededunei Jainkoak bere herriaren alde egindako gauza miragarriak gogoratu daiezan eta musikaren bidez ospatu daien. Salmogileak, neurriak hartu eta Jainkoaren aldarteaz ohartarazoten ditu: zigortzen bagaitu, eskarmentua emoteko da, bihotz-barritu gaitez, gurasoek seme-alabakaz egiten daben lez; serioa da, baina zuzendu behar dauanean bakarrik, une batez, gero ona da bizitza osorako. Azkenik, geroari begira, bere fededunak beti gogoan izateko eskatzen deustso salmogileak Jainkoari: entzun, erruki nitaz, izan zakidaz laguntzaile. Jainkoarengandik jasotako laguntza kontuan hartuta, beti eskerrak emongo deustazala agintzen deustso.

BIGARREN IRAKURGAIA *Ap 5, 11-14*
Lau izaki bizidunek «Amen» erantzun eben

Nik, Joane, ikuskarian, tronua, bizidun izakien eta zaharren inguruan egozan aingeru askoren ahotsa entzun neban; milaka eta milioika ziran, eta hots handiz inoen: «Hila izan dan Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasunak, jakituria eta indarra, ohorea, aintza eta gorespene hartzeko». Eta zeruan, lur gainean, lurpean eta itsasoan dagozan sorkari guztiei, hau esaten entzun neutsen: «Tronuan jesarrita dagoanari eta Bildotsari gorespene, ohorea, aintza eta agintaritze giza eta giza dietan». Lau izaki bizidunek «Amen» erantzun eben, eta zaharrek ahuspezu eta gurtu egin eben.

Apokalipsi liburuko kontaketa honetan kontalariak, idazlariak berak hitz egiten deusku. Bere burua aurkeztu eta honan deitzen dala dino: Ni, Joan. Ikusi eban agertokia, antzeman eban zalaparta eta inguruan entzun eban ahotsa aitatzen ditu. Lehenengo eta behin, jentetza, pila bat pertsonaia –aingeruak, bizidunak eta zaharrak-, agertzen dala da deigarriena. Sekulako protagonista-kopurua: milaka eta milioika, konta ezin ahala. Solemnitate handiko eremuan girotzen gaitu. Oraingo, gauza bakarra esaten da: egundoko jentetza hori tronu baten inguruan mobiduten dala. Hainbesteko jentetzak eta erdian dagoan tronuak ohiz kanpoko zerbitutarako prestatzen gaitu. Hain zuzen be, zalaparta hori ikuste eta entzute honen mezu nagusia iragarten dauan egundoko jentetzaren ahots indartsutik dator: «Hila izan dan Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasunak, jakituria eta indarra, ohorea, aintza eta gorespene hartzeko». Jesus Berbiztua da. Bera da Bildots otzana, heriotza jasateraino esana egiten dauana, besteen alde bizia emoteko prest dagoana. Hain zuzen be, horrexegaitik, erabat husteagaitik, bere

bizia emoteagaitik, bere Aita Jainkoak biztu egin dau. Bere aurrean, danak ahuspeztu egiten dira eta gurtu egiten dabe.

EBANJELIOA Jn 21, 1-19

«Zeugaz goaz geu be».

Aldi haretan, barriro agertu jaken Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honan jazo zan agerpena. Alkarrekin egozan Simon Pedro, Bikotxa eritxon Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste ikasle bi. Simon Pedrok esan eutsen: «Arrantzara noa». Erantzun eutsoen: «Zeugaz goaz geu be». Urten eta ontzira igon eben. Baina gau haretan ez eben ezer harrapatu. Eguna argitu ebanean, ur-ertzean agertu zan Jesus; baina ikasleak ez ziran konturatu Jesus zanik. Jesusek esan eutsen: «Mutilok, badaukazue jatekorik?» Hareek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskumaldera eta aurkituko dozue». Bota eben, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu ebenetz, ez ziran sarea ataratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite eban ikasle harek esan eutson Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zala entzunaz batera, soinekoa jantzi (erantzita eukan-eta) eta salto egin eban uretara. Beste ikasleak txalupan etorri ziran, sarea arrainakaz arrastaka ekarrela, ze, lehorretik gertu egozan, ehunen bat metrora. Lehorrera jatsi ziranean, su-txingarrak ikusi ebezan eta arrain bat gaineen, eta ogia. Jesusek esan eutsen: «Ekarri harrapatu barri dozuezan arrainetariko batzuk». Igon eban Simon Pedrok ontzira eta lehorrera atara eban sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz beteta. Eta, hainbeste izan arren, ez zan sarea urratu. Jesusek esan eutsen: «Zatoze armozua jatera». Ikasleetariko inor ez zan ausartzen nor zan itauntzen, baekien Jauna zana-eta. Orduan, Jesusek, hurreraturik, ogia hartu eta emon egin eutsen, baita arraina be. Hirugarren aldia izan zan hau, Jesus, hilenartetik biztu ostean, ikasleei agertu jakena. Armozua jan ostean, Jesusek esan eutson Pedrori: «Simon, Joanen semea, honeek baino maiteago nozu? Harek erantzun: Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana». Jesusek, orduan: «Larratu nire bildotsak». Bigarrenez itaundu eutson Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite nozu?» Harek erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudana». Jesusek, orduan: «Jagon egizuz nire ardiak». Hirugarrenez itaundu eutson Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite nozu benetan?» Pedro triste jarri zan maite ete eban hirugarrenez itaundu eutsalako, eta erantzun eutson: «Jauna, Zuk dana dakizu; Zuk badakizu maite zaitudana». Orduan, Jesusek esan eutson: «Larratu egizuz nire ardiak. Bene-benetan dinotsut: Gazteago zinanean, zeuk lotzen zenduan garrikoa eta gura zenduan lekura joaten zinan; zahartzaroan, ostera, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko deutsu garrikoa eta gurako ez dozun lekura eroango zaitu». Holan, Jainkoari zelako heriotzaz aintza emongo eutson adierazo eban Jesusek. Ondoren, esan eutson: «Jarraitu Niri».

Jesus barriro agertzen jake apostoluei Berbizkundearen ostean. Oraingoan, alderdiok nabarmentzen dira: apostolu edo ikasleak bizilagunak zirala; euren izenak; talde-lan profesionala arrantzale lez; Berbiztuaren presentzia eta laguntza; Jesusen atzetik jarraitzeko hautu nagusia; lekukotasuna eta misinoa. Agertokiak, Galileako itsasoa edo Genesaretoko lakua, esanahi sakona dau: mundu zabala da, gainditu egiten gaituan

mundua. Bertan, fededunen alkartea, txalupa makal, hauskorra da gizarteko olatuen erdian. Ikasleek, nahiz eta arrantzale profesionalak izan eta eginahalak egin, ez dabe ezer arrantzatzen. Adiera, argia da: gure joan-etorri guztiak ez dira nahiko gure helburu nagusia jadesteko: zorion betea lortu. Ezinbestekoa dogu Jesus Berbiztuaren laguntza. Orain bai, arrantza oparoa da Jaunaren laguntzari eta gure lankidetzari esker. Jesusek dino: “Ni mahatsondoa naz eta zuek aihenak”... “Ni barik ezi dozue ezer egin” (Jn 15, 5). Berbiztua eta sinistedunak. Geure burua Pedrorengan islatuta ikusi gura badogu, berarentzat lez, guretzat be Jaunak lehenengoa izan behar dau gure bizitzetan.

OTOITZA

Jainko gurea, Zeu izan zaitezala lehenengoa, gure bizitzaren eragilea, gure bizitzetan.
Jainko Aita, unibertsoa orekan sortu zenduana. Orekatuta eutsi deiogula.
Jesus Jauna, emoiguzu zure ogia. Elikatu gaizuz gure ahulezian, orain eta beti.
Jesus Jauna, zure hitz eta ogiak sendotu gaiezala zure atzetik jarraitu daigun.
Zure Espiritua, Jesus, lagun eta gidari izan daigula ebanjelioaren bizipenean.

PAZKO-ALDIKO 4. DOMEKEA

Jaunaren hitza zabalduz joian herrialde haretan guztian

2022 – maiatza - 8

JARRERAK

Abegia – Gaitzespena
Ebanjelizatzea
Jarraipena
Itxaropena
Gorespena

LEHENENGO IRAKURGAIA *Eg 13, 14. 43-52*

Jentilengana joko dogu

Egun hareetan, Paulo eta Bernabe Pergetik Pisidiako Antiokiara joan ziran. Eta zapatuan sinagogan sartu ziran eta han jesarri. Judegu askok eta Jainkoa gurtzen eben judegu barri askok Paulori eta Bernaberi jarraitu eutsien; honeek, euren hitzez, Jainkoaren graziari loturik irauteko adore emoten eutsien. Hurrengo zapatuan, ia herri osoa batu zan Jaunaren hitza entzuteko. Jentetza ha ikusirik, judeguak bekaitzez bete ziran eta irainka egiten eutsoen kontra Paulok esaten ebanari. Orduan, Paulok eta Bernabek ausartsu esan eben: «Zuei adierazo behar geuntsuen lehenengo Jainkoaren hitza; baina hitza baztertu eta zeuen buruak betiko bizitzarako gai ikusten ez dozezan ezker, jentilengana joko dogu. Hauxe agindu deusku-eta Jaunak: "Nazinoen argitzat ezarri zaitut, salbazinoa lurraren bazterrerraino eroan dagizun"».

Hau entzutean, jentilak poztu egin ziran eta Jaunaren hitza goratzen eben. Eta betiko bizitzarako ziranek sinistu egin eben. Jaunaren hitza zabalduz joian herrialde haretan guztian. Baina judeguk andra handiki jainkozale batzuk eta herriko jauntxuak berotu ebezan, Pauloren eta Bernaberen kontra erasoaldia sortu eben eta euren lurraldetik bota ebezan. Paulo eta Bernabe, protesta antzera euren oinetako hautsa hareen aurka astindu eta Ikoniora joan ziran. Ikasleak, barriz, pozez eta Espiritu Santuaz beterik gelditu ziran.

Paulo eta Bernabek Pisidiako Antiokian garatu eben jarduera apostolikoaren barri emoten deusku idazki honek, gitxi gora-behera, eredu ebanjelizatzailea, bisitatzen dabezan lekuetan (“joan ziran”) darabilena. Euren ez da egoneko jarduera, uriz uri dabilz, ibiltari dira. Sinagoga dauan urira heltzean, hara joan eta ospakizunean parte hartzen dabe. Hortxe aurkezten dabe Nazareteko Jesus Idazteunean iragarritako Mesias lez. Lehenengo zapatu baten euren burua ezagutzera emon eta egundoko ikusmina sortzen dabe hurrengo zapaturako. Paulo eta Bernabe apostoluek gai bera darabile predikuan. Juduen erantzuna. Batzuek Jesusengan sinisten dabe eta besteez, gehienek, ez. Azken honeek iskanbila eragiten dabe predikari biak jazarritz eta beste uri batera ihesi joan behar dabe lehenengo kristauek lagunduta. Beraz, alde batetik, judu gehienek Jesus gaitzetsi egiten dabe eta, bestetik, jentil askok Jesusengan sinisten dau. Hori bistakoa izanda, aldaketa gertatzen da apostolutzan, ildo ebanjelizatzailean. Juduen gaitzespenaren eraginez jentilengana jotzen dabe.

SALMOA 99, 1b-2. 3. 5
Ona da Jauna, haren maitasuna betikoa

Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari, zerbidu egizue Jauna pozaren pozez, sartu zaiteze oihu alaiz haren aurrera. Jakizue Jauna dala Jainkoa, harek egin gaitu, harenak gara, beraren herri eta beraren larreko artalde. «Ona da-eta Jauna, haren maitasuna betikoa, haren leialtasuna gizaldiz gizaldikoa».

Jainkoa Sortzaile eta Salbatzaile dala dino salmogileak eta danak Hari esker dirala eta danek Jauna autortu eta goratu egin behar dabela gogoratzen dau. Orain, pluralean hitz egitean: zerbidu egizue, sartu zaiteze, jakizue, bere Jaunaren esanetara pozik jarten dan – pozez, oihu alaiz- batzarrari hitz egiten deutso. Otoitza, tenpluan egiten da (sartu zaiteze), leku santuan non unibertso osoak durundi egiten dauan. Hor, ziurtatuta dago Yahveren presentzia batzarraren erdian. Hori euren Jainkoa dala gogoratzen jake, Sortzaile (egin gaitu) eta Salbatzaile (harenak gara). Testuinguru honetan, Jainkoaren herriko kide dirala konturatzen dira israeldarrak. Itun Zaharrean, hainbat bider errepikatzen da ituna berresten dauan esaldi nagusi lez: Ni zuren Jainko izango naz eta zuek nire herri izango zarie. Israel beti da irabazle Yahve bere alde badau, ona eta bihozbera da-eta. Jainkoa leiala da eta bere leialtasuna betikoa da. Jaunaren ezaugarri guztiak herriaren alde positiboak dira. Orain, kidetasun horri (bere herria eta bere artaldeko ardiak) erantzutea dagokio, itunean leial iraunez.

BIGARREN IRAKURGAIA Ap 7, 9. 14b-17
Jainkoak begietako negar-arpulu guztiak sikatuko deutsez

Nik, Joanez, gizatalde handi bat ikusi neban, inork ezin konta ahalakoa, nazino eta arraza, herri eta hizkuntza guztietako jentzez osotua, tronuaaren eta Bildotsaren aurrean zutunik, soineko zuriz jantzita eta palma-adarrak eskuetan. Zaharretako batek esan eustan: «Honeek larrialdi handitik datozenak dira. Bildotsaren odolean garbitu dabez euren soinekoak, eta zuritu. Horregaitik dagoz Jainkoaren tronu aurrean, gau eta egun hari gurtza emoten bere tenpluan, eta tronuan jesarrita dagoana eurekin biziko da. Ez dira gehiago gose, ez egarri izango, eta ez ditu eguzkiak, ez sargoriak joko, tronuaaren erdian dagoan Bildotsak janarituko ditualako eta ur biziko iturrietara eroango. Eta Jainkoak begietako negar-arpulu guztiak sikatuko deutsez».

Lehen lepo egindako bildots zan eta orain tronuan aintzaz beteta dagoan Jesukristoren nekaldi, heriotza eta biztueraren ostean, hona hemen itxaropenezko kantua. Bere inguruan, inongo bereizketa bako lekukoen ezin konta ahalako jentetza agertzen da. Lekuko honeek berbizkundearen garaipenaren lekukotasuna emoten dabe zuriz jantzita ta palma-adarrak eskuetan. Jazarri eta hil egin dabezan martiriak dira. Larrialdi handitik datoz, isuritako odolaz bustita eta soinean darioezan zuritutako jantziek Jesukristoren pazko-misterioa gogorazoten dabe, lekukook misterio horretan parte dirala erakustez batera. Zorioneko bizikidetzat da. Etorkizun itxaropentsua. Ez da txarkeriarik izango. Jainkoak merezi dauan gurtza jasoko dau beti eta beti, Jesukristo, bere tronutik, fededunekin biziko da, euren bizitzen osotasunari, eguen gizatasun osoari begira, hau da, salbazinoaren ur biziak jasoteari begira. Honan laburtzen dau San Paulok Korintoarrei zuzendutako lehenengo gutunean: “Inork ikusi eta entzun ez dauana, gizakiari inoiz bururatu ez jakona, Jainkoak bera maite dabenentzat prestaturik eukana” (1 Kor 2, 9).

EBANJELIOA Jn 10, 27-30
Nire ardiek entzuten dabe nire ahotsa

Aldi haretan, Jesusek esan eban: «Nire ardiek entzuten dabe nire ahotsa; Nik ezagutzen dodaz, hareek jarraitu egiten deuste, eta Nik betiko bizitza emoten deutset; ez dira betiko galduko, ez deustaz inork be eskutik kenduko. Hareek emon deustazan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork be kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Jesus parablez baliatzen zan Jainkoaren Erreinuaren mezuari buruz jarduteko. Eguneroko bizitzako irudiak dira eta, azkenean, ikasbidea, irakaspena eskaintzen da. Hemen, artzainaren eta bere ardien alegoriaren bitartez, Jesus eta bere jarraitzaileen arteko hartu-emonen hainbat ezaugarri aurkezten da. Ardiek irudikatzen dabezan fededunek Jesus artzainaren atzetik jarraitzen dabe. Hain zuzen be, fededunek arretaz entzuten dabe Jesusen ahotsa, bere atzetik jarraitzen dabe, eta Jesusek ezagutu egiten ditu eta osotasunean, bizitzeko aukera emoten deutse, iraunkortasuna eta segurtasuna eskainiz. Honek San Pauloren pasartea dakarsku gogora: “Nork aldenduko gaitu Kristok deuskun maitasunetik? Nahigabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak,

arriskuak, ezpatak?... Ze, ondo seguru dakit,... ez beste izakik, ez gaituana aldenduko Jainkoak Jesu Kristo gure Jaunagan agertu deuskun maitasunetik” (Erm 8, 35-39). Benetan, Jainkoa nagusi da mundu osoan, Jainkoa da lehenengoa, nire babeslea, nire bermea. Fededunentzat, Jainkoa dana da, artzaina, gertutik jarraitzen daben ardientzat, dana dan lez.

OTOITZA

Espiritua, Jainkoa aita lez ezagutzera deitzen gaituzuna, bizi gaitezala anai-arreba lez.
Jesus, artzain ona, izan zakiguz abegitsu, galdu ez gaitezana eta zure atzetik jarraitu daigun.

Jainkoa, garan legezkoak ezagutzen gaituzuna, on egin daigula eta txarkeria saihestu.
Jainko Aita gurea, hainbeste maite gaituzuna, holan maite daiguzala gainerako guztiak.
Jesus Jauna, asko eta asko dago oinazetan eta triste; euren ondoan egon gaitezala.

PAZKO-ALDIKO 5. DOMEKEA Sinismenean irauteko adore emonez 2022 – maiatza - 15

JARRERAK

Larrialdiak
Alkarteak
Zailtasunak
Apostolutza
Irekitasuna

LEHENENGO IRAKURGAIA *Eg 14, 21b-27* Jainkoak jentilei federako atea zelan edegi eutsen

Egun hareetan, Paulo eta Bernabe Listrara, Ikoniora eta Antiokiara bihurtu ziran. Bide batez, ikasleen bihotzak sendotzen ebezan, sinismenean irauteko adore emonez. «Larrialdi asko jasan behar dogu – esaten eutsien– Jainkoaren erreinuan sartzeko». Eleiz alkarte bakotxean arduradunak izentatu ebezan eta, otoitz eta barau egin ondoren, Jaunaren eskuetan itzi ebezan, harengana sinistu eben-eta. Pisidian zehar, Panfiliara heldu ziran eta, Pergen hitza iragarri ondoren, Ataliara jaitsi ziran. Han ontzia hartu eben Siriako Antiokiara joateko, handik bialdu ebezan-eta burutu barria eben egitekorako, Jainkoaren ardurapean jarri ondoren. Heldu ziranean, eleiz alkarte bat batu eben eta Jainkoak euren bidez egindako guztia azaldu eutsien, baita jentilei federako atea zelan edegi eutsien be.

Sinagogetan ebanjelizatzen urteak emon eta hainbat jazarpen hasan ondoren, Paulo eta

Bernabek kristau alkarteak sortu ebezan Jesusenganako federa bihurtutako juduakaz eta jentil ugarigaz. Ardura eta ahalegin apostolikoa goresgarria da. Pastoral joan-etorriak ez dau etenik. Uriz uri dabilz, bidaia nekagarrietan. Ondorioz, ezinezko dabe eurek sortutako alkarte guztietan egotea. Horregaitik, aldian behin bisitak egiten dabez, alkarte-kideei larrialdien erdian kristau fedean irauteko adore emonez. Larrialdiak be berezko dira Nazareteko Jesusen jarraitzaile izatean, Jainkoaren Erreinuaren predikuan. Gutun bidez be arduratzen dira alkarteen gorabeheretz, horreetan sortzen diran arazoen inguruan jardunez. Beste bide batzuk be hartzen dabez alkartei sendo irauten laguntzeko: eleiz gizonak izendatu, gero eta handiagoak ziran talde horreek antolatu, otoitzaldiak eta baraua egin. Guzti honetan, Jaunaren eskuetan jarten ziran. Eta, holan, judu eta jentil, kristau lez txertatzen ziran taldean.

SALMOA 144, 8-9. 10-11. 12-13ab

Ona da Jauna guztientzat

Errukiorra eta bihozbera da Jauna, hasarregatxa eta onginahiz betea. Ona da Jauna guztientzat, errukiz betea bere sorkari guztientzat. Goratu zagiezala, Jauna, zeure sorkari guztiek, bedeinkatu zeure fededunek; aitatu begie zure erregetza ospetsua, berba egin begie zure ahalmenaz. Gizakiei agertuz zure egite ahaltsuak, zure erregetza ospetsuaren bikaintasuna. Zure erregetza betiko erregetza, gizaldiz gizaldikoa zure nagusitza.

Itun Zaharraz izaten dan ikuspuntuaren aurka, hauxe da, gitxi gora-behera, Jainkoaren nortasunaren inguruan gehien errepikatzen dan esaldia: “Jauna bihozbera eta errukiorra da, hasarregatxa eta maitasunean aberatsa”. Egia da Jainko gogorraren ikuspuntua be agertzen dana, batez be Bibliako liburu historikoetan; Jainkoak bere herriaren alde jokatu ahala, irudi hori bilakatu egiten da eta, apurka-apurka, Jainkoaren zigorrak Israeli eta herriei euren pekatuengaitik eskarmentu emoteko zirala ulertu zan. Gurasoek seme eta alabei okerkeriak egiten dabezanean jarten deutsien zigorraren antzekoa da. Halanda be, Jainkoa guztiakaz ona eta maitekorra dala azpimarratzen eta bermatzen da gehien. Danak maite ditu, bereizketarik egin barik, baina makalenengandik, behartsuenengandik hasiz. Horregaitik, Jainkoari eskerrak emoteko eta bedeinkatzeko eskatzen deutse fededun guztiei. Eta horretarako arrazoiak aurkezten dabez: sortu dituan gauza miragarriak eta behin eta barriro eskaintzen deuskun laguntasuna. Jainkoak lagundu ezkerro, gauzak ondo doakiozala esperimentatzen dau Israelek. Horregaitik, Jaunaren aurrean ondo gelditzen eta nonahi iragarten ahalegintzen da.

BIGARREN IRAKURGAIA Ap 21, 1-5a

Hara, gauza guztiak barri egiten ditut

Nik, Joanek, zeru barria eta lur barria ikusi nituan, desagertuak ziran-eta lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta itsasorik be ez zan. Uri santua ikusi neban, Jerusalem barria, zerutik Jainkoagandik jaisten, andragaia bere senarrarentzat lez apaindua. Eta ahots handia entzun neban tronutik esaten: «Hona Jainkoaren bizilekua gizakien

artean; hareekin biziko da. Eurak izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dabe hareek beragaz. Begietako negar-arpuluak sikatuko deutsez, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua desagertua da-eta». Eta tronuan jesarrita egoanak esan eban: «Hara, gauza guztiak barri egiten ditut».

Apokalipsi liburuaren egile dan Joaneke esperientzia erlijiosoa bizi izan dau. Joaneke berak kontatu deuskun irudipena izan dau. Idazki hau liburuaren azkenean dago, horregaitik, historiaren geroaz dihardu, itxaropenez betetako agertokia, zerumuga pozgarria irekitzen dau. Gizakien bizitzaren behin betiko balantzea, positiboa da. Zer erakusten da irudipen honetan? “Lehenengo zerua eta lehenengo lurra” alde batera izten dabezan “zeru barria eta lur barria ikusi nituan”. Bitxia da “itxasorik be ez zan” hori. Palestinako kulturen, itsasoak, sarritan, txarkeria sinbolizatzen eban, gaititu egiten ebazan errealdade indartsua zalako. Lurreko Jerusalem, desleiala, alde batera izten eban Jerusalem barria, zeruko andragaia be agertzen zan. Mezua ekarren eta iragarten eban. Tronutik (zerutik) ahotsa iritsi zan. Jainkoa gizakien artean bizi dala eta biziko dala inoan. “Jainkoa eurakaz” hau izango da euren Jainko eta eurak bere herri. Barritasun honen bidez, Jainkoak aurreko esaldiko negatibo guztia desagerrarazoko dau: malkoak, heriotza, dolua, negarra, oinazea. Bere tronutik, «hara, gauza guztiak barri egiten ditut» dinoanak bermatzen dau guzti horren egitasuna.

EBANJELIOA Jn 13, 31-33a. 34-35

Maitatu dagizuela alkar, Nik maite izan zaituedan moduan

Judasek afaltokitik urten ebanean, esan eutsen Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak be bere aintzaz beteko dau ha, eta behingoan gainera. Semetxuok, honezkero ez nago luzarorako zuekin». Agindu barria emoten deusuet: maitatu dagizuela alkar. Nik maite izan zaituedan moduan, maitatu zeuek be alkar. Honetan ezagutuko dabe guztiek nire ikasle zariena: zuek alkar maite izatean».

Jainkoak gizadi osoarentzako salbazinozko egitasmoa dau. Danok zorion betea bizi daigula gura dau eta eskua luzatzen deusku familia handi bat osatzeko, bertan Bera ama-erraiak dituan Aita izango dogularik eta gu bere seme eta alaba, eta gure artean, anai eta arreba izango garalarik. Mezu hau iragarteko eta gauzatzeko, Jainko Aitak bere Semea bialtzen dau gure lur honetara, Nazareteko Jesusengan gizon eginda. Gure historian bizi izan zan, kurutzean josita hil eben, baina biztu egin zan, hau da, Jesukristo bizirik da. Bere eginkizuna bikaintasunez bete eban, zeruetako Aitaren esana eginez. Aita zein Semea garaile eta aintzaz beteta atera ziran maitasunezko mobimentu honetan. Helburua beteta. Orain, maitasunezko egitasmo horretan konprometitzea dagokigu. Jesusek agur esaten deutse bere adiskideei, hilzorian dan aittittek itxarote nasaiaz agur esan leiken lez. Badaki dan aitziko dauana. Baina, kontzientzia nasai dau egiteko guztiak egin ditualako, gizartea zerbitzatu dau alako, Jesus maite izan gaituan lez maitatu ditualako besteak eta, bere fedetik, Jainkoaren eskuetan izten dau bere burua. Kristau nortasunaren ezaugarri: Maitatu egizue alkar.

OTOITZA

Nazareteko Jesus, lagundu eiguzu Zuk maite izan gaituzun lez besteak maitatzen.

Ama-erraiak dozuzan Jainko Aita gurea, zure seme-alaba lez bizi gaitezala.

Espiritu Santua, bota zure arnasa gure gainera, gogotsu eta pozik bizi gaitezan.

Jainko gure Jauna, Jesus zure Seme maitea berbiztu zenduana, berbiztu gaizuz.

Hirutasun Santua, alkar maitatuz bizi zariena, bardin bizi gaitezala geu be.

PAZKO-ALDIKO 6. DOMEKEA

**Espiritu Santuak eta guk erabagi dogu zuei kargarik ez ezartzea,
behar-beharrezko diranak izan ezik**

2022 – maiatza - 22

JARRERAK

Jasankortasuna

Salbazinoa

Alkarrizketa

Espiritua

Aintza

LEHENENGO IRAKURGAIA *Eg 15, 1-2. 22-29*

Erabagi dogu, aho batez

Egun hareetan, Judeatik Antiokiara jaitsi ziran batzuk irakaspen hau emoten hasi ziran hango senideei: «Moisesengandiko usadioaren arabera erdaintzen ez bazarie, ezin zaitekeze salbatu». Hori zala-eta, iskanbila sortu zan eta Paulok eta Bernabek eztabaida gogorra izan eben hareekin. Orduan, Paulok, Bernabek eta beste batzuk Jerusalemera igon egiela erabagi eben, apostoluekin eta arduradunekin auzi hori argitzera. Apostoluek eta arduradunek, eleiz alkarte osoagaz batera, euren arteko batzuk aukeratu eta Paulo eta Bernabegaz Antiokiara bialtzea erabagi eben. Barsaba deituriko Judas eta Silas aukeratu ebezan, senideen artean begirune handiko gizonak biak, eta gutun hau emon eutsien eroateko: «Anaia apostoluek eta arduradunek Antiokia, Siria eta Ziliziako jentil-herrietako senideoi, agur! Jakin dogu gure arteko batzuek, guk agindu barik, euren hitzez kezkatu eta nahastu zaitueela. Horregaitik, ordezkari batzuk aukeratzea erabagi dogu aho batez eta zuengana bialtzea, Bernabe eta Paulo geure senide maiteekin, euren burua Jesu Kristo gure Jaunaren zerbitzuan emon daben horreekin. Hor bialtzen deusueguz, bada, Judas eta Silas, hau bera ahoz jakinarazo deizueen. Espiritu Santuak eta guk erabagi dogu zuei kargarik ez ezartzea, behar-beharrezko diran honeek izan ezik: ez dagizuela jan sasijainkoei eskeinitako

haragirik, ez odolik, ez odolustu bako abererik, eta itzi dagizuezala legearen kontrako haragi-hartuemonak. Ondo egingo dozue holakoetatik alde egiten badozue. Izan ondo».

Idazki hau esanguratsua da Apostoluen Eginak liburuan. Salbazinoaz dihardu, hau da, bizitzan asmatzeko eraz, zoriontasun betea lortzeko eraz, gizatasunez janzteko eraz, osotasunean bizitzeko eraz. Hasierako kristau alkarteetan, ika-mika eta eztabaidak sortu ziran. Batzuen asmoa –hebrear kulturakoena-, Moisesen legearen arauen betetearen bidez salbatzea da. Beste batzuen ustez –kultura grekotik etozanen ustez-nahikoa zan Jesukristorengan sinistea. Eta, nola konpontzen dabe auzia? Liskar bizia, eztabaida sutua bizten dauan adeitasunezko ika-mika aske eta irekiaren bidez. Jarrera hori Espiritu Santuaren bizileku dan eta, aldi berean, gizakiez osatuta, pekatari dan Eleiza santuaren berariazko jarrera da. Azkenean, alde bakotzak zerbaiten amore emonda, aho batez erabakitzen da. Hebrear joerakoek Moisesen legeak beteten jarraitu leikie, baina salbazinoa bakarrik Jesukristorengan sinistea dakarrela onartuta. Gaur egun, hasierako kristauengandik ikasi daikiguz gure arazoak konpontzeko jarraibideak: auzitan dagozan alde guztiak batu eta alkarrizketan jardun. Guzti hori San Agustinen esaldian laburbildu daiteke: “In necessariis, unitas; in dubiis, libertas; in omnibus, caritas”. Behar-beharrezkoan, batasuna; eztabaidagarrian, askatasuna; guztian, maitasuna.

SALMOA *Sal 66, 2-3. 5. 6 eta 8*

Zuzentasunez gobernatzen dozuz herriak

Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinkatu gagizala, agertu deigula aurpegi argia, ezagutu dagien munduan zure bidea, nazino guztietan Zugandiko salbazinoa. Poztu beitez kantari nazinoak, zuzentasunez dozuz-eta gobernatzen herriak eta gidatzen munduan nazinoak. Ene Jainko, aitatu zagiezala herriek, aitatu zagiezala herri guztiek. Bedeinkatu gagizala Jainkoak, izan deiola begirune mundu osoak.

Salmo honek unibertsoaren errealidadearen askotariko elementuen –Jainkoa, gizadia eta mundua- arteko hainbat lotura agertzen deusku. Kreazinoaren oreka gogoratzen deusku aurreko anabasa, hustasun eta amildegiaaren aurrean. Jainkoak joan-etorriko ordenari eutsiz, eragin-trukean sortu eban: Jainkoak gizakiak sortzen ditu bere antz eta irudiko eta honeek, aldi berean, hori autortu egiten dabe Jainkoa goratuz. Kreatzailea da Unibertsoaren eta Historiaren euslea. Hain zuzen be, Berak gobernatzen dau mundua zuzentasunez, zuzentasunez gobernatzen ditu herriak eta herrialdeak zaintzen. Jainkoak bere nagusitasunari eusten deutso sortutako guztiaren (zeru eta lur, goi eta behe) gainean, eta gizadi osoaren (herri, herrialde, mugalde, lur) gainean. Eta guzti hori, gizakien zein mundu osoaren mesedetan. Horregaitik, gizadi osoari dei egiten jako Jainkoa goratu eta, aldi berean, Jainkoaren bedeinkazino eta salbazinoa eskatu daian. Holan, Jainkoa aintzakotzat hartuko dogu eta sarri ibiliko gara guregan argia, poza eta abestiak sorrarazoko dabezan Jaunaren bideetan. Jainkoak deuskun maitasunaren aurrean adierazoten dogun esker ona da. Jainkoak maite gaitu eta guk Jainkoari eskerrak emoten deusguz, goratuz, bere bideetatik joanez. Alde bakotxa (Jainkoa, gizakiak eta unibertsoa, ordena horretan) alkarri lotuta dago era harmonikoan.

BIGARREN IRAKURGAIA Ap 21, 10-14. 22-23

Jainkoaren aintzak argitu bei uria

Ni, Joan, hartu ninduan aingeruak eta mendi handi eta garai batera eroan ninduan espirituz; Jerusalem uri santua erakutsi eustan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zan, jaspe harria baizen gardena. Harresi sendo eta garaia eban, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate sortaldera egozan, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru sartaldera. Uriko harresiak hamabi oinarri eukazan, eta honeetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak. Ez neban ezelako tenplurik ikusi, izan be Jauna Jainko ahalguztiduna eta Bildotsa dira-eta hango tenplu. Uriak ez dau behar argituko dauan eguzkirik nahiz ilargirik, Jainkoaren aintzak dau-eta argitzen, eta Bildotsa dau argiontzi.

Ikuskari espiritualezko agertoki zoragarrian, hizkuntza poetikoaz eta hotsandiko keinuez baliatuz, Joan Ebanjelariak, aingeruak inspiratuta, testuinguru arranditsu, harrigarri eta txundigarria agertzen deusku Jainkoak agindu deuskun etorkizun itxaropentsua deskribatzeko. Zeruak eta lurak alkar ikutzen dabe. Esparru honetan, sortutakoaren onenak bere osotasuna jadetsiko dau. Jerusalemek zeruko bisita jasoten dau bere aintzagaz. Jainkoa da dekorazino honetako protagonista. Urian argi egiten dauan argia, argiontzi distiratsu lez argitsu agertzen dan argitasuna. Sortutako guztia eder izanda be, goitik datorren bisitak edertuta egonda be, bitarteko aldia da, ez behin betikoa. Egoeraren araberako guztia, aurrekoa, santutegia, eguzkia eta ilargia barru, gainditutakoan iritsiko da behin betiko aldia. Harribitxiek apaintzen dabe uria. Alde guztietatik hedatzen dan ugaritasuna eta oparotasuna lau puntu kardinalek, uri handirako sarbidea emoten daben hamabi ateen adierazoten dabez. Ate bakotxean aingeru bat egoan, eta aingeru bakotxak Israelgo hamabi tribuen arteko izen bat eta hamabi apostoluen arteko izen bat jasoten eban idazkia eban eskuetan. Hebrear kulturari, hiru, lau eta hamabi zenbakiak zenbaki “biribilak” dira. Osotasuna, oparotasuna, betetasuna, asetasuna adierazoten dabe. Hau da, Jaunak historiaren amaieran bere fededun guztientzat prestatuta daukan guztia aitatzen dabe. “Inork ikusi eta entzun ez dauana, gizakiari inoiz bururatu ez jakona, Jainkoak bera maite dabenentzat prestatuturik daukana” (1 Kor 2, 9).

EBANJELIOA Jn 14, 23-29

Bakea izten deusuet, neure bakea emoten

Aldi haretan, Jesusek esan eutsen ikasleei: «Ni maite nauanak gordeko dau nire berbea; nire Aitak maiteko dau, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dogu bizilekua. Ni maite ez nauanak, oster, ez ditu gordetzen nire berbak. Eta entzuten dozen berbea ez da nirea, bialdu nauan Aitarena baino.

Zuekin nazan artean esan deusuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bialduko deusue nire izenean; harek irakatsiko deusue dana eta gogora ekarriko Nik

esan deitsuedan guztia». «Bakea izten deitsuet, neure bakea emoten; Nik emoten deitsuedan bakea ez da munduarena lakoa. Ez kezkatu, ez bildurrik izan. Entzun dozue esan deitsuedana: “Banoa, baina bihurtuko naz zuokana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zintzakeze Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa da-eta. Orain esan deitsuet, gertatu baino lehen, gertatu dadinean sinistu dagizuen.

Joanen ebanjelioa ez da edozelakoa. Jainkoaren eta gure arteko hartu-emonak lagunarteko lez jarten ditu, ausardiaz. Hirutasunaren bizitzan partaide izatera deituak gara. Hain zuzen be, hemen agertzen dira, etxe eta familia giroan, Hirutasuneko hiru pertsonak. Jesusek Jainkoa, bere Aita, aurkezten dau, Espiritu Santua bialduko dauala aginduz. Alkarrekikotasuna ikusi daiteke: Jainkoa ongile lez hurreratzen jaku eta guk eskertuz erantzuten dogu. Jainkoaren maitasunak eraginda, geure hitza emoten dogu maitasun horrek eskatzen dauanaren arabera jokatzeko eta, ondorioz, familia gertutasuna eta bizikidetasuna datoz. Eragin-trukea da, sakona, katean, txaandaka. Jainkoari gure bizitzetan harrera egiteak bildurak gainditzen eta zalantzak argitzen laguntzen deusku. “Ez daitela gure bihotza larritu”. Laburbilduz, gure jainko-giza bizikidetasunak **BAKEA** hitzak esan gura dauana eragiten dau guregan. Bakea hitz hau lau zutabetan finkatzen da: zuzentasuna (bakotxak duintasunez bizitzeko behar dauana izan daiala), egia (benetakotasuna, askatasuna bizi), askatasuna (besteak errespetatu eta norbera errespetuz hartzea eragin) eta maitasuna (emon, daukaguna eta norbere burua). Holan lortuko dogu zoriontasun gorena.

OTOITZA

Jesus, gure adiskidea, on eginez bizi izan zinana; lagundu eiguzu bardin jokatzten.
Jauna, unibertsoaren Jainkoa, dana geure menpe balego lez jardun daigula.
Aita gurea, danok zaintzen gaituzuna, kontuan hartu zaiguzala beti.
Espiritu Santua, adore emoten deuskuzuna, emon indarrak osotasunean bizitzeko.
Zeru eta lurreko Jauna, otoitz egin daigula dana zeure menpe balego lez.

JAUAREN IGOKUNDEA
Jesus bera etorriko da barriro
2022 – maiatza - 29

JARRERAK

Dagoeneko / oraindik ez
Lekukotasuna
Jesus bizirik
Historia
Parusia

LEHENENGO IRAKURGAIA Eg 1,1-11

Nire lekuko izango zarie

Tofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jaso izan zan egunera arte Jesusek egin eta irakatsi eban guztia idatzi neban. Zerura igon aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak emon eutsezan berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu jaken bere nekaldiaren ostean eta bizirik egoaneko proba asko emon eutsen, berrogei egunez bere burua ikustera emonez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez. Hareekin bazkaltzen egoan baten, hau agindu eutsen: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zagoze han Nik Aitareen partetik egin deusuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bateatu eban; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarie bateatuak egun gitxi barru». Orduan, baturik egozanek itaundu eutsoen: «Jauna, orain ezarriko dozu barriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun eutsen: «Aitak bakarrik dau hori erabagitzeko ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan jazoko dan jakitea. Baina zuen gain jaitsiko dan Espiritu Santuaren indarra hartuko dozue, eta nire lekuko izango zarie Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino». Hori esanik, gorantz igon eban Jesusek hareen begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu eutsen arte. Oraindino zerura zelan joian begira-begira egozala, zuriz jantzitako gizaseme bi azaldu jakezan ondoan, eta esan eutsien: «Galilearrok, zertan zagoze hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igon dauan Jesus hori, zerura joaten ikusi dozuen lez etorriko da barriro».

Lukas ebanjelariak bi liburukitan jaso eban bere lana: ebanjelioa eta Apostoluen Eginak liburua. Honako idazki hau, bigarren liburukiaren hasiera da eta lehenengo liburukia be aitatzen dau. Laburpen baten antzekoa da eta hasieratik zerura igo aurretik Jesusek esan eta egin ebazanak, bere hitzak eta ekintzak batzen dirala esaten jaku. Horrezaz gainera, apostoluei zuzendutako bidezko jarraibideak be jasoten dira. Honeek Espirituaren indarra jaso eben goitik euren jarduera ebanjelizatzaileako. Laburpenak, lehenengo liburukiaren edukirik garrantzitsuena agertu deusku, gauza guztiz barria gertatuko dala esateaz batera: orain ebanjelariak nekaldiaren osteko Berbizituaren agerraldiak kontatuko deuskuz. Holan, behar beste denpora hartuz, Jesusek bizirik dagoala aditzera emoten dau. Jainkoaren Erreinuaren gaia agertzen da agerraldi guztietan. Mendekoste, Espirituaren indarra, jarduera ebanjelizatzailearen abiapuntu da. Espirituaren laguntzagaz, lekukotasuna emoteko, ekintzara joteko ordua da.

SALMOA 46, 2-3. 6-7. 8-9

Kanta Jainkoari, kanta

Herri guztiok, jo egizue txalo, egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari, izugarria da-eta Jauna, Goi-goikoa, mundu osoaren errege handia. Irrintzi artean igon dau Jainkoak, turuta-soinuz Jaunak. Kanta Jainkoari, kanta, kanta gure erregeari, kanta. Jainkoa da mundu osoaren errege, kanta trebetasunez hari. Jainkoa nazinoen errege da, Jainkoa bere tronuan dago jesarrita.

Salmogileak dei egiten deutse herri guzti-guztiei Jainkoaren aurrean euren poza erakutsi daien txalo eta irrintziz. Adierazpen zaratatsu honek Jainkoa goratu egiten dau eta mundu osoan egindakoa eskertu. Musikaz jantzitako erantzuna da, kreazinoan Kreatzailearen handitasuna autortzeko. Musika-erako hainbat erantzunen bidez goratzen da Jainkoa: txaloak, oihuak, irrintziak, maisutasunez. Holan, Yahveren, bere Jainkoaren doain bikainak, ezaugarri miresgarriak, agertzerak emoten ditu: Jauna, Goi-goikoa, Enperadorea, Erregea,... Bere muga bako nagusitasuna mugagabea da. Bere nagusitasunak ez dau mugarik: herri guztietan, lur osoan hedatzen da, mundu osoaren errege da, nazinoen errege. Dei hau aginte erako aditzez gauzatzen da: jo egizue txalo, egin pozez oihu eta irrintzi, kanta Jainkoari. Izugarria dala esaten danean, testuinguru honetan, gainditu egiten gaituala, guk ezin dogula barne hartu, transzendentea dala esan gura dau. Eta Jainkoak gainditzea, positiboa da, geure onerako da. Ezelan ez, gu bildurtzeko, gu kikiltzeko edo nahastatzeko.

BIGARREN IRAKURGAIA *Ef 1, 17-23* **Dana jarri dau Jainkoak Kristoren oinazpian**

Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, emon deizuela Espirituaren jakituria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argitu dagizala zuen barruko begiak, jakin dagizuen zer itxarotera dei egin deutsuen, zein aberatsa dan fededunentzat oinordekotzan prestatuta dauan aintza eta zein handia dan sinisten dogunon alde erabiltzen dauan ahalmena. Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi eban Jainkoak, berau hilen artetik biztu eta zeruan bere eskumaldean jesarriazo ebanean. Jainkoak aginte, ahalmen, indar eta nagusitza guztien gainetik ezarri dau Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan be aitatu leitekezan izen guztien gainetik. Dana jarri dau Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri dau danen gainetik Eleizearen buru. Haren gorputza da Eleizea, unibertsoa guztiz betetzen dauan Kristok betea.

Efesoarrei idatzitako gutunaren txatal honen aurretik Jainkoaren salbazinozko egitasmoa aurkezten dauan salmo edo otoitz antzeko bat agertzen da. Egitasmo honek esker on beroa jasoten dau Paulorengandik fededunen aldetik; honeei, Jainkoaren egintza miragarriak esker onez autortzeko eskatzen jake. Zer eskatzen jako zeruko Aita honi Efesoko kristauen alde? Jakituria gizadiaren aldeko jainkozko borondatea dastatzeko eta gozatzeko. Adimena, gu guztiz zoriontsu egiteko dauan nahiaz jabetzeko. Jesukristo berbiztuaren argiak argitu daiala bere Jainko Aitaren aintza. Bere agintzariaren beteteak zabalik itxi daiala guk, orain eta gero, zoriontasun betea jadesteko itxaropena. Jainkoak kurutzean hildakoa berbiztean erakutsitako handitasun eta ahalmenaz jabetu. Kristoren bitartekariaren bitartez iristen dan Jainko Aitaren ondarea geure egin. Guzti honen abiapuntu eta erreferentzia, Pazko-misterioa da, Jesukristoren heriotza eta berbizkundea. Jainkozko ahalmen horren partaide egiten dau fededunen Eleiza.

EBANJELIOA Lk 24, 46-53
Nire Aitak agindutako dohaia bialduko deusuet Nik

Aldi haretan, Jesusek esan eutsen ikasleei: «Liburu Santuan idatzita egoan, Mesiasak sufridu egin behar ebala eta hirugarren egunean hilen artetik biztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-barritzea iragarri behar jakela haren izenean herri guztiei, pekatuak parkatu dakiezan. Zeuok zarie gauza honeen testigu». Nire Aitak agindutako dohaia, Espiritu Santua, bialduko deusuet Nik. Zuek zagoze urian, Jainkoagandiko indarrez jantzi zaitezten arte». Gero, Betania aldera atara zituan Jesusek ikasleak eta, eskuak jasorik, bedeinkatu egin zituan. Bedeinkatzen zituan bitartean, aldendu egin zan eurekaandik, eta zerura eroan eben. Hareek, Jesus ahuspez gurtu ondoren, Jerusalemera bihurtu ziran pozez beterik. Eta eten barik tenpluan egoten ziran Jainkoa goratzen.

Ebanjelioko pasarte honetan lagunarteko, etxeko giroa somatzen da: Jesus bere ikasleakaz dago. Agur-kutsua dau, Kristo Berbiztuaren bizi-testamentua, testamentu espiritualak emoten dau. Lehenengo eta behin, Idazteuna aitatzten da, hain zuzen be, Itun Zaharra, non Mesiasen, Kristoren, Gantzutuaren heriotza eta berbizkundea iragarten dan. Datu hau nahiko esanguratsua da, aurreikusitako zerbait lez agertzen dalako, hau da, Jainkoaren egitasmoaren barruan sartzen zala iradokitzen da. Hain zuzen be Nazareteko Jesusengan haragitutako Mesias horren izenean hots egingo da pekatuen parkamenerako bihotz-barritzea. Eragina mundu osorako da, herri guztientzat, gizadi osoarentzat, baina, hori bai, Jerusalemetik hasita. Orain, Jesusek lekuko lez izendatzen ditu bere ikasleak. Maisuaren bizitza, heriotza eta biztueraren esperientzia bizi izan dabela esan gura dau horrek eta guzti horren barri emotera bialduak dirala leku guztietara. Hirutasuna agertzen da erreferentzia-puntu lez: Aitak Semea bialdu eban eta honek, aldi berean, bere Espiritua bialtzen deusku lagundu deigun. Mendekoste aldian, Espirituaren etorrera ospatzen da.

OTOITZA

Nazareteko Jesus, lagundu seme-alaba guztiei zu eredutzat hartu eta gurasoen esana egiten.

Ama-erraiak dozuzan Jainko Aita, senar-emazteek alkar ulertu daiela.

Hirutasun Santua, familietan senidetasunean bizi daitezala.

Jainko Aita, Semea eta Espiritua, belaunaldi desbardinetaoak bizilagun on izan daitezala.

Aita Jainkoa, pertsona nagusiek senide eta lagunen maitasun eta zaintza jaso daiela.

SARRERA

Prestatu daigun geure burua kurutzatuagaz ibilbidea egiteko. Kurutze-bidea ez da gure egitarauetan agertzen. Gure agendan, informazinoaren autopistak, GPSak kalkulaturako ibilbideak..., agertzen dira, dana ondo lotuta. Kurutze-bidea, egia esan, kale itsua da: idazkunik ez sarreran, baina hilobia azkenean, bista-bista, zuzenean amildegian, haragi bizitan leku arriskutsuan... Hauxe da tapoia gure hazkunde mugagaberako.

Kurutze-bidea, halanda be, paraliturgiaren egutegiaren zatia da, esan leikezu, baina oraindik gure usadio elizkoiaren barruko plangintzaren atal da. Baina liturgia egutegiak, eta beragaz batera datorren guztiak, programagarri ez dan guztia gogoratzen deusku. Gertaera menderaezinen oroimena da, eta beraz, kalkulutik kanpo dagoan bizitzaren itzulera. Usadio elizkoiari dagokionez, jakina, sarritan ongizaterako sukaldaritza-liburuen antza dau. Benetan elizkoi, jainkotiar dira eta Jainkoari deiadar egiten deutsan Jainkoa aurkezten deuskue: “Zergaitik itzi nozu?” (Mt 27, 46; Mk 15, 34).

Baina ezagutzen dugu istorio hau, badakigu ondo amaitzen dana, zauri guzti honeek ez dabela ezertarako balio, Jaunaren berbizkundeagaz amaitzen dalako... Oker. Berbizkundeak ez dau kurutze-bidea ezabatzen: osatu egiten dau, larriagotu. Jesusek betikotasun guztian daroaz aldean zauriak. Gainera, bere aurpegiaren bereizgarri nagusi bihurtzen dira bere ikasleentzat: “Begiratu nire eskuak eta oinak, Neu naz benetan!” (24, 39). Orduan, zigortua ez zala gaizkilea edo biktima errugabe hutsa ikusarazoten deusku Berbiztuarenganako fedea: Jainkoaren Semea zan eta horrek askoz be izugarriago bihurtzen dau hilketa. Kontrastean, bere argiagaitik, zelanbait, Berbizkundeak kurutzearen iluntasunak agertzera emoten ditu.

Eta azkenik, zer da Kristok daroan kurutze hau? Gure pekatuena eta gure salbazinoarena, geure, zeure, neure historiarena. Zu neure anai-arreba zara, Abel eta Kain lez; zu nire hurkoa zara, emakume adulteriogilea edo Jerusalemetik Jerikorako bidean saiheitsak kolpez josita eskeko baten antzera doan arrotza lez. Honan ikusi ezkerro, ez gara ikusle huts izango. Urtero, hemen, kanpoko barritasuna ez ezik barruko barrikuntza aurkitzea proposatzen deusuet. Kurutze-bidea, negu abisala naturaz gaindiko udabarrirako, hebrearren bidea itsas zabalean, biziaren zuhaitz bihurtuko dan urkamendia... Eta sinistu daigun hau: Hara, zerbait barria egitera noa: hasia da sortzen, ez deusazue antzematen? Bidea irekiko dot basamortuan, ibaiak sorraraziko landa lehorrean (Is 43, 19).

JESUS GETSEMANIN

Eta aurreratxuago joanik, lurrean jausita, otoizka ebilkion Jainkoari, urrundu eiola ha ordua, ahal bazan. Holan inoan: «Abba! Aita!, Zuk guztia ahal dozu; urrundu egizu Nigandik edari mingots hau. Baina ez bedi egin Nik gura dodana, Zeuk gura dozuna baino».

Markos 14, 35-36

Kurutze-bide honetan geure burua ezeztatu barik sartzen bagara, lehen egonaldi honetara altxatu barik heltzen bagara, oraindik lo gagozalako da, Jesusegaz esna ez gagozalako. Bere burua ezeztatu egiten daualako, hasarratu egiten dalako, aurka dagoala onartu egiten daualako. Olibondoen ortuan sartzeaz batera, jausi egin zan. Edari mingots hau Berarengandik urruntzeko arren eskatzen dau. Eta ez dau ezertarako balio, ez, ez dau balio. Edari mingots hau ez da Berarengandik urruntzen. Bere ezpanak bortxatuko ditu ozpinik desatsegina balitz lez. Hondarreraino edango dau.

Beraz, eragingabea, alperrekoa ete da Kristoren otoitza? Otoitzak badau eraginik, eraginik sendoena. Halanda be, ez da teknikarena. Ez da funtzionamenduzko eraginkortasuna, eskaintzazkoa baino. Ez da emaitzazko eraginkortasuna, bategitezkoa baino: “Ez da nik gura dodana, zeuk... baino”. Otoitz-eskaria, batez be, dagoeneko ezin dauanaren, oraindik ahal dauanaren, eskaria da, baita ezinezkoa be. Orduan, jadestea ez ezik, nire ustez, norbere burua zuri emotea da kontua. Dalako jomuga batera iristea ez ezik, nork bere burua norbaiti zabaltzea da, Aita sortzaile eta salbatzaileagaz bat egitea eta, bere bitartez, zauritutako izaki guztiakaz bat egitea.

Horra hor azken hatsa, otoitzaren borroka, maitasunaren borroka: norbere ikuspuntuei uko egin, ez “askatzea”, Jainko biziari harrapatzen iztea baino, nahiz eta hori itzela izan, ikaragarria izan Jainko biziaren eskuetan jaustea (ik. Hb 10, 31), ikaragarria eta bedeinkatua.

Jesus Jauna, ez dakigu: erakutsi eiguzu otoitz egiten. Zeuk Getsemanin egin zenduan lez, bildur barik eskatu eta oihukatu daigula ez dogula kurutzerik nahi; baina beti, gure erosotasuna gorabehera, nahiago dogu zuregazko alkartasuna.

JUDASEK JESUS SALTZEN DAU

Oraindino berbetan ziharduala, gizataldea agertu zan; Hamabietariko bat, Judas eritxona, etorren euren buru, eta Jesusengana hurreratu zan mosua emotera. Jesusen esan eutson: «Judas, mosu bategaz saltzen dozu Gizonaren semea?»

Lukas 22, 47-48

Ezin dugu saldukerian pentsatu. Ezin dugu onartu bete-betea atxikitzen dena bortizki askatu daitekenik. Hatzen azpian, aingirak, aurpegi biko izakiak egongo ziran, antza, esaten deutsagu geure buruari. Saltzailea txarra izango zan hasieratik, amaren tititik hartutako esneagaz batera iruntziko eban gorrotoa. Baina, hori balitz kasua, benetan ez litzateke saltzailea izango. Adulteriogile izateko, lehenengo senar-emazte izan behar dozu. Bihotzean sastakaia sartzeko, lehenengo lagun min, kutun izan behar dozu. Saltzaile izateko, lehenengo adiskide izan beharra dago, Jesusi musu emoteko ohitura dauana, eta baita ahoan musu emoten deutsana be, Kantikako emaztegaiak lez, bere gorputzaganako alkartasuna bere eskutik jasoten dauana... Hauxe da, gainera, Jesusek Judasi jarritako izena: “Adiskide”, dinotso azkenera arte (Mt 26, 50).

Bakarrik aldekoak, jarraitzaileak izan daitezke saltzaile, eta gu, jarraitzaile gara, ezta? Eta gitxienez apostoluaren duintasuna jadetsiko bagendu, Judas bezala egongo gintzateke, jarrerarik onenean saldukeria lotsagarriko. Altxatuta, ondo hezita, goitik behera jausteko.

Hortik irudi hau, bere laurdena desbideratuta dagoana, honezkero begirada itsua dauana, eta gainerako begiagaz distira egiten dauana, aldi berean kontzientzia asaldatuta eta bere buruaren jabe egin izanaren atsegina makurragaz, ezpanak estututa, bere buruaren jake. Gure begiak, hain zuzen be argitsu eta barruko iruditu leike eta bere distira, bakarrik diruarena, bere barrentasuna, harrokeriarena.

Jesus Jauna, bigarren egonaldi honetan, zu besarkatzera nator; zehatz-mehatz, zu saltzeko jarreran gagozala antzeman dogu; ez eiguzu itzi anai-arreba, emazte, aita edo semearengana saldukeriaz hurreratzen; atara gagizuz gure leialtasun modukoetatik.

SANEDRINAK JESUS ZIGORTZEN DAU

Baina Jesus isilik egoan eta ez eban ezer erantzuten. Abade nagusiak barriro itaundu eutson: «Zu zara Mesias, Jainko bedeinkatuaren Semea?» Jesusek erantzun: «Bai, Neu naz, eta Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskoian jesarrita eta zeruko hodei artean etortzen ikusiko dozue.» Abade nagusiak bere soinekoak urratu zituan, esanez: «Ba ete dogu lekukoen beharrianik? Zeuek entzun dozue biraoa. Zer deritxozue?» Guztiek heriotza merezidu ebala erabagi eben.

Markos 14, 61-64

Bere etorrera hots egiten eben abadeek Jesusen aurka egiten dabe. Jainkoa biraolaritzat hartuta zigortu egiten dabe. Baina eleiz gizonak biraolaritzat jotzen daben ha Jainkoa bada, ez geunskio geure buruari galdetu behar, oster, gure gorespenak ez ote diran ahoberokeria eta gure justiziak harrokeria?

Bidegabekeria ez dator-eta zuzentasun ororen gaitzespenetik. Geure burua jagoletzat aurkezteko presatik dator. Jokalekuak eraikitzeke gure zaletasunetik. Soinekoak urratzea nahikoa dauan gure hasarre moztortutik. Ongia eta gaizkiaren ezagutza garrantzetik (Has 2, 17), hau da lehenengo pekatariak bere burua errugabetzeko eta emakumea salatzeke –nahiz eta bere ardurapean egondarabilen ezagutza: “Ez naz ni, laguntzat emon deustazun emakumea da...”.

Gainera, Deikundeak ezin dau batez be salaketa izan. Jesus ez dator mundua epaitzera, salbatzera baino (Jn 12, 47). Eta horrek ez epaitzea ez dala nahiko esan gura dau: besteek norbera epaitzea onartu egin behar da, bidegabe kondenatu, txarto dagoala, edozein giza auzitegiren makaltasuna (baita berea be) erakutsiz, eta danek Aitaren zuzentasunera itzultzeke aukera izan daien.

Jesus Jauna, arren eskatzen deusugu lagundu deiguzula itxura hutseko kristau, soinekoak eta ez bihotzak urratzen dabezan (ik. J1 2, 13) kristau izateari izteko. Zure beste Kristoak izanda, gure zuzentasuna ez ezik zurea bilatu daigun beti.

PEDROK JESUS UKATZEN DAU

*Neskame batek, Pedro sutondoan jesarrita ikustean, begira-begira jarri eta esan eutson: «Hauxe be Jesusekin ibiltzen zan.» Baina harek ukatu egin eban: «Emakume, nik ez dot ezagutzen hori!» Handik lasterrera, beste batek ikusi eta esan eutson: «Zeu be horreetarikoa zara.» Eta Pedrok: «Ez, gizona! Ni neu ez!» Handik ordubetera edo, beste batek gogor inoan: «Bai, hauxe be Jesusekin ibiltzen zan, galilearra da-eta.» Pedrok erantzun eban: «Ez dakit zer dinozun be, gizona!» Eta une berean, oraindino berbetan ziharduala, oilarrak jo eban.
Lukas 22, 56-60*

Pedroren eskuak ezin dira ez zabaldu ezta batu be egin. Sutara hurreratu ebazan berotzeke, erabat hotz bihurtu jakozan-eta. Eta orain bere aurpegi izoztua jarten dau esku

artean, zimurtu daien, ezkutatu daien, zabal-zabalik dituan begiak, ezagutu leikiezala-eta, ikaratuta dagozan bitartean.

Ez zan ordu asko igaro beste hau zin egin ebanetik: “Jauna, prest nago Zugaz baita kartzelara eta heriotzara be joateko! (Lk 22, 33). Eta orain, herensugeari aurka egiteko prestatzen ziharduana, dardarka dago arratoiaren aurrean. Hemen adoregabetzen da ebanjelariari txikitzat jotea gustatzen jakon morroi honen aurrean.

Holan, martiritzarako prest gagozala dinogu eta ihes egiten dogu eragozpen txikienaren aurrean. Balentria handietarako gagozalakoan, muzin egiten deusagu ahalginik txikienari be. Gauez oilar-jokoan gabilz, baina benetako oilarrak jo egiten dau, eta gure harropuzkeria ametsa balitz lez desagertzen da eta errealidadea amesgaizto lez agertzen jaku... Baina orduan, geure burua ahalmen barik eta zigortuta ikusten dogunean, graziaren egintza lortu egin daiteke.

Beste gauzatxo bat be esan behar dogu etxeko hegaztiei buruz. “Gizaki eta abereak zuk biziarazoten dituzu”, dino David erregeak (Sal 35, 7). Guztienganako salbazino honetan, abereek gizakiengana jo leikie honeei laguntzeko. Geure burua hain nagusi, hain santu, hain erasoezin ikusi eta gero, behea jo eta erabat lorrindu gaitekez, hegazti batek gainditu gaitez eta eredu bihurtu daiteke guretzat. Apostoluen printzeak munduaren argia ukatu egiten dau, baina oilarrak etenbarik iragarten dau egunsentia. Beraz, ezproi gainean pausatu orde, entzun daigun oiloaren ikasbidea. Kristok berak entzuten dau bere aienean: “Jerusalem, Jerusalem, profetak hiltzen eta Jainkoak zuri bialduak harrikatzen dozuzana! Zenbat bider ez ditut batu gura izan zure seme-alabak, oiloak txitak hegalpean bazen dituan legez, eta zuek ez dozue gura izan” (Mt 23, 37).

Jesus Jauna, sendatu gagizuz gure “ametsezko maitasunetatik”; ulertu daigula hemen eta orain, gure miserien bidez, piztien artean, eta ez ustez aldekoa dogun munduan, emon behar dogula zure lekukotasuna.

PILATOK JESUS EPAITZEN DAU

Pilatok hirugarren aldiz esan eutsen: «Zer oker egin dau, bada, honek? Nik ez dot hau kondenatzeko arrazoirik aurkitzen. Beraz, zigorraldia emon eta askatu egingo dot.» Baina hareek deadar eta deadar ziharduak kurutzeratu egiala eskatuz, eta gero eta handiagoak ziran deadarrak. Orduan, Pilatok hareen eskabidearen aurrean makurtzea erabagi eban.

Lukas 23, 22-24

Pilato ordena publikoaren bermatzailea da. Berak bakea gura dau. Jakin badaki bakea ez dala arazorik ez egote hutsetik etorriko bakarrik. Justiziak ekarriko dau bakea (Is 32, 17).

Horregaitik galdera eginez ekiten deutso epaiketari: “Zer oker egin dau?”. Baina bildur da, behealdetik jentetzaren gehiegikeriak etorri daitekezalako eta goitik nagusien zigorra –jenteaak hauxe dinotso-eta: Askatzen badozu, ez zara Zesarren adiskide (Jn 19, 12)-, eta, horregatik, errugabeak kurutzeko heriotzara zigortzen ditu...

"Egia, zer da egia?" galdetzen deutso Jesusi (Jn 18, 38). Ba ete dau garrantzirik berba horrek politikan? Kontua ez ete da, gehienbat, agente-harremanetan borrokatzea, eskaintza eta eskaria orekatzea, ahuntza eta aza salbatzea? Politikari ona ez ete da jakintsuagoa jakituria alde batera itzi eta zuhurtasun eta diplomaziaren malgutasuna nahiago dauanean?

Pilato ez da egiaren jabe izatea gura dauan abade nagusiaren antzekoa: liberala da, jasanbera, jakingura, doktrina-korronteetara irekia (Ef 4, 14). Egia aurkezten danean, ohiko guzurak beste interesatzen jako. Guzurra, beretzat, beste izen bat baino ez da, kopuru batek zapaldu leiken izena.

Jesus Jauna, gorde gaizuz munduko bakearen egile izatetik: gobernuan diranek egia balio inbertsonalen adostasunera sakrifikatuko ez dauan justizia gauzatu daiela.

JESUS ZIGORTU ETA ARANTZAZ KOROATZEN DABE

Purpurazko soinekoa ipini eutsen aldean eta arantzaz egindako koroa buruan. Eta agurka hasi jakozan: «Agur, judeguen erregea!» Kainaberaz buruan jotzen eben eta txistua botatzen eutsen eta, belaunikaturik, aurrean ahuspez jartzen jakozan. Markos 15, 17-19

Hemen da gure erregea bere boterean, eta horregaitik beragaz jolastu daikegu panpina balitz lez. Hemen da gure erregea bere agintean, eta horregaitik iseka egin deikeogu. Hemen da gure erregea bere distiran, eta horregaitik zaborrez estaltzen dogu.

Bere erregetza hainbestekoa da non ironiari aurre hartzen deutsan. Soldaduek ez dabe larregi pentsatu juduen errege aldarrikatzean. Belaunikatzean, ez dabilz hain

ondo. Ezta txistua botatzean, euren txistua edozein ukendu baino preziatuago da-eta beretzat. Maite dituan eta euren alde bere odola isurtzen dauan gizonen txistua.

Zapaldutako irudi honetan datza Ahalguztiduntasuna. Ez zapaltzen dauan boterea (guztiz ahula litzatekelako nagusitzeko besteak zapaldu beharra baleu). Ez mundu honetako boterea, mundu honetako beste botereen aurka dagoana (eremu berean legokelako, botereen orekan, bakarrik indar handiagoagaz nagusituz). Ahalguztidun sortzailea, soldadu honeek sortzen dituana, indarra eta ahotsa emoten deutsena, euren askatasunari bere eskuzabaltasun mugagabeen ezabatuz leku egiten deutsana.

Ha barik ezingo leukie txistua bota. Ha barik ez leukie armarik zigortzeko. Jakina, euren doeak desbideratu egiten dabez hari gerra egiteko. Eta, halanda be, txarto jokatura be, oparo emoten deutsen askatasun hori gehiegikeriaz erabilita be, omendu egiten dabe. Eta bere handitasuna ez da hareen erantzukizuna txikiagotzea, gatx hori bere gain hartzea baino eta egunen batean ze itsu egon diran adierazotea. Euren ironia zelan harrapatuta geratzen dan Betierekoaren ironia handi, onbera, kitzikari eta osasungarrian.

Jesus Jauna, zure izakien aurkako irain guztiak zeure aurpegian jaso zenduzan. Zabaldu gure begiak, autortu daigula zure aurpegia txikiengan, behartsuengan, baztertuengan, zure tronua jauregietan ez ezik leku guztietan, baita sakon-sakonean be, dagoala jakin daigun.

JESUSI BERE KURUTZEA LEPORATZEN DEUTSE

Haren lepotik nahiko barre egin ostean, purpurazko jantzia kendu eta bere soinekoak jantzi eutsezan. Gero, atara eta kurutzean josteko eroan eben.
Markos 15, 20

Hasieran, Jainkoak zuhaitzak landatu ebazan gizon eta emakumearentzat, landu eiezan, euren frutuak batu eta imitatu, frutu emotea (Has 1, 22) lehenengo agindua da-eta. Egurrezko eraikuntzak giza egiteko horretarako balio izango dau: Bibliako hebreeran, "etorkizuna izan" eta "etxea eraiki" esateko hitz berak erabilten dira. Badaki zer bait

Hitzak, arotz egin zanak. Egurra eban maite. Ebaki, bardindu, buztartu, finkatu egin eban. Eroan ditu habeak etxeak eraikitzeke, ohiko arku honeek.

Baina orain, bere sorbalden gainean, emonkortasun eta abegiaren egurra, kanporatze eta hilketaren egur bihurtu da. Orain ez da apur bat erretiratu egiten eban habexka sabaia egiteko zalako: txarto eskuairatutako zeharraga da, bere pisuaren pisuak sama zanpatzen deutsana, ezpalak eskuetan sartzen deusazana.

Zer egin dogu poz-oihu egiteko (1 Kr 16, 33) sortu ziran zuhaitzakaz? Zergaitik zizelkatu dogu torturarako tresna hori biziaren zuhaitzetik? Baina jainkoazko arotza da orain be bere azken habea zerutik jausitako zero lez bere buru gainean daroana. Egur honegaz beste etxe bat eraikiko dau, kutxa –bere Eleiza- eraikiko dau galdutako seme eta alaba guztiak Aitarentzat batuz.

Jesus Jauna, zure aurka jarri doguz zure doeak, zure kreazinoa suntsiketarako darabilgu, basoak suntsitzen doguz torturarako makinak egiteko, ortuak putzu bihurtzen doguz. Beste inor ez bezala, besteen nahietara egokitzen zaran horrek, lagundu eiguzu, gure kurutzea hartuta, lurra lantzen ikasi daigun barriro eta biziaren zuhaitzaren emonkortasunaz jabetu gaitezaz beste behin be.

ZIRENEKO SIMONEK LAGUNTZEN DEUTSO JESUSI

Solotik etxerakoan handik joian bat, Simon Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita, kurutzea eroatera behartu eben.

Markos 15, 21

Gizon arrunta da, lanetik bueltan doan aita. Etxera doa, zalantza barik, pentsatu barik hartu dau barriro be solotik etxera doan bidea, milaka bider egindako bidea, joan-etorrikoa, bere oinek agindu barik egiten daben bidea, buruan pentsamentuak bueltaka dabilzan bitartean –eguneroko bidaia, ohiko bidea, zulo bakoa, ezusteko bakoa-. Eta bat-batean, maiz igarotako bideak funtsezko gertaerara daroa. Bat-batean, Kurutzearen Egonaldiek eten egiten dabe eguneroko ibilbide hori. Norbanako arrunta, erdikoa, berak holakorik nahi ez badau be, Historiako Alfa eta Omegaren artean harrapatuta aurkitzen da. Eta bere izena, baliogabetzera kondenatuta, Ebanjelioetan inskribatuta dago: Simon

Zirenekoa, Alexandro eta Ruforen aita... Dana dago hor, iragana eta etorkizuna, bere jatorria eta bere umekiak, bere lanbidea, gainbehera etorritako nekazariarena, benetako gizona, bere esku eta odolagaz, dala eta ez gizatasun abstraktua, ondo ulertzeko. Orain ez dago beste pasadizozko gertaerarik. Tipo ez hain pobrea barriro harrapatuta Salbazinoaren jainko tragedian.

Betiereko drama handian ez dago estrarik. Inork ezin dau ihes egin. Eta bakarrik ikusbera edo axolagabe izan gura dogunean, protagonista izatea dagokigu. Baina, zein? Kaifas ala Zefas? Judas ala Pedro? Pilato ala Simon Zirenekoa?

Jesus Jauna, gure bizitza laburregia da estua izateko: ulertu daigula, gure komedia txikietara mugatu gura dogunean, danontzat dala kurutzatutako maitasunaren drama handirako deialdia.

JESUSEK JERUSALEMEKO EMAKUMEAN AURKITZEN DITU

Herriko jente-talde handia joian Jesusen ondorik, baita emakume asko be, bular joka eta beragaitik aieneka. Bihurtu zan Jesus hareengana eta esan eutsen: «Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik Nigaitik; egizue negar zeuokaitik eta zeuon seme-alabakaitik».

Lukas 23, 27-28

Jakina, atsekabetu eta negartiak dakarguz, doluan artista diranak, errukiaren profesionalak. Maria berba barik geratzen danean, keinu eta doinu hunkigarriak agertzen dabez. Lana dabe-eta! A zelako lana negar-malko distiratsua eta negar-zotin dardaratzaila izatea! Diru gitxiren truke, aieneak egiten aditu diran honeek hainbesteko zirrara jarri leikie lintxamendu batean non talde urteera eder bihurtzeko gauza diran.

Baina bat-batean, bere ikuskizun handiaren erdian, biktima altxatu ebite da: “Ez egin negarrik Nigaitik; egizue negar zeuokaitik eta zeuon seme-alabakaitik”. Handi eta zorioneko izan eitezan izan zenduzan, baina esperimentatzen ari nazan hau da handitasun eta poztasunerako bidea. Gogoratu eizue bere semeak Salbatzailearen eskumatarara eta ezkerretara jarri gura ebazan amari esan jakona: Gauza ete dira Nik edan behar dodan kalizatik edateko? (Mt 20, 22).

Orduan, edo gure seme-alabek kaliza horretatik edango dabe, eta negar egin ahal izango dogu maitasunagaitik, Kristoren atzetik jarraituz sufritzen ikusiz, negar egin eta pozez

bete, edo pantailen aurrean euren koktelak edaten jarraituko dabe, eta negar egin behar izango dogu euren baitan usteltzen ikusteko.

Jesus Jauna, kendu guregandik onerako ez dan errukia, txarragaz bat egin eta entretenimendu bihurtzen dauan errukia, sufrimentuak laburtzen saiatzen dana.
Emoiguzu sendotasun nahiko zure atzetik jarraitzeko.

JESUS KURUTZEAN JOSTEN DABE

“Buru-hazur” eritxon lekura heldu ziranean, bertan josi eben kurutzean Jesus, baita gaizkile biak be, bata Jesusen eskumaldean eta bestea ezkerrean. Jesusek holantxe inoan: «aita, parkatu eiezu, ez dakie zertan diharduen-eta.» Soldaduek Jesusen jantziak banatu egin zituen, zotz eginez.

Lukas 23, 33-34

Gure eskuez egiten dogun guztia: hartu, heldu, jaurti, kolpatu, lausengatu, ukabila altxatu, hatz erakusleaz seinalatu... Hona hemen –tresnen tresna-, gure biluztasunean laguntzera etorri eta erropak josten, hormak jasoten, ateak zabaltzen, gitarrak jotzen, liburuak idazten dabezan erpe, adar bihurtzen diranak. Hona hemen, gaur, botoiak sakatzen eta munduaren gaineko kontrol osoa eskatzen dabenak. Hemen dira, batez be Kalbarioan, ekintza gorenaren orduan, mailua eta iltzeak maisutasunez erabiliz beste bi itsasteko, eskuez, behin betiko zabalik, hutsik, ezer oratu ezinik...

Egiten dogun gehiena geure eskuetan dago, maneiatu eta maneiatu eta maneiatu eta maneiatu egiten dogu-eta zentzu guztietan. Baina egiten doguna, ez dakigu. Kristoren eskuak ezinbesteko dira aditzera emoteko. Ezinbesteko doguz iltzatutako esku honeek, opari eta opari eta tresnarik gabeko eskuak, oratzeko ezintasuna daben baina parkatzeko ahalguztidun diran eskuak, gure eskuak batez be ez dirala estutzeko atal, harmenerako atal baino, -zauriraino- egokitze atal baino.

Jesus Jauna, zure eskuak zulatuko dabezanez eta zure espiritua Aitaren eskuetan itziko dozunez, lagundu eiguzu traba eta tenk egiten deuskun guztia askatzen; gure eskuak bedeinkapenerako loratu daitezala barriro be.

JESUSEK BERE ERREINUA AGINTZEN DEUTSO LAPUR ONARI

Kurutzetik dindilizka egozan gaizkileetariko bat Jesusi irainka ebilkion: «Hi ez haz, ba, Mesias? Salbatu egik heure burua eta salbatu gagizak geu be!» Baina besteak agiraka egin eutson, esanez: «Zigorra jasoten hagoala be ez deusak bildurrik Jainkoari ala? Gurea legezkoa dok, ze, geure eginakaitik merezia joaguk; baina honek ez jok ezelako okerrik egin.» Gero esan eban: «Jesus, gogoratu zaitez nitaz, zeure erreinura heltzean.» Jesusek erantzun eutson: «Benetan dinotsut: gaur Neugaz izango zara paradisuan.» Lukas 23, 39-43

Ez da Kristoren kurutzea bakarrik. Hor dagoz gaizkileen kurutzeak be. Gure eskuman, kurutzatua ez da biktima. Kriminala da (izan be, borreroek kriminalak hiltzen dabez). Heriotza bortitza jasanda hiltzen dira, baina erdian dagoanagaz alderatuz, bidezkoa da. Bere sufrimentua salbazinoa baino ez da. Oinazearen amaierak ez dau emoten gizon hobe egingo dauanik: bada oinazerik infernuan be. Zentzugabekeriaren bidez hemen ikusi daitekenez, ez da nahiko sufritzea onbidean egoteko eta ez dala mina Kristoren kurutzeak lehenengo egiten dauana, bestela bera besteko ona izango litzateke lapur gaiztoen kurutzea. Mina berez da txarra. Balioren bat izan daian, maitasunak edo abandonuak zeharkatu behar dau. Ezinbestekoa da damua, harrokeria hautsia, kexatzeko eskubiderik ez dauala dakienaren negarra...

Horixe da gure ezkerrean agertzen dana: gaizkilea da Paradisuan sartzen lehenengoa. Ahal izan eban guztia egin eban Jaunarengandik ihes egiteko. Honen aginduak gitxietsi egin ebazan. Ez eban bide zuzena hartu, ez; bere burua gaizkileen artean kokatu eban. Eta orain Jainkoarengandik aldentzeko ahalegin horrek leku horretara, une horretara eroan dau, hain zuzen be Jainkoaren eskumara, salbazinoa gauzatzen dan une zehatzean.

Jaunak ez eban zuzendu. Ardiei bidean galtzen itzi eutsen. Otso basati bihurtzen be itzi eutsan. Baina azkenean, azken-azkenean, bere berariazko errukian eta haren berariazko damuan, lepoan hartu eta bere zauri eta hutsak, bere desbideratze eta desbiderapenak benetako bide bihurtzen dira bat-batean.

Jesus Jauna, ez gaitezala biktima lez agertu; zuregana jo daigula ausardia eta konfiantzaz, gure hutsak autortuz, ez dira-eta zure Erreinuan sartuko asmatzen doguzan pertsonaia ederrak, ezta errukarriak be, gure benetako herria baino, bere arimak txikituta badagoz be.

JESUSEK AMA ZAINTEA JOANEN ESKU IZTEN DAU

Jesusek, bere ama eta, beronen ondoan, maite eban ikaslea ikusirik, esan eutson amari: «Emakume, horra hor zure semea!» Gero, ikasleari esan eutson: «Horra hor zure ama!» Eta harrezkero ikasleak bere etxean hartu eban.
Joan 19, 26-27

Gaizkileen ostean, guztiz santua. Hemen legoke, oinazerik handiena eta, aldi berean, poztasunik handiena. Hain zuzen be, gauza bat da min izatea; beste bat semea oinazea ikustea; eta beste bat, bere gaixotasuna amaren aurpegian islatuta eta bihotza alderik alde zulatuta (Lk 2, 35) ikustea. Holan, erruki bi aurrez aurre jarrita, ispilu bi balitzaz lez, eta oinazea amildegian sartzen da, infinituraino barruratzen da... Amak zera esan leuskio bere buruari: “Neu izan naz, haragia emonez, Jainkoaren Semea sufritzeko gaitasuna emon deusana. Neu naz kurutzearen arrazoia. Deikundean neure ‘Fiat’ a emon izan ez baneu, ez eukien Betiko Hitza torturatuko...”. Baina hemen da Testamentua. Hemen dira Jesusen azken nahiak, urkatik esandakoak. Eta kontua ez da bakarrik seme zintzo lez bakarrik geratuko dan ama gogoan izan eta ikaslearen zaintzapean izten dauala. Berba gitxi horreekaz agertzen dau bere Nekaldiaren zentzu sakona.

Heriotza garaile atara dala emoten dau, baina Bizia da esku-hartzen dauana. Hiltze nagusi hori jainkozko sorkuntza da. Min jasanezin honeek erditze-minak dira. Maria da erdi-urren dagoana. Eguzkiak bildutako, ilargiak jantzitako, izarrez koroatutako emakumea; unibertso osoaren kemena batzen eta gauzatzen dauan emonkortasunaren emakumea; Apokalipsiaren beraren bihotzean be (12. kapitulua) sortu egiten dauan emakumea. Berak Semea galdu egiten dau, baina Semeak beste hau agertzera emoten deutso: benetan, hemen, kurutzearen oinetan, munduaren suntsipenaren erdian, bera ama dala barriro be, geure ama grazian.

Jesus Jauna, zure maitasunak txarrena be salbazinorako ate bihurtzen dauanez, egizu doluak ez gaizala antzu bihurtu eta Maria bitarteko dogula zabalik egon gaitezala beti Biziaren ezustekora.

JESUS KURUTZEAN HILTEN DA

Eguerdi aldea zan, eta ilundu egin eban lurbira osoan hirurak arte. Eguzkia ezkutatu egin zan eta santutegiko oihala erdi-erditik urratu zan. Jesusek deadar handiz esan eban:

«Aita, zeure eskuetan izten dot neure espiritua!» Eta hori esanda, azken arnasa emon eban. Erromatar ehuntariak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu eban, esanez: «Benetan be zintzoa zan gizon hau!»

Lukas 23, 44-47

Eta hona hemen unea on kurutzeak eta aintzak bat egiten daben. Eguzki-eklipsea da, eta eguerdia da ordu berean. Oihala erdi-erditik urratzea da, eta aldi berean santutegiaren goi-agerpena da. Jesus da hiltzen dana, eta aldi berean biziaren agerpena da. Kristok deadar handiz emon eban azken arnasa, baina deadar hori betiereko ahoskuntza da, ez gainerakoak lako hitza, Hitza bera baino, zeru goienetan Bera dan Hitza.

Zer egiten dau Jainkoaren Semeak Hirutasunaren barruan, gero eta zaharragoa eta gero eta barriagoa dan ekitaldian, benetako eta balizko mundu guztiak barne hartzen eta barriro asmatzen dituan eskaintzan? Berak Aitari emoten deutso bere Espiritua. Berak Aitarengandik jasotako Maitasuna emoten dau. Eta orain, haragi egin danean, Maitasun horretan, Jainkoaren biziaren mobimenduan, pekatuak astindutako kreazinoa bere gain hartzen dau. Holan, kreazinoa bera gogo biziz begira dago, Jainkoak noiz agertuko zer dan beraren seme-alaba izatea (Erm 8, 19).

Atxilotzen daben lehenengoa, kurutzearen aintzazko bira hau aditzera emoten dauan lehenengoa, paganoa da, erromatar ehuntaria. Ez jainkozalea. Leku haretan bere lana egiten egoan gizona. Lan zikina egiten, zalantza barik. Haragi hotza egiaztatu. Zigortuen azkenaz arduratu. Horregaitik, lantza hartu eta bihotz santua lehertzeraino zulatzen dau. Baina, bat-batean, bere bihotza urratu egiten dala sentitzen dau eta ur bizia jariatzen daua.

Jesus Jauna, lotu gure heriotza zeureagaz; gure azken arnasa izango dana eskaintza gorenaren leku izan daitela.

JESUS HILOBIAN EZARTZEN DABE

Orduan, kontseiluko kide bat etorri zan, Jose eritxona, gizon on eta zintzoa; honek ez zituan ontzat emon Batzar Nagusiaren erabagia eta jokabidea. Judeako Arimatea herrikoa zan izatez, eta Jainkoaren erregetza noiz etorriko begira egoan. Josek, beraz, Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu eutson. Jesus kurutzetik jatsirik, izara baten batu eban eta hatxetan zulatutako eta oraindik beste inor lurperatu bako hilobian ezarri. Jairako prestaketak egiteko eguna zan eta zapatua hastera joian

Lukas 23, 50-54

Oraindik errudunak bilatu guran ebilzanak eta besteengan egindako salaketak egiteko arriskuan egozanak, kontuz: Jesusen gorpuaz arduratzen dana judua da, eta aberatsa gainera, eta Sanedrineko kide be bada... Zesarren soldadu batek Israelen fedea bere egin leikela ikasi genduan Ehuntariagaz. Zigorra ezarri ebenen artean Erreinuaren zain egozanak be badirala ikasten dogu orain.

Horreetako batek Jose dau izena, Mariaren senarrak, Jesusen mundu honetako aitak lez. Beraz, aitaren azken samurtasuna agertzen da hemen, hilda dagoan semearen gorpua batuz, beretzat zan hilobia hari emonez... Jose irudi juduen artean nagusia da, Hasiera liburuan be aitatzen dana. Moisesen aurretik, Faraonen etxean sartu eta saldu eben anaiak adiskidetzen dituana.

Baina ez dago beste ezer ikusteko. Ezta beste ezer entzuteko. Kurutzearen Bidea hemen amaitzen da, hilobiaren gaineen biratutako harriaren aurrean. Gau iluna dator gainera. Isiltasuna erabatekoa da. Txoriak be isilik dagoz. Jainkoa hilda dago. Ez dago zalantzarik horren inguruan. Jainkoa hilda dago, baita infernua amilduta be. Baina hori holan da gure hildakoek aurrerantzean bere bizia izan daien. Holan, 'impasse' honetatik, beragaz bertikalean geure bideak zabaltzen dogu.

Jesus Jauna, hilobiko zure zapatuagaitik, zu lez, zure Espirituari esker, bide izan gaitezala biderik ez dagoan lekuan; egia izan gaitezala egiarik ez dagoan lekuan; bakarrik heriotza dagoan lekuan, gu berbizkunde izan gaitezala.

PAZKO-ALDIKO PREFAZIOAK BERBIZTUAGAZ ETA MUNDURA BIALTZEN GAITUAN ESPIRITU SANTUAGAZ BAT EGITEKO BIDEAN⁵

Prefazioa Eukaristia-otoitzera garoazan sarrerako atea da, eta bere orpoa Sanctus (Santu) abestia, non bizi et kantu egiten dogun prefazioaren amaierak iragarten dauan guztia. Prefazioa ospakizunaren ‘kolorea’ erakusten dauan eta Eukaristiari ‘kolore’ hori emoten deuszan Eukaristia-otoitzaren zatia da; hau da, ospatzen dihardugun Eukaristiari buruzko ohar edo azpimarrak, otoitzarenak edo espirtualak, ikusteko aukera emoten deusku. Beraz, Jainko Aita Semearen bitartez goratzeko ekintza da, bere egintza salbatzaileengaitik eta Pazko-aldian, Kristoren Berbizkundeagaitik, guregan dituan eraginengaitik, eta Berbizkundeak guretzat izan eban esangurea hitzez azaltzen dau.

Pazko-aldia, Eleizaren agiri ofizialek behin eta barriro azaltzen deuskuenez, pozezko aldia da eta Jaunaren Berbizkundea ospatzen da dana jaiegun izango balitz lez. Horren adibide, esate baterako, Pazko zortziurrenaren ospakizuna, Jaunaren solemnitete hau ospatzen dan egun bakar lez ulertuta. Solemnitete hori domekaz domeka eguneratzen da Pazko-aldian, Pazkotik 40 egunetara ospatzen dan Jaunaren Igokundean biribildu arte. Pazkoko solemnitete bakar honen batasun handia Mendekosteko Bijiliagaz burutzen da.

Gaur egungo Erromako Meza-liburuan Pazko-aldiko bost Prefazio orokor dagoz, Igokundearenak bi, Igokundearen ostekoa bat eta beste bat Mendekosterako. Prefazio honeetako bakotxak irakaspena, mistagogika barne hartzen eta garatzen dau eta Eleizak, ama lez, hori oinarritzat hartuta hezi eta bularra emon gura deutso bateo uretik eta Pazkoko argitik sortutako seme barriari. Irakaspen mistagogiko honeek honan multzokatzen dira:

- Kristo-alkartasun. Irakaspen mistagogiko hau Pazkoko Prefazioetan aurkituko dogu. Dalako prefazio horreetan, Jesukristoren heriotzaren gaineko garaipena, garaipen horren iragarpena eta guretzat dauan bermea adierazoten da. Beste era batera esanda: Pazkoa ez da Kristoren Pazkoa; salbazinozko gertaera horren bitartez bere Pazkoaren alkartasunean partaide bihurtzen gara.
- Kristo-gidari. Igokundeko Prefazioetan dago irakaspen mistagogiko hau. Bertan azaltzen jakunez, Kristok ez gaitu bertan behera izten,

⁵CPL-k Bartzelonan argitaratutako Los prefacios y las secuencias liburutik hartutako ideiak eta egitura.

bidea erakusten deusku eta gu guztiok bide horretatik aurrera egin behar dogu Jainkoaren Erreinua bizitzeko eta sortzeko itxaropenean.

- Kristo- seme eta Anai. Mendekosteko Prefazioan biribiltzen da irakaspen mistagogiko hau. Espiritu Santuak Jainkoaren familiako kide bihurtu garan guztiok bialdu egiten gaituala nabarmentzen da. Espiritu Santuaren bitartez seme-alabatzat hartuak gara eta, Prefazioan esaten dan lez, Espiritu hori guregan dago Eleizaren hasiera-hasieratik.

Pazkoko I. Prefazioa. Pazko-misterioa

Pazkoko Prefazioen artean gehien erabilten dan honen hasieran, Pazko Bildotsaz hitz egiten da. Bildots horrek, gainera, zera dinosku: Jainkoak ez berbaz hitz egiteaz batera, bere goi-ardura islatzen daben ekintzakaz be hitz egiten deuskula. Kasu honetan, Santu danaren eta Bera lez santu izateko aurretik aukeratu gaituan Jainkoaren maitasunaren egiazkotasuna erakusten dau. Kristok betierekotasunaren ateak zabaldu egiten ditu bere gain hartzen daualako munduaren pekatua, besteak beste, erakutsiz: Kristo abade eta biktima dala, bere heriotzagaz heriotza suntsitu ebala, heriotzaren muineraino sartu zala, infernura jaitsi zala, eta bere erdian egoala suntsitu egin ebala, guztioi betiko bizitzarako bidea agertu euskula eta berbiztuz bizia berrezarri ebala.

Pazkoko II. Prefazioa Bizi barria Kristorengan

Prefazio honek hasieratik dinosku Kristorengan danok biztu garala eta gertaera horren bidez ikusi daikegula argiaren seme eta alaba garana. Kristo benetako argiak argitzen dau guztia eta seme-alaba lez haregaz bat eginda, geuk be argiaren isla izan behar dogu munduan.

Pazko-aldian, bizitasun handiagoz gogoratzen jaku Argiaren seme-alaba izatera, betiko bizitzara, Jainkoaren Erreinura deituak izan garala. Kristo Seme izan zan lez, geuk be Jainkoaren seme eta alaba izan behar dogu hemen eta orain. Eta Haren seme-alaba gara, bateoaren bidez bizi barrira jo izan dogulako eta ezin dogulako ez entzunarena egin Kristogan osotasuna jadesteko deiaren aurrean eta horregaitik osotasun hori egunero bizitzen saiatu behar dogu.

Pazkoko III. Prefazioa. Kristo bizidun eta betiereko bitartekari gure alde.

Pazkoko prefazio honek, bistakoa danez, salbatu eta parkatu egiten gaituan Kristo dau oinarritzat. Prefazio guztiek Pazko-misterioa badabe mintzagai, aldi honetan interesgarria da beste honetaz jabetzea: Kristok, gure pazkoak, askoren alde bere bizia emon dauala. Izan be, gu salbatzeko, ezinbestekoa da Berak bere bizia emotea, bere gurua gu guztion alde eskaintzea Aitaren aurrean gure alde erregutuz. Gure kristau bizitzak aurrera egiten dauala gogoratzen deusku prefazio honek eta, aldi berean, Jesusek bere bizia emon izanak ez dauala atzera bueltarik erakusten deusku, gure alde hil dana betirako bizi dala. Azken batean, barriro gogoratzen jaku: gure poza Semearengan seme eta alaba egin gaituan Haren erabateko eta maitasunezko emotetik sortzen dala.

Pazkoko IV. Prefazioa. Unibertsoaren salbazinoa Pazko-misterioaren bitartez

Prefazio honetan, Kristoren Pazko-misterioak dakarren miraririk handiena aurkituko dogu, hau da, Unibertsoaren salbazinoa; pazko-misterioan sortzen dan salbazinoa kreazino osoaren gainean. Gure ospakizunetako protagonista nagusi dan Kristoren misterioak, pazko-misterioak gogoratzen deuskunez kreazinoa bera be gainditu egiten dauan salbazinoak, Jainkoaren seme eta alaba egiten gaitu eta hori kreazinoak emon euskun Jainkoaren antz eta irudiko izatetik askoz harago doa. Salbazinoak giza izaeraren erabarritzea dakar eta horrezaz gainera gure izadiari ez dagokiona, miseria, eraitsi egiten dau, pekatuak eraitsi dauana berregiteko eta gure izatea Kristorengan barritzeko Jainkoaren seme eta alaba lez. Beraz, hori holan izanda, ezin dogu geuretzat bakarrik gorde benetako bedeinkazino dan pazko-misterioa.

Pazkoko V. Prefazioa. Kristo Abade eta Biktima

Berbizkundean bakarrik ulertu daikegu Kristoren abade izaera; abade lez, sakrifizioa eskaintzen dau eta, aldi berean, biktima lez, bere burua da eskaintzen dauana. Prefazio hau Lukasen liburuan jasoten diran zoriontasunen ikuspuntutik ikusita, bakarrik maite zaituenak maite badozuz, ze balio dau zure maitasunak? Kristo eredugarri izan danak maitatuz bizi izan zalako. Horregaitik, behin eta barriro gogoratzen jaku kurutzearen balio salbatzailea eta geure bizitzan kurutze hori onartzea dagokigula. Salbazinorako bide lez onartzean, kristauak Kristoren antzeko izaten saiatu behar dau, 'Kristo' izan munduan besteentzat.

Jaunaren Igokundeko I. Prefazioa. Igokundearen misterioa

Kristo berbiztua, gorputz eta ariman, zerura igon izana da Igokundearen eta bere misterioaren oinarritz. Gaur ospatzen dogun misterioa funtsezkoa da, Eukaristiaren ospakizunaren bitartez Igokundea hemen eta orain eguneratzen dalako. Kristoren bizitzako misterio guztiak agertzen dira sakramentuetan, eta horregaitik prefazio honek Jaunagaz bat eginda egotea eta gure bizitzetan Kristo berbiztuagaz bat egitetik sortzen dan itxaropenean bizitzea ezinbesteko dirala nabarmentzen dau. Sakramentuen amaieran ikusten da hori batez be, Kristo bizidun eta berbiztua iragartera bialtzen gaitue-eta.

Jaunaren Igokundeko II. Prefazioa. Igokundearen misterioa

Prefazio honek pazko-aldiaren amaiera hurran dala adierazoten deusku eta, ondorioz, aldi honetan bizi eta ospatu izan dogunaren laburpena eskaintzen deusku. Berbizkundearen ostean bizi izan doguna erakusten deusku: agerpena ikasleei; ortutik hilobi hutsera, Emaus eta Afaltokitik igaroz eta burutzeko Igokundearen aurreko agerpena, Kristoren izaera bikotxa erakusiz: Kristo gizona, bere haragia ikutu dabe eta Kristo jainkotiarra, zerura igo dalako. Horrek esker on amaigabea eragiten dau partaide garalako, benetan, jainkozko bizitzan.

Jaunaren Igokundearen osteko Prefazioa. Espiritu Santuaren etorreraren zain

Prefazio honek, Idazteunaren eta antzinako idazleen laguntza eta inspirazinoagaz, Kristok Igokundetik aurrera dauan jarduera erakusten deusku. Kristok, Aitaren eskuman, gu guztion alde erregutzen dau. Guk Haregaz dogun hartu-emonean sakondu egin behar dogu, izan be, Kristok bere burua gure alde emon dau eta orain gutako bakotxaren bidez egiten dau eta, gainera, bitartekari da Aitaren aurrean eta horren ondorioz Espiritu Santua bialduko deusku. Prefazio honen bidez sartuko garan astean Espirituaren etorrera prestatuko dogu.

Mendekosteko Prefazioa: Mendekosteren misterioa

Prefazio honek amaiera emoten deusko pazko-aldiari. Espiritu Santuaren eguna, Mendekoste eguna aurkezten deusku bere garrantzia betean.

Hasieran, gaur oroitzen dan eguna aitatzen dau, liturgian eguneratzen dana, Espiritu Santua bialdu zaneke eguna. Espirituari esker eta bere bizia gure alde emon eban Kristoren bitartez, Jainkoaren seme eta alaba gara. Eleiza da, batasunean alkartuta, Espiritu Santuaren doea hartzen dauana. Danok, geure bokazinotik, Espirituaren bitartez gure artean dan Jainkoaren presentzia hori bizi eta zaindu egin behar dogu. Hizkuntzen aniztasunaren erdian antzematen dan batasunak garoaz Espirituaren unibertsaltasuna autortzera. Horregaitik, funtsezkoa da jaso dogun hori zabaltzea, hau da, Espiritu Santuaren eraginez gure artean dagoan gizon egindako Jainkoaren maitasunezko mezu horren lekuko eta iragarle izatea.

ERANTZUN SALMOAK

Hausterre Eguna – 50. salmoa



Garizuma aldiko 1go. domekea – 90. salmoa



Garizuma aldiko 2o. domekea – 26. salmoa



Garizuma aldiko 3. domekea – 102. salmoa



Garizuma aldiko 4. domekea – 33. salmoa



Garizuma aldiko 5. domekea – 125. salmoa



Erramu domekea – 21. salmoa



R/. E- ne Jain-ko-a, non za-goz Zu? Zer-ga-tik es-ku-tik i- tzi no- zu.

Eguen Santua – I 15. salmoa



R/. Zu-re ka-li- zak bat gai-tu e- gin Je-su- kris-to- ren o- do- la- re-kin.

Bariku Santua – 30. salmoa



R/. Zu- re es- ku- e- tan dot bi- zi - a as-



ka-tu na-gi- zu, Jaun haun-di - a!

Pazko Gaubela – I 03. salmoa



Zu- re ar- na- sa bi- dal gu- ga- na ta lur a- za-



-la ba - rri- tu, Jau- na. Zu- -rri-tu, Jau - na.

Pazko Gaubela – I 15. salmoa




Zeu za - ra, Jau - na, ni - re on- da- re - a.

Pazko Gaubela – Ex 15



Lur o- so- a, e- gi- o- zu i - rrin- tzi Jain-ko-a- ri.

Pazko Gaubela – 29. salmoa



Es-ke- rrak Jau-na-ri, Haren maita-su-na be- ti- ko-a bai-ta.

Pazko Eguna – I 17. salmoa



Hau e__- gu -na hau, Jau- nak_ e- gi - na, gu-



Pazko aldiko 2. domekea – 117. salmoa



Pazko aldiko 3. domekea – 29. salmoa



Pazko aldiko 4. domekea – 99. salmoa



Pazko aldiko 5. domekea – 144. salmoa



Pazko aldiko 6. domekea – 66. salmoa



Jaunaren Igokundea – 46. salmoa



Mendekoste – 103. salmoa



